



Tolosaldea  
Historia  
Bilduma



Javier Buces Cabello

## **TOLOSA 1945-1975**

Giza eskubideen urraketak eta  
errepresioa diktadorea hil artean

Violaciones de derechos humanos y  
represión hasta la muerte del dictador



## **Javier Buces Cabello (Sevilla, 1982)**

Deustuko Unibertsitatean Historian lizentziaduna, 2007. urtetik historia eta arkeologiarekin zerikusia duten ikerketa lanak burutzen dihardu Aranzadi Zientzia Elkarteko kide bezala. Honez gain, UNED-eko Ikerketa Historikorako Metodo eta Teknika Aurreratuak masterra ere eskuratu du.

Licenciado en Historia por la Universidad de Deusto, desarrolla trabajos de investigación histórica y arqueológica como miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi desde el año 2007. Paralelamente ha completado su formación mediante la realización de un master universitario en Métodos y Técnicas Avanzadas de Investigación Histórica (U.N.E.D.).



**Babesleak**  
Patrocinadores



# TOLOSA 1945-1975

## Giza eskubideen urraketak eta errepresioa diktadorea hil artean

Violaciones de derechos humanos y  
represión hasta la muerte del dictador

Javier Buces Cabello

2018



SOCIEDAD DE CIENCIAS  
SCIENCE SOCIETY  
SOCIÉTÉ DE SCIENCES



## **Tolosaldea Historia Bilduma 21**

**Egilea /Autor:**  
Javier Bucos Cabello

**Ikerlari kolaboratzaile nagusia /  
Investigador colaborador principal:**  
Karlos Almorza Arrieta

**Maketazioa / Maquetación:**  
TamTam S.L.

**Inprimitzen du / Imprime:**  
Leitzaran Grafikak S.L.

**Itzulpena / Traducción:**  
Itzulnet Itzulpen Zerbitzuak

ISBN 978-84-947343-8-0  
D.L. / L.G. SS 1214-2018  
ISSN 1579-6299



## **ARANZADI zientzia elkarte**

Zorroagaina 11  
20014 Donostia - San Sebastián  
Tel.: 943466142 Fax: 943455811  
e-mail: [idazkaritza@aranzadi-zientziak.org](mailto:idazkaritza@aranzadi-zientziak.org)  
[www.aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)

## AURKIBIDEA / INDICE

orr./pag.

<b>1. HITZAURREA / PRÓLOGO.....</b>	<b>07</b>
<b>2. TOLOSA 1945-1959.....</b>	<b>11</b>
2.1. 1945 eta 1959 bitarteko erregimen frankista / El régimen franquista entre 1945 y 1959.....	12
2.2. Tolosa 1945 eta 1959 bitartean / Tolosa entre 1945 y 1959 .....	17
2.3. Autarkia, errazionamendua eta ongintza / Autarquía, racionamiento y beneficencia.....	29
2.4. Etxebizitzaren arazoa / El problema de la vivienda .....	42
2.5. Industria sektorea Tolosan: enpresen garapena, lan harremanak, gizarte kontrola eta lehenengo mobilizazioak / El sector industrial en Tolosa: desarrollo empresarial, relaciones laborales, control social y primeras movilizaciones .....	49
2.6. Gerra osteko errepresioa / La represión de posguerra.....	64
2.7. 1945etik haratago doan erbestealdia / El exilio más allá de 1945 .....	92
<b>3. TOLOSA 1960-1975.....</b>	<b>105</b>
3.1. Erregimen frankista 1960-1975 bitartean / El régimen franquista entre 1960 y 1975 .....	106
3.2. Tolosa 1960-1975 bitartean / Tolosa entre 1960 y 1975.....	114
3.3. Industriaren ingurumen- eta hirigintza- inpaktua Tolosan: garapen-politika, egonkortzea eta gainbehera / El impacto medioambiental y urbanístico de la industria en Tolosa: política desarrollista, estancamiento y declive.....	130
3.4. Euskal kulturaren susperraldia. Euskara berreskuratzeko borroka / Reactivación de la cultura vasca. La lucha por la recuperación del euskera.....	141
3.5. Lan arloko gatazkak / Los conflictos en el ámbito laboral .....	148
3.6. Erregimenaren aurkako oposizio politikoa berriro aktibo Tolosan / La reactivación de la de la oposición política al régimen en Tolosa .....	175
3.7. Errepresaliatuak / Los represaliados .....	193
<b>4. BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA .....</b>	<b>217</b>







# 1. Hitzaurrea / Prólogo



Tolosaren ikuspegi panoramikoa / Vista panorámica de Tolosa. (TUA / AMT).





Gertatutakoa idatzita geratzen ez bada, gertatu ez balitz bezala geratzeko arriskua dago. Liburu honek Tolosako iraganaren hiru hamarkadetan gertatutakoa jasotzen du.

Aranzadi Zientzia Elkarteak Tolosako Memoriaren inguruan garai ezberdinetako lanketa egin du eta orain artekoa osatzera dator azken hau.

Egileak azpimarratzen du liburuia “historikoa eta deskriptiboa” dela, era nabarmenean azalpenetan oinarritua. Liburuak islatzen du frankismoaren ondorengo garaian herri honek nola egin zuen aurrera. Garai hartako gizarteak zailtasun eta oztopo ugari izan zituen herri bezala aurrera egiteko, zailtasun ekonomikoaz gain jazarpen politikoa. Migrazio mugimenduak ere izan zuten eragina herrian, paper fabriketako langileen aldarrikapen sozialak, “garaituak” eta “garaileak” elkar gurutzatu zitezkeen herria zen, oinarritzko beharkizunak ase gabe zituen, herriko azpiegituretan ageriko gabeziak nabarmenak ziren, bizi baldintza gogorak azken finean eta ageriko askatasun falta, 40 urte iraun zuen frankismoaren ondotik, hori da azaltzen duena lan honek, Tolosako herriaren bilakaera soziologikoa, kulturala eta politikoa.

Urte haietako hainbat mugimendu eta aldarrikapenak ekarri ta gerturatzen gara egungo gizartera: lehenengo ikastola, euskal kultura eta euskararen aldarrikapena eta frankismoak atzeratutako liberekin askoren egarria. Trantsizio garai honetako Tolosa ezagutzeak badu garrantzia ondorengo urteetan izan dugun bilakaera ezagutzeko, eskuratu ditugun hainbat eskubideen lorpenari neurriko errekonozimendua emateko eta pairatutako injustiziak berriro ez errepikatzeke.

Memoriaren inguruko lanak ezinbestekoak dira, iraganen gertatutakoa aztertuta, kontzientzia eskuratu, gertatutakoaz ikasi, elkarbizitzan oinarritutako etorkizuna eraiki ahal izateko.

## TOLOSA 1945-1975

Si lo que ha sucedido no queda escrito, tiene el peligro de quedar como algo que no ha ocurrido. Este libro recoge lo acontecido en tres décadas del pasado de Tolosa.

La Sociedad de Ciencias Aranzadi ya ha tratado sobre diferentes épocas de la Memoria de Tolosa. Este último trabajo viene a completar lo hecho hasta ahora.

El autor recalca que el libro es “histórico y descriptivo”, claramente basado en exposiciones. El libro refleja el modo en que este pueblo salió adelante durante el franquismo. La sociedad de aquella época se encontró con numerosas dificultades y trabas para avanzar como pueblo, con una persecución política y, además, con dificultades económicas. También tuvieron influencia en la villa los movimientos migratorios, las reivindicaciones sociales de los trabajadores de las papeleras; era un pueblo en el que se podían cruzar los “vencidos” con los “vencedores”, que no cubría sus necesidades básicas, con carencias notables en las infraestructuras... En suma, lo que este trabajo muestra son las duras condiciones de vida y la evidente falta de libertad y, tras los 40 años que duró el franquismo, la evolución sociológica, cultural y política de la villa de Tolosa.

A través de los diferentes movimientos y reivindicaciones de aquellos años nos acercamos a la época actual: la primera ikastola, la reivindicación de la cultura vasca y del euskera, y la sed de muchas libertades reprimidas por el franquismo. Es importante conocer esta época de transformación para entender la evolución de los años posteriores, para dar un reconocimiento adecuado a los numerosos derechos logrados y para que no se repitan las injusticias sufridas.

Los trabajos sobre la memoria son imprescindibles para analizar lo que sucedió en el pasado, para concienciarse y aprender de lo sucedido y así poder construir un futuro basado en la convivencia.


Olatz Peón

TOLOSA **T**UDALA  
Aldekoa





## 2. Tolosa 1945-1959



Agintari frankistak Tolosan Tolosako papertegiaren mendeurena ospatzen. Irudiaren erdian, Luis Rodríguez de Miguel, Gipuzkoako gobernadore zibila. 1942 /  
Autoridades franquistas en Tolosa con motivo del centenario de la Papelera de Tolosa. En el centro de la imagen Luis Rodríguez de Miguel, gobernador civil de Gipuzkoa. 1942

2. TOLOSA 1945-1959

2.1. 1945 eta 1959 bitarteko erregimen frankista

“Y en España, paz”. Hori izan zen, hain zuzen ere, 1945eko urtarrilaren 1eko Unidad egunkari falangistaren azaleko mezua. Hegoaldean gerra bukatu eta zortzi urte geroago, “Garaipena IX. Urtea” diktadura frankistaren irudietan, erregimena harro zegoen lortutako egonkortasunaz, Bigarren Mundu Gerran gertatzen ari zen hondamendiaren ondoan. Europako gerra aipatzen zen Gipuzkoan argitaratutako egunkari gehienen azaletan. Estatu mailan, aldiz, “bakea da nagusi gure etxeetan; gizonezkoek euren lanean murgilduta bizi dira, lasai eta soseguz, egun zoragarri hauetan alaitasunez eta bizitzaz gozatuz, igarotako borrokaren ondoren, gure garaipenaren saria (...) Bakea. Eta baita lortu ere. Haren itzalean hasiko du Espainia osoak 1945<sup>1</sup>.”

2. TOLOSA 1945-1959

2.1. El régimen franquista entre 1945 y 1959

“Y en España, paz”. Este era el mensaje que el diario falangista *Unidad* llevó a portada el 1 de enero de 1945. Ocho años después de la finalización de la guerra en Hegoalde, el “IX año Triunfal” en el imaginario de la dictadura franquista, el régimen presumía de estabilidad frente a los desastres que estaba produciendo la Segunda Guerra Mundial. La guerra en Europa destacaba en la mayor parte de los diarios publicados en Gipuzkoa, mientras que en el Estado “hay paz en nuestros hogares; viven sus hombres consagrados a las tareas del trabajo, con ánimo quieto y sosegado para entregarse en estos días de fabulosas veladas a la alegría y el placer de la vida, que después de la lucha pasada se nos presenta como un premio providencial de nuestra victoria (...) La paz. Y la hemos conseguido. A la sombra de ella inicia España entera este año de 1945”<sup>1</sup>.



Unidad (1945ko urtarrilaren 1a / 1 de enero de 1945).

*Estatus quo* horri eusteko, erregimenak jurisdikzio militar hori erabiltzen jarraitu zuen, beste jurisdikzioen gainetik, nahiz eta jadanik hainbat urte igaro ziren dagoeneko “garaipena” aldarrikatu zutenetik. 1943ko martxoaren 2ko Legearen aitzinsolasean, non asaldaketa militarreko delituarekin parekatzen ziren “bizimodu sozialean eragin agerita duten lege-urraketak”, adierazten zen “inor ez dadila ausartu gizartearen diziiplina zorrotzetik desbide-

Para el mantenimiento de este estatus quo, el régimen siguió valiéndose de la jurisdicción militar por encima de cualquier otra autoridad, a pesar de haber transcurrido varios años de la proclamación de la “victoria”. En el preámbulo de la Ley del 2 de marzo de 1943, en la cual se equiparaban al delito de rebelión militar “las transgresiones de orden jurídico que tengan una manifiesta repercusión en la vida social”, se apuntaba que “nadie ose desviarse de

<sup>1</sup>Unidad, 1945eko urtarrilaren 1. / Unidad, 1 de enero de 1945.



ratzen<sup>75</sup>. Gainera, 1947ko apirilaren 18an, dekretu-lege bat atera zen, zeinetan “terrorismo eta bidelapurreria delituek, gerra ondorengo egoera guztietan delitu larrienak direnak, lotura moralen lasaikuntzaren eta jende kriminal eta moldaezinen krudeltasun eta oldarkortasunaren bultzaden goraiapatzearen ondorioak, errepresio-neurri bereziak, gairitu nahi diren krimenen larritasun mailari dagozkionak” behar dituztela esaten den<sup>3</sup>.

Izan ere, beste hainbat hamarkadaz luzatu zen jurisdikzio militarra arrazoi politikoetan justizia administrazio-organo gisa. Ondorioz, 1943ko legea eta 1947ko dekretu-legea berrikusi eta 1960 eta 1968ko bidelapurreriaren eta terrorismoaren errepresioari buruzko dekretuetan bildu ziren<sup>4</sup>. Halaber, 1939ko Erantzukizun Politikoko eta Masoneriaren eta Komunismoaren Errepresiorako 1940ko Legea 1960ko hamarkadara arte jarraitu zuten indarrean; Gerra Zibilarekin lotutako espetxeratu ohien kontrolaz arduratzen ziren Zaintzapeko Askatasuneko Zerbitzuaren Tokiko Batzordeak ez ziren 1970eko hamarkadaren hasierara arte desagertu.

una rígida disciplina social<sup>75</sup>. Asimismo, el 18 de abril de 1947 se promulgó un decreto-ley que señalaba que “los delitos de terrorismo y bandidaje, que constituyen las más graves especies delictivas de toda situación de posguerra, secuela de la relajación de vínculos morales y de la exaltación de los impulsos de crueldad y acometividad de gentes criminales e inadaptadas, requieren especiales medidas de represión cuya gravedad corresponda a la de los crímenes que se trata de combatir<sup>3</sup>.”

Y es que la jurisdicción militar como órgano de administración de justicia en delitos de motivación política se prolongó varias décadas más. De hecho, la ley de 1943 y el decreto-ley de 1947 fueron revisados y unificados en los decretos de 1960 y 1968 “sobre represión del bandidaje y terrorismo<sup>4</sup>”. Del mismo modo, la Ley de Responsabilidades Políticas de 1939 y la Ley de Represión de la Masonería y del Comunismo de 1940 también continuaron vigentes hasta la década de 1960; y las Juntas Locales del Servicio de Libertad Vigilada encargadas del control de ex reclusos relacionados con la Guerra Civil no desaparecieron hasta comienzos de la década de 1970.



**Preso errepublikarrak Porlierreko kartzelan. 1943 / Presos republicanos en la cárcel de Porlier. 1943.** (*El País*, 2017ko apirilaren 21a / *El País*, 21 de abril de 2007)

<sup>75</sup> BOEa, 1943ko martxoaren 16. 1943ko martxoaren 2ko Legea, zeinaren bitartez bizi publikoan eragin argia duten ordena juridikoko urraketak altxamendu militarri parekatzen diren. / BOE núm. 75, de 16 de marzo de 1943. Ley de 2 de marzo de 1943, por la que se equiparan al delito de rebelión militar las transgresiones de orden jurídico que tengan una manifiesta repercusión de la vida pública.

<sup>3</sup> 126. BOE, 1947ko maiatzaren 6koa. 1947ko apirilaren 18ko Dekretu-Legea (zuzendua), bidelapurreria eta terrorismo delituen errepresioari buruzkoa. / BOE núm. 126, de 6 de mayo de 1947. Decreto-Ley (rectificado) de 18 de abril de 1947, sobre represión de los delitos de bandidaje y terrorismo.

<sup>4</sup> 231. BOEa, 1960ko irailaren 26. 1794/1960 Dekretua, irailaren 21ekoa, zeinak mila bederatziko ehun eta berrogeita hiruko martxoaren biko Legea eta mila bederatziko ehun eta berrogeita zazpiko apirilaren hemezortzikoa berrikusi eta bateratzen zituen. (). // 198. BOEa, 1968ko abuztuaren 17koa. 9/1968 Dekretu-legea, bidelapurreriaren eta terrorismoaren errepresioari buruzkoa. / BOE núm. 231, de 26 de septiembre de 1960. Decreto 1794/1960, de 21 de septiembre, revisando, y unificando la Ley de dos de marzo de mil novecientos cuarenta y tres y el Decreto-ley de dieciocho de abril de mil novecientos cuarenta y siete. (). // BOE núm. 198, de 17 de agosto de 1968. Decreto-ley 9/1968, de 16 de agosto, sobre represión del bandidaje y terrorismo.

Horren guztiaren ondorioz, diktadura frankistaren aurkako guztia ikusezin bihurtu edo erbesteratzera bultzatu zuen, eta kartzelak gerrako gatibuz eta preso politikoz bete ziren. Errealitate horretan oinarritze zen propagandarako baliabideen bitartez erregimenak aditzera ematen zuen bakea. Erresumaren Oinarrizko Legeek, 1936 eta 1937 bitartean aldarrikatuak, Espainiako Estatuko hiritarren bizimodua zuzentzen zuen araudia zehazten zuten, eta baita haien arteko harreman sozialak, lanekoak eta politikoak ere. 1945ean, Espainiarren Forua onetsi zen. Hartan, hiritarren eskubideak eta betebeharrak biltzen ziren, eta haren bigarren kapituluaren zehazten zen “Espainiarrek zerbitzu zintzoa eman behar ziotela Aberriari, leialtasuna izan behar ziotela Estatu-buruari eta legeak bete behar zituztela”<sup>5</sup>. Lege-esparru horretatik at, erregimenak errepresioz jokatu zuen, inolako oztoporik gabe, agortu arte, 1946ko otsailaren 9an Nazio Batuek hura kondenatu bazuten ere, 1952ko azaroaren 18an UNESCOk onetsi eta 1955eko abenduan NBE-n sartu zen, eta, horrela, nazioartean onetsi zen.

Aldi horretan zehar, errepresio frankista epailetzaren bitartez gauzatzeaz gain, poliziaren ekintza (Guardia Zibila, Polizia Armatua eta Poliziaren Gorputz Nagusia) etengabeaz ere baliatu zen, Estatuaren ustezko adiskidetasuna bazegoen ere. 1945 eta 1951 bitartean, gutxienez bost lagun hil ziren Hegoalden poliziaren zaintzapeko torturen ondorioz: Baltasar Buriel makia (Irunen, 1945eko abuztuaren 1ean), Pablo Velasco zenetista (Bilbon, 1946ko apirilaren 17an), Jose Aguirre Iturbe (Basurtoko ospitalean, 1946ko uztailaren 30ean, San Ignazioko jaietan “Gora Euskadi” oihu egiteagatik poliziak emandako jipoiaren ondorioz), Agustín Unzurrunzanga ELAko militantea (Ondarretako kartzelara eramaten zutela, 1947ko maiatzaren 7an), eta Txomin Letamendia jeltzalea (Bilbon, 1950eko abenduaren 20an, polizia-etxetik irten eta gutxira). Horrez gain, Partido Komunistaren hainbat kide ere hil zituzten tiroz: Jesús Carreras Olascoaga (1946ko urtarrilaren 16an, 1943an atxilotua euskal PCE sortzen saiatzeagatik) eta José Isasa Olaizola, Madrilén, 1947ko urtarrilaren 14an; Cándido Urquijo bizkaitar sozialistak bere buruaz beste egin zuen Larrinagako espetxean, 1946ko apirilaren 25ean. Diego Franco eta Antonio López anarkistak Donostian hil zituzten 1947ko apirilaren 21ean. Handik astebeterra, maiatzaren 1 eta 6 bitartean, Hegoaldeko lehenengo greba orokorra izan zen, non 40.000 langilek Euskal Herriko CNT, ELA eta UGT sindikatu nagusien deialdiari jarraitu zioten. 14.000 grebalarik bota zituzten euren lanpostuetatik, eta 4.000tik gora atxilotu zituzten. 1949ko abenduaren 12an, Bartzelonan, Nazio Batuen Batzorde Nagusiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu eta bi egun geroago, Felix Perez de Lazarraga gazteiztarra eta Andrés Mellado Portugaletetarra fusilatu zituzten<sup>6</sup>. Estatuan, bestetik, 16 preso errepublikar fusilatu zituzten 1945eko otsailaren 27an Madrilén, bi falangista hil ziren atentatu baten ostean<sup>7</sup>.

Todo ello condenó prácticamente a la invisibilidad o al exilio a cualquier tipo de oposición a la dictadura franquista, y mantuvo las cárceles abarrotadas de prisioneros de guerra y presos políticos. Sobre esta realidad se fundamentaba la paz que difundía el régimen a través de sus medios de propaganda. Las Leyes Fundamentales del Reino, proclamadas entre 1936 y 1967, establecían la normativa que rigió la vida de los ciudadanos del Estado español y sus relaciones sociales, laborales y políticas. En 1945 se aprobó el Fuero de los Españoles, el cual fijaba los derechos y deberes de éstos, señalando en su artículo segundo que “Los españoles deben servicio fiel a la Patria, lealtad al Jefe del Estado y obediencia a las leyes”<sup>5</sup>. Fuera de ese marco legal el régimen actuó en materia represiva con total impunidad hasta su extinción, ya que a pesar de ser condenado por Naciones Unidas el 9 de febrero de 1946, el 18 de noviembre de 1952 fue aceptado en la UNESCO y en diciembre de 1955 ingresó en la ONU, siendo de esta forma reconocido internacionalmente.

Durante este período la represión franquista no sólo se ejerció a través de la judicatura, sino que también se valió de la actividad ininterrumpida de los cuerpos policiales (Guardia Civil, Policía Armada y Cuerpo General de Policía), a pesar de la supuesta concordia en la que se mantenía el Estado. Entre 1945 y 1951 al menos cinco personas fallecieron en Hegoalde a causa de las torturas recibidas bajo custodia policial: el maqui Baltasar Buriel (en Irun el 1 de agosto de 1945), el cenetista Pablo Velasco (en Bilbao el 17 de abril de 1946), Jose Aguirre Iturbe (en el hospital de Basurto el 30 de julio de 1946, debido a la paliza recibida por la policía tras gritar “Gora Euskadi” en la festividad de San Ignacio), el militante de ELA Agustín Unzurrunzanga (en su traslado a la cárcel de Ondarreta el 7 de mayo de 1947), y el jeltzale Txomin Letamendia (en Bilbao el 20 de diciembre de 1950, poco después de salir de comisaría). Asimismo, fueron fusilados los miembros del Partido Comunista Jesús Carreras Olascoaga (el 16 de enero de 1946, detenido en 1943 tras intentar reorganizar el PCE vasco) y José Isasa Olaizola en Madrid el 14 de enero de 1947; y el socialista vizcaíno Cándido Urquijo se suicidó en la prisión de Larrinaga el 25 de abril de 1946. Los anarquistas Diego Franco y Antonio López fueron ejecutados en Donostia el 21 de abril de 1947. Una semana después, entre el 1 y 6 de mayo, se produjo la primera huelga general en Hegoalde, en la que 40.000 obreros respondieron a la llamada de las centrales sindicales vascas CNT, ELA y UGT. 14.000 huelguistas serían despedidos de su puesto de trabajo, y más de 4.000 fueron detenidos. En Barcelona, el 12 de diciembre de 1949, dos días después de que la Asamblea General de Naciones Unidas proclamara la Declaración Universal de Derechos Humanos, fueron fusilados el gasteiztarra Félix Pérez de Lazarraga y el portugalujo Andrés Mellado<sup>6</sup>. En el Estado, por su parte, 16 presos republicanos fueron fusilados el 27 de febrero de 1945 en Madrid tras un atentado en el que murieron dos falangistas<sup>7</sup>.

<sup>5</sup> 199. BOEa, 1945eko uztailaren 18. Estatuko buruzagitzia. Espainiarren Forua. / BOE núm. 199, de 18 de julio de 1945. Jefatura de Estado. Fuero de los Españoles.

<sup>6</sup> EGAÑA, I.: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria 1936-1945*.

<sup>7</sup> EGAÑA, I.: *El franquismo en Euskal Herria. La solución final*.





**Ike Eisenhower Ipar-Amerikako presidentek Francisco Francori egindako bisita. 1959** /Visita del presidente norteamericano Ike Eisenhower al dictador Francisco Franco. 1959 (*El Mundo*, 2016ko uztailaren 8a / *El Mundo*, 8 de julio de 2016)

Egoera horiek, maki zeritzen gerrate antifrankistak antolatutako ekintza nahiko organizatuz gain, ekintza isolatuen erregimenari isolatutako erresistentzia gaitasuna mugatzen zuten. 1946ko azaroaren 22an, Agustín Egaña Mintegi nazionalistak, Txato, bere bi lagunekin batera, dinamitaz lehertu zuten Bilbon Emilio Mola jeneral kolpistaren estatua. Handik hilabete batera, klandestinitatetik hasi zen emititzen Euskadi Irratiak, eta, 1947ko apirilaren 27an, matxinatuek Gernika bonbardatu zutenean, bomba bana lehertu ziren Unceta y Cia enpresan eta herriko udaletxean. Urte horretako maiatzaren 1ean, arestian aipaturiko lan-uztea gertatu zen, zeinak jarraipen handia izan zuen euskal industria fabrika nagusienetan. Gerra Zibila bukatu ondorengo Hegoaldeko erresistentziako lehenengo ekitaldi aipagarriena izan zen. 1948ko irailean, Laureano Cerrada anarkista Francisco Franco diktadorea hiltzen saiatu zen Azor ontzian zegoenean Kontxako badian.

Makiek Euskal Herrian burututako ekintzen artean dugu 1947ko urtarrilaren 22an Iruñean bi guardia zibil hiltzea. 1947ko irailaren 1ean, aldiz, hiru maki hil zituzten Donostiako Ibaeta auzoan, eta beste bat, Francisco Echeverria Isarri, tiroz hil zuten Oiartzunen, 1951ko otsailaren 2an. Garai horretan, beste ekintza sinboliko batzuk ere gauzatu ziren, besteak beste, errepublikaren bandera Artzain Onaren elizan jartzea, 1947ko maiatzaren 1ean, edo baita 1948ko otsailean, Barakaldon, goi

Estas circunstancias, más allá de las acciones más o menos organizadas por la guerrilla antifranquista conocida como *maquis*, limitaban la capacidad de la resistencia al régimen a actuaciones aisladas. El 22 de noviembre de 1946 el nacionalista vasco Agustín Egaña Mintegi, *Txato*, junto a dos compañeros, volaron con dinamita la estatua del general golpista Emilio Mola en Bilbao. Un mes más tarde comenzó a emitir desde la clandestinidad *Radio Euskadi*, y el 27 de abril de 1947, coincidiendo con el bombardeo de los sublevados sobre Gernika, dos bombas explotaron en la fábrica *Unceta y Cia* y en el Consistorio de esta localidad. El 1 de mayo de ese mismo año se produjo el paro obrero mencionado anteriormente, de gran trascendencia en las principales factorías industriales vascas, principalmente en Bizkaia, lo que supuso el primer acto de resistencia masivo en Hegoalde tras la finalización de la Guerra Civil. En septiembre de 1948, el anarquista Laureano Cerrada intentó acabar con la vida del dictador Francisco Franco cuando éste se encontraba a bordo del yate Azor en la bahía de la Concha.

En cuanto a las acciones del maquis en suelo vasco, un atentado de miembros de este colectivo acabó con la vida de dos guardias civiles en Pamplona el 22 de enero de 1947, mientras que tres maquis fallecieron en el barrio donostiarra de Ibaeta el 1 de septiembre de 1947, y uno más, Francisco Echeverria Isarri, fue abatido en Oiartzun el 2 de febrero de 1951. Asimismo, durante este período se produjeron otro tipo de acciones de carácter más simbólicas como

tentsioko kableetan ere. Ondorioz, hainbat eta hainbat atxiloteta izan ziren. 1950ean, bestetik, erresistentzia nazionalistak Arrigorriagako Guardia Zibilaren kuarteleko balkoian ikurriña jarri zuen<sup>8</sup>.

la colocación de una bandera republicana en el Buen Pastor el 1 de mayo de 1947, así como en cables de alta tensión en Barakaldo en febrero de 1948, lo que motivó decenas de detenciones. En 1950, por su parte, la resistencia nacionalista colocó una ikurriña en la balconada de cuartel de la Guardia Civil en Arrigorriaga<sup>8</sup>.



1968an Uzturre mendiko gurutzean ikurriña / Ikurriña en la cruz de Uzturre en 1968.

<sup>8</sup> Ibid.

1950 bukaera inguruan, asko areagotu zen diktaduraren aurkako erresistentzia, gehienbat Gerra Zibila bizi izan ez zuten ikasleen eta langileen mugimenduak bultzatuta. 1956ko otsailaren 10ean erregimen frankistaren lehenengo salbuespen-egoera aldarrikatu zen. Zuzenbidea ikasten zuten Madrilgo ikasle talde batek idatzitako manifestuan izan zuen jatorria. Milaka lagun gehitu zitzairen, eta hiru hilabete iraun zituen. Salbuespen-egoera horren bitartez, erregimen frankistak Espainiarren Foruaren 14 eta 18 artikulua ezabatu zituen. Horieta zioen Espainiarrek eskubidea zutela nazioko lurraldean nahi zuten lekuan euren bizilekua zehazteko. 18. artikulua, aldiz, atxilotutako oro gehenez 72 orduko epean askatu edo epailearen eskuetan jartzea bermatzen zuen. Une horretatik aurrera, eta diktadorea hil zenera arte, hamar salbuespen-egoera ezarri ziren, horietatik bost Euskal Herrian bakarrik.

Bestetik, EGIren jarduera klandestinoak (1945eko maiatzaren 8an eratua) eta 1958an ETaren sorrerak (1952az geroztik Ekin proiektuaren bitartez klandestinitatean lanean ziharduten ikasle abertzaleen talde batek sortutako erakundea) gero eta garrantzitsuagoak bilakatu ziren frankismoaren aurkako borrokan, erakunde nazionalistek antolatuta gehienbat.

A partir de finales de la década de 1950 la resistencia contra la dictadura se incrementó considerablemente, protagonizada fundamentalmente por el movimiento obrero y estudiantes que no habían padecido la Guerra Civil. El 10 de febrero de 1956 se declaró el primer estado de excepción del régimen franquista, prolongándose durante tres meses y cuyo origen fue un manifiesto de un grupo de estudiantes madrileños de Derecho al que pronto se unieron miles de personas. A través del estado de excepción el régimen franquista suprimió los artículos 14 y 18 del Fuero de los Españoles. El primero de ellos hacía referencia a la libertad de los españoles a establecer su lugar de residencia dentro del territorio nacional, mientras que el artículo 18 garantizaba la libertad o puesta a disposición judicial de cualquier detenido en un plazo máximo de 72 horas. Desde entonces y hasta la muerte del dictador, se dictaron diez estados de excepción, de los que cinco de ellos se circunscribieron únicamente al territorio vasco.

Por su parte, la actividad clandestina de EGI (constituido el 8 de mayo de 1945) y el nacimiento de ETA en 1958 (una organización creada por un grupo de estudiantes abertzales que ya desde 1952 venían trabajando en la clandestinidad a través del proyecto Ekin) adquirirán en los años sucesivos una relevancia vital en la lucha antifranquista, vertebrada principalmente por organizaciones nacionalistas.

Urtea / Año	Presoen kop./Nº de reclusos (datu ofizialak/datos oficiales)	Batez besteko presoak/Población reclusa media (egilearen datuak/datos del autor)	Preso politikoak /Presos políticos (egilearen kalkuluak/cálculos del autor)
1939	90.413	101.000	91.000
1940	213.640	221.000	211.000
1941	145.851	180.000	170.000
1942	112.735	129.000	79.000
1943	112.735	89.000	79.000
1944	48.812	69.000	59.000
1945	39.527	44.000	34.000
1946	32.380	35.000	25.000
1947	34.141	33.000	23.000
1948	33.534	33.000	23.000
1949	-	32.000	22.000
1950	27.285	29.000	19.000

Gerra osteko urteetan espainiar Estatuan espetxeratuak pertsonak / Personas encarceladas en el Estado español en los años de la posguerra<sup>9</sup>.

## 2.2. Tolosa 1945 eta 1959 bitartean

Unidad egunkari falangistak 1945eko urtarrilaren 1ean aldarrikatzen zuen ustezko bake haren itzalean geratu zen Tolosa ere, 13.000 biztanleko udalerrria, Oria ibaiaren aroko industriaren mui-na, eta paperaren industria betidanik izan zuena. Udalerrri honetan

## 2.2. Tolosa entre 1945 y 1959

A la sombra de aquella supuesta paz que proclama el diario falangista Unidad el 1 de enero de 1945 quedaba también Tolosa, un municipio de 13.000 habitantes, centro industrial de la cuenca del río Oria con una implantación histórica de la industria del pa-

<sup>9</sup> Ramón Tames-en arabera: *La República. La era de Franco*; orr.: 354-355. (argitalpen honetatik ateratako datuak: Kartzela frankisten liburu zuria. / Según Ramón Tames: *La República. La era de Franco*; págs.: 354-355. (datos extraídos de la publicación: Libro blanco sobre las cárceles franquistas.




gerrako garaileek hurrengoak utzi zituzten gutxienez: 438 tolosar erbesteratuta, 68 desagertuta, 203 Espainiako kontzentrazio-eremuetan, Tolosan fusilatutako 64 (horietatik 29 bertakoak) eta beste 57 tolosar tiroz hilak beste udalerrri batzuetan (11ri gerra kontseilu sumarisimoetan heriotza zigorra ezarri ondoren).. Euskal Herriko gainerako udalerrietan ere bizi zen egoera. Erregimenaren prentsak zein tokiko agintariek zein probintziakoek, hura ezkutatu eta normaltasun itxura ematen zuten, ordea.

Halere, adiskidetasuneko gezurrezko itxura hori sinesgaitza zen, haiek bizi zuten txirotze egoera orokorra eta banakako zein taldeko euren bizikideen askatasunak estutzen zituen errepreziozko sistema ikusita, zeina 1936ko abuztuaren 11n matxinatuek hartu zutenetik militar ugari zituen. 1948ko apirilaren 7an gerra-egoera indargabetu zen arte, San Martzial 7. Erregimentuaren

pel. En esta localidad los vencedores en la guerra habían dejado tras de sí a al menos 438 tolosarras exiliados, 68 desaparecidos, 203 recluidos en campos de concentración españoles, 64 fusilados en Tolosa (29 de ellos vecinos del municipio), y otros 57 tolosarras ejecutados en otras localidades (11 tras ser condenados a pena de muerte en consejos de guerra sumarísimos). Asimismo, decenas de tolosarras continuaban encarcelados. Una realidad similar a la del resto de municipios vascos, que tanto la prensa del régimen como las autoridades locales y provinciales ocultaban dando apariencia de normalidad.

Sin embargo, esta fraudulenta imagen de cordialidad resultaba realmente inverosímil en una población en la que además de una situación de empobrecimiento generalizado y un sistema represivo que estrechaba al máximo las libertades individuales y colectivas



Francisco Franco Tolosan Serapio Altuna alkatearekin batera. 1941 / Franco en Tolosa junto al alcalde Serapio Altuna. 1941. (Tolosako Udal Artxiboa; TUA / Archivo Municipal de Tolosa; AMT).

bigarren konpainia Tolosako epaitegi eta kartzelaren lokal batean egon zen, ea baita Arte eta Ogibideen Eskolarako erabiliko zen eraikinean, 1938tik aurrera (herriko batzokia erregimenak hartu arte); Udalarentzako diru-sarrera iturri nagusietako bat izan zen zezen-plaza, aldiz, ezin zen ikuskizunentzat erabili, armak han uzten zirelako eta askotan, nahiz eta beti ez, 61. Dibisioko Intendenzia Taldeak erabiltzen baitzuen<sup>10</sup>. Leku publikoak hartzeaz gain, militarrek iskanbilak sortu zituzten udalerrian, eta elikagaiak hornitzeko oztopo izan ziren, garai hartako udal biltzarretako aktetan irakur daitekeenez. Halere, udalerriko agintari frankistak agintari militarren aginduen pean izan ziren, eta salbuespeneko egoera bizi bazen ere, 1946ko apirilean, armada hirian edukitzearen erabakia eskertu zioten gobernadore militarri, “Tolosako herriaren abertzaletasuna eta Armadarekiko maitasuna agerian uzteagatik”<sup>11</sup>.

Hala ziharduten udal kudeatzaileak 1942ko azaroaren 26tik 1952ko otsailaren 3ra Ramón Llanos Goiburu alkatearen agindupean aritu ziren. 1914an Tolosan jaioa, Gerra Zibilean Falangearen talde paramilitarren taldeetan boluntario aritu zen soldadu, eta alderdi faxista horren buru izan zen Tolosan II. Errepublikan. Borrokalari kolpista gisa, teniente egin zuten, eta birritan zauritu zuten. Horregatik, “Kanpainaren domina” eta bi “Gerrako gurutze” eman zizkioten ondoren<sup>12</sup>. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak alkate izendatu baino urte bete lehenago, Espainiako errekorra hautsi zuen euskal barran. Falangista sutsua, Euzko Izpar Banatzearen arabera (erbesteko Euzko Jaur-laritzaren komunikabide ofiziala), Ramón Llanosek Gipuzkoako Foru Aldundiaren presidenteari, José María Caballero Arsuaga, zilegitasuna kentzeko kanpaina zuzendu zuen 1953an, zeinari “Mugimenduaren”<sup>13</sup> printzipioekiko jarrera heterodoxoa izatea aurpegiratzen baitzion. Aurretik, 1949an, Ramón Llanos Mugimenduaren Probintziako Buruak Gorte Frankisten prokuradore hautatu zuten, eta Eibarko alkatearen ordezkari bete zuen postua<sup>14</sup>.

de sus vecinos, contaba con una presencia militar asfixiante desde que fuera tomada por los sublevados el 11 de agosto de 1936. Hasta la derogación del estado de guerra el 7 de abril de 1948 la segunda compañía del Regimiento de San Marcial nº 7 permaneció instalado en un local perteneciente al juzgado y cárcel de Tolosa, así como en el edificio destinado para la Escuela de Artes y Oficios desde 1938 (batzoki de la localidad hasta que fue incautado por el régimen); mientras que la plaza de toros, la cual era una fuente de ingresos principal para el Ayuntamiento, quedó deshabilitada como recinto donde celebrar espectáculos al encontrarse depositado material armamentístico y ser ocupada de manera asidua, pero no permanente, por el Grupo de Intendencia de la 61ª División<sup>10</sup>. Además de la ocupación de espacios públicos los militares causaron ciertos desórdenes en el municipio y supusieron una dificultad añadida en el abastecimiento de alimentos, tal y como se recogen en las actas de los plenos municipales de aquellos años. Pero aún así, los dirigentes franquistas de la localidad permanecieron sumisos a las autoridades militares, y a pesar de la excepcionalidad de la situación, en abril de 1946 agradecían la decisión del gobernador militar de mantener al ejército en la villa, lo que “probaba las virtudes patrióticas y amor al Ejército del pueblo tolosano”<sup>11</sup>.

Los gestores municipales que así obraban estuvieron dirigidos entre el 26 de noviembre de 1942 y hasta el 3 de febrero de 1952 por el alcalde Ramón Llanos Goiburu. Nacido en Tolosa en 1914, intervino en la Guerra Civil como soldado voluntario de los grupos paramilitares de Falange, partido fascista del que ocupó la jefatura en Tolosa durante la II República. Como combatiente golpista fue ascendido a teniente y en dos ocasiones resultó herido, razones por las que posteriormente le fue otorgada la “medalla de Campaña” y dos “cruces de Guerra”<sup>12</sup>. Un año antes de ser investido alcalde por el Gobernador Civil de Gipuzkoa batió el record de España de barra vasca. Falangista acérrimo, según la Oficina de Prensa de Euskadi (medio oficial del Gobierno Vasco en el exilio), Ramón Llanos lideró una campaña de deslegitimación del presidente de la Diputación de Gipuzkoa en 1953, José María Caballero Arsuaga, a quien acusaban de mantener una posición heterodoxa con respecto a los principios del “Movimiento”<sup>13</sup>. Anteriormente, en 1949, Ramón Llanos fue nombrado procurador en las Cortes franquistas a propuesta del Jefe Provincial del Movimiento, siendo elegido en detrimento del alcalde de Eibar<sup>14</sup>.

<sup>10</sup>Tolosako Udal Archiboa (TUA); 1945-1948ko irteera-erregistroak. / Archivo Municipal de Tolosa (AMT); Registros de salida 1945-1948.

<sup>11</sup>TUA; 1945-1948 aktak. / AMT; Actas 1945-1948.

<sup>12</sup>*La Voz de España*, 1942ko azaroaren 27. / *La Voz de España*, 27 de noviembre de 1942.

<sup>13</sup>1953ko OPE; 1436. alea. / OPE año 1953; núm. 1436.

<sup>14</sup>AGA-Mugimenduaren Idazkaritza Nagusia, c.200. / AGA-Secretaría General del Movimiento, c.200.



## La renovación del Ayuntamiento de Tolosa

# Posesionó a los nuevos titulares el excelentísimo señor Gobernador civil

## Patrióticas palabras del nuevo Alcalde



El camarada Ramón Llanos Gorbun, nuevo alcalde de Tolosa. (Pétozar.)

En el salón de sesiones del Ayuntamiento de la villa de Tolosa ha tenido lugar, a las diez y media de la mañana de hoy, el acto de la toma de posesión de los nuevos componentes de la Gestora Municipal de la citada localidad.

El acto ha sido presidido por el excelentísimo señor gobernador civil y jefe provincial del Movimiento, camarada Rodríguez Miguel, que dio posesión a los nuevos concejales, asistiendo los señores alcaldes y gestores municipales entrantes y salientes.

El Secretario de la Corporación dió lectura al decreto de sustituciones y nombramientos, haciendo seguidamente uso de la palabra el excelentísimo señor Gobernador civil y Jefe provincial del Movimiento para decir que su presencia en la renovación parcial del Ayuntamiento de Tolosa es una prueba de la atención preferente que dedica a la vida municipal de la provincia, por la importancia que las autoridades locales tienen en el orden político y administrativo, ya que son las que se desenvuelven en relación más directa con el pueblo, por lo que ha de estar inspirada su gestión por la sensibilidad más delicada y por un constante estado del deber, para que los gobernados vean siempre en su Alcalde y concejales, at-

gura guía y entrañable tutela de sus afanes e intereses.

“Y cuando se trata —dijo— de pueblo como el de Tolosa, cuya historia es una continuada serie de servicios a la causa de Dios y de España, la representación del Municipio que encarna en esta Corporación y culmina en la figura del Alcalde, será indiscutida siempre que oscila en quienes son ejemplo de apostolado, con limpia ejecutoria de identificación con los postulados del Gobierno nacional; pero sin que basados con los méritos contraídos en el pasado, porque en estas difíciles tareas de la paz, es preciso, además, que al margen de toda condescendencia, de todo personalismo inoportuno o de cualquier sectarismo inconveniente, nos mantengamos en constante vocación de servicio, circunstancias que lleva el cargo, que desde hoy ocupará, el nuevo Alcalde de Tolosa que con aquella conducta, revalidada al combatir en nuestra Cruzada con honrosa graduación castrense y varias veces herido, mantiene una rectitud de disciplina y ponderación, junto a los que serán sus colaboradores.”

Seguidamente exaltó el sentido de continuidad que debe tener el ejercicio del mando en pueblo como el de Tolosa, que de modo tan celoso cultiva sus tradiciones y valores espirituales.

“A todos —terminó—, tanto a los que continúan o se inician en las tareas municipales como a los que en ellas cesan, me complace testimoniar mi gratitud por los servicios que prestaron, con honradez y diligencia a los que hoy abandonan las tareas administrativas, y por la obra que sumaron a los que desde hoy integran esta Corporación, bien seguro de que todos, tanto en sus actividades públicas como en sus quehaceres privados, permanecerán fieles y disciplinados para con los elevados principios que supieron defender en la guerra como en la paz, bien presente, sobre todos nuestros afanes, que en esta enroscada historia en que estamos, nos es exigible la más estrecha unión a cuantos con la misma fe, por la misma Patria y bajo el mismo victorioso mando nos hemos vinculado a la tarea de conseguir, contra todo enemigo exterior o interior, patente o oculto, la Libertad y la Grandeza, que significan nuestra vida.”

Terminando con un “Arriba” y vivas a España y al Caudillo, que fueron contestados con emoción por todos los presentes.

Seguidamente pronunció breves palabras el alcalde saliente, don Sergio Alzua, para desear a quienes entran ahora a regir el pueblo de Tolosa los mayores aciertos, testimoniando a cuantos con él colaboraron mientras desempeñó la Alcaldía, su profunda gratitud por el desarrollo con que siempre le auxiliaron, como asimismo a la primera autoridad de la provincia por las facilidades, con que siempre le auxiliara.

Por último, el Alcalde entrante, después de agradecer a la primera autoridad civil de la provincia su presencia en el acto, como prueba del cariño que siempre demostró a Tolosa, dió que por acuerdo y venia de los Excmos. Sres. Gobernador civil y Ministro de la Gobernación, venimos aquí, llamados por la voz del deber, dispuestos a ayudar a nuestro Caudillo a ganar la gran victoria de la paz y a ratificar la que un

dia conseguimos por las armas.

Para ello estamos alentados por la lección que nos dieron los que cayeron y dieron su sangre en nuestra Cruzada, comparado con lo cual se bien poco nuestro sacrificio”, recordando la reciente simbólica conmemoración de la muerte de José Antonio, que con una visión clara del futuro, mantenedor de nuestros valores tradicionales, nos legó una doctrina política y social llena de realidades, digna de ser imitada y perseguida como ejemplo de nuestra conducta.

Confesó la satisfacción de sentir un conjunto de concejales en los que sea dignamente están representados todos los sectores, todos los sentimientos del pueblo de Tolosa (que lo mismo en siempre adversos como en los días de lucha y triunfo coincidieron en los mismos patrióticos afanes y arraigadas creencias hoy condensados en la comunión de esfuerzos e ideales, a la que todos pertenecemos bajo el mando del Caudillo.

“Aquí estamos nuevamente reunidos algunos de los no hace aún mucho tiempo, nos concentrábamos juntos en el campo de batalla, luchando contra nuestros comunes enemigos. No cabe duda de que uno de los factores, más importantes de nuestra victoria fue la gran unión y camaradería que reinó entre todos nosotros, ya que, dejando a un lado pequeños prejuicios, nos lanzamos a la lucha para conseguir la grandeza de nuestra Patria.”

“Al igual que entonces, nuevamente el destino nos vuelve a unir, y estoy seguro de que si nuestro trabajo lo llevamos dentro de la mejor unión y armonía, será fructífero con lo cual habremos cumplido con nuestra misión y el pueblo de Tolosa nos lo sabrá agradecer.”

Se refirió después a los importantes problemas, que a no dudar, tiene planteados el pueblo de Tolosa, asegurando la voluntad de resolverlos en cuanto este se manifieste consciente de la gran responsabilidad que contraen, pero que plena confianza en el porvenir, para que su gestión sea provechosa para el pueblo de Tolosa y cumpliendo como buenos españoles y correspondiendo además con ello a la continua de la cual hoy son depositarios.

Por último —dijo—, quiero asegurar, que siguiendo las huellas de cuantos por esta casa destilaron y nos precedieron, con recta intención y honradez, pondrá la nueva Corporación la mejor voluntad en el trabajo, para conseguir la más estrecha hermandad del vecindario, y con especial atención para aliviar las necesidades de los más humildes, que el mejor modo de liberar por España, será cumplir aquellos deberes que como ciudadanos, como soldados o autoridades exija cada momento.”

El nuevo Ayuntamiento de Tolosa ha quedado constituido en la siguiente forma:

Alcalde-presidente: Don Ramón Llanos Gorbun.  
Vocales: Don Eugenio Domeneche Larbañe, don Andrés Muñoz Chao, don Anibal Yáñez González, don Francisco Alústiz Inaurtegui, don Francisco Tuduri Sánchez, don Julián Arcebidé Tolosa, don Miguel Lumberras Arnedillo, don Severo Arizumendi, don José María Peñafía, don Carlos Echebarrena y don Enrique Ortas de Zárata.

Unidad (1942ko azaroaren 27a / 27 de noviembre de 1942).

1945eko udalbatza beste 12 lagunek osatzen zuten, haien artean alkateordea nabarmentzen zelarik, bere proiektzio politikoa eragatik, Enrique Ortiz de Zarate Guridi, hain zuzen ere: 1936an matxinatuek mobilizatutako soldatua, eta alkatea 1957 eta 1969 bitartean. Udaleko Idazkaria Miguel Urretavizcaya Zubeldia zen, zeinak Falangearen Tokiko buruzagitzan ere kargu bera zuen. Honek ere Gerra Zibilean matxinatuen alde borrokatu izan zuen. Baziren beste hainbat kudeatzaile gehiago ere, Francisco Alustiza Iñurategui edo Eugenio Domeneche, esaterako, zeinak kolpisten alde aritu ziren. Lehena, Zaintzapeko Askatasuneko Tokiko Batzordean udal gestora- ren ordezkaria ere izan zen 1943tik aurrera. Gipuzkoako gobernadore zibilak izendatzen zituen zuzenean kudeatzaile horiek guztiak. Honen arbitrariotasunak kargua betetzeko orduan gabezia bat edo beste eragin zituen behin baino gehiagotan. Izan ere, 1945eko urtarrilaren eta 1946ko otsailaren artean, hiru zuzendari bota zituzten haien postuetatik José López Uranga, Eugenio Domeneche Labarias, eta Olarceaga / Olariaga), eta haien ordezkari jarri zituzten Javier Santos Cuerva eta Casimiro Alustiza Aguirre (biak ala biak matxinatuen aldeko borrokalariak Gerra Zibilean).

El resto de la corporación municipal en 1945 la formaban doce personas, de los que destacó por su proyección política el teniente-alcalde, Enrique Ortiz de Zarate Guridi: soldado movilizado por los sublevados en 1936 y alcalde entre 1957 y 1969. La secretaria del Ayuntamiento la ostentaba Miguel Urretavizcaya Zubeldia, que a su vez ocupaba el mismo cargo en la Jefatura Local de Falange, y quien también había participado en la Guerra Civil bajo el mando sublevado. Varios gestores más, tales como Francisco Alustiza Iñurategui o Eugenio Domeneche, también lucharon en la contienda del lado golpista. El primero de ellos fue, además, el representante de la gestora municipal en la Junta Local de Libertad Vigilada a partir de 1943. Todos estos gestores eran nombrados directamente por el gobernador civil de Gipuzkoa, cuya arbitrariedad provocó en numerosas ocasiones una situación de precariedad en la ocupación del cargo. De hecho, entre enero de 1945 y febrero de 1946 cesaron en el puesto tres regidores (José López Uranga, Eugenio Domeneche Labarias, y Olarceaga / Olariaga), siendo sustituidos por Javier Santos Cuerva y Casimiro Alustiza Aguirre (ambos combatientes del bando sublevado durante la Guerra Civil).



Ramon Llanos Goiburua; Wenceslao Mayora Telleria eta Enrique Ortiz de Zarate. (Gudari)

Udalbatzaz gain, Tolosako garai hartako erakundeen organigrama udal epaitegiak (eskualdeko epaitegi izendatua 1945eko apirilaren 27an) eta Falangearen Udal Buruzagiek osatzen zuten, honen delegazioekin batera: Sindikatuen Udal Buruzagitza, Gizarte Laguntza, Informazioa eta Ikerketa, Gazteen Frontea eta Prentsa eta Propaganda. Erakunde falangista horiek guztiak Ortiz de Zarate familiaren eskutan egon ziren 1940ko hamarkada erdialdean, eta horrek gatazkak eragin zituen udalerriko falan-

Además de la corporación municipal, el organigrama institucional de Tolosa durante este período lo completaban el juzgado municipal (designado como juzgado comarcal el 27 de abril de 1945) y la Jefatura Local de Falange junto a sus delegaciones: la Jefatura Local Sindical, Auxilio Social, Información e Investigación, Frente de Juventudes, y Prensa y Propaganda. Todos estos organismos falangistas estuvieron en manos de la familia Ortiz de Zarate a mediados de la década de 1940, lo que acrecentó las tensiones



gisten eta karlisten artean, karguak betetzeko orduan. Azken horiek, Gipuzkoa osoan gertatu bezala, falangistekiko inplementazio handiagoa zuten, eta hori kargu publikoetan agerian geratu zen, eta horrek, arlo publikoan zein pribatuan ezadostasunak eragin zituen. Zentzu horretan, gogoratu beharra dago Tolosa hartzearen 1942ko abuztuko ospakizunean, gatazkak gertatu ziren kaleetan, Manuel Fal Conde iraindu karlistaren jarraitzaileen eta FET eta JONSen udal eta probintziako agintarien artean.

Esate baterako, hezkuntzari dagokionez, Berazubi heziketa-multzoa (1960an amaitua 1.860.000 pezetako orotariko kostu batekin) eta landa-eremuko eskola ugari eraikitzearekin ez zen arazoa gainditu. 1971ko uztailean alkateak zera adierazi zion Hezkuntza Ministerioko probintziako ordezkariari “Udal honek haur populazio osoa artatzeko behar diren orotariko ikastetxe nazional eta eskola-eraikinak eraikitzeko beharrezkoak diren lurrak ditu”<sup>154</sup>. Urtebete geroago, 1972ko ekainean, Santa Luzia auzoan *Irakaskuntza Hiria* eraikitzeko proiektu irrikatsua hasi zen. Orduan Udalak, Carlos Doussinague buru zela, 35.000 m<sup>2</sup> baino ez zituen 3.500 ikasle oinarritzeko irakaskuntzako bi unitatez, institutu misto batez, lanbide heziketako eskola batez eta kirol instalazio ezberdinez osatutako eremu batean sartzeko behar zituen 80.000 m<sup>2</sup> horietatik. Halaber, 1965eko urrian Tolosako Paper Eskola inauguratu zen Berazubin, sindikatuen eta Udalaren artean egindako lursail-truke baten ondoren, 14 milioi pezetako guztizko kostu batekin<sup>155</sup>.

### 3.2. Tolosa entre 1960 y 1975

El municipio de Tolosa, cabecera de la comarca de Tolosaldea, representaba en estos años el 44'9% de la población comarcal. Durante este período Tolosa siguió creciendo demográficamente, un fenómeno que estaba directamente relacionado con el desarrollo industrial, especialmente las factorías papeleras e industrias secundarias o dependientes de ésta. Como hemos visto durante los años 50, este aumento de la población creó problemas de abastecimiento de aguas, alcantarillado, falta de escuelas y sobre todo de viviendas.

Por ejemplo, en materia educativa, la edificación del complejo educativo de Berazubi (finalizado en 1960 y cuyo coste total fue de 1.860.000 pesetas) y de varias escuelas rurales no fue suficiente. En julio de 1971 el alcalde informaba al delegado provincial del Ministerio de Educación de “que este Ayuntamiento posee los terrenos necesarios para levantar los colegios nacionales y edificios escolares de toda clase que sean necesarios para atender a toda la población infantil”<sup>154</sup>. Un año después, en junio de 1972, comenzó el ansiado proyecto de edificación de la *Ciudad Docente* en el barrio de Santa Lucía, cuando el Ayuntamiento presidido por Carlos Doussinague contaba con tan sólo 35.000m<sup>2</sup> de los 80.000 que pretendía obtener para albergar a unos 3.500 alumnos repartidos en dos unidades de enseñanza básica, un instituto mixto, una escuela de formación profesional, e instalaciones deportivas. Asimismo, en octubre de 1965 se inauguró la Escuela de Papel de Tolosa en Berazubi, tras una permuta de fincas realizada entre sindicatos y el Consistorio, y con un coste total superior a los 14 millones de pesetas<sup>155</sup>.



Tolosako Paperaren Sindikatu-eskola. 1960 / Escuela Sindical del Papel de Tolosa. 1960. (Kutxa Fototekako Artxiboa; Paco Mari argazkilaria / Archivo Kutxa Fototeka; fotógrafo Paco Mari)

<sup>154</sup> “1971ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; z.g. / “Registros de salida 1971” AMT; Registro de salida; s.n.

<sup>155</sup> Gara, 2016ko maiatzak 28. / Gara, 28 de mayo de 2016.



Ekipamendu aldetiko urritasun hori gainditzen joan zen neurri handi ala txikiagoan 1960ko hamarkadan zehar kredituak eskatuz eta udal aurrekontu ezohikoak aplikatuta. Premia gehien zuen arazoa, ordea, etxebizitzena ez zen ebatzi. Modu horretan, herritar aktibo zenbait eskualdeko beste udalerrri batzuetara joan ziren bizitzera edo, are, baita urrunago zeuden udalerritara ere, esate baterako, Hernani, Andoain edo Beasainera, izan ere, udalerrri horietan bitarteko urriagoak zituzten langileentzat errazagoa zen etxebizitza bat eskuratzea<sup>156</sup>. Horrenbestez, besteak beste, San Blaseko Kooperatibak eraikitako 552 etxebizitzekin eta Obra Sindical Hogar delakoak Berazubiko ibarrean eraikitako 718 etxebizitzekin ez zen aski. Oria ibaiaren eskuinalde horretan populazioa 3.000 biztanletik gorakoa zen 1967. urterako<sup>157</sup>, eta etxebizitza berriak eraikitzeko nahiko lur izan arren, herritarren hazkundea eraikitako etxebizitza kopuruaren aurretik joan zen beti.

La escasez de equipamiento fue en mayor o menor medida solucionándose durante la década de 1960 a base de créditos y presupuestos municipales extraordinarios, salvo el más alarmante, el de la vivienda; de tal modo que parte de la población activa establecía su residencia en otros municipios de la comarca o incluso en municipios más alejados como Hernani, Andoain, o Beasain, donde el acceso a la vivienda para población obrera con escasos medios era más factible<sup>156</sup>. Resultaban por tanto insuficientes, entre otras, las 552 viviendas construidas por la Cooperativa de San Blas y las 718 de la Obra Sindical Hogar en la vega de Berazubi. En esta margen derecha del río Oria la población superaba los 3.000 habitantes para 1967<sup>157</sup>, y a pesar de contar con terreno suficiente para la construcción de nuevas viviendas, el incremento de población siempre fue por delante del número de viviendas construidas.

## TOLOSAKO BILAKAERA DEMOGRAFIKOA<sup>158</sup> EVOLUCIÓN DEMOGRÁFICA DE TOLOSA

1940	1950	1960	1970	1975
13.583	14.971	16.296	18.766	18.806

Migrazioaren fenomenoari dagokionez, 1975. urterako, Tolosan bizi ziren 18.806 pertsonen artean % 59,6 udalerrikoa bertakoa zen jatorriz, % 26 euskal lurraldetatik etorria zen eta % 14,4 Espainiako Estatukoa eta beste herrialde batzuetakoa zen. 1970. urtean hastapenean errealtate ekonomiko, sozial eta kulturalari so, bertako herritarren eta etorkin espainiarren artean distantzia edo banaketa bat nabari zitekeen. Arlo ekonomiko eta lanekoan, lan ez kualifikatuen % 50 baino gehiago Espainiatik etorritako etorkinek betetzen zituzten. Estatutik etorritako herritar horrek erakusten zuen analfabetismo-tasa handiena<sup>159</sup>, eta ikuspegi sozial eta kulturaletik so, soilik % 0,2k zekien euskaraz. Datu horiek argi bereizitako bi komunitate zeudela islatzen dute, eta diktadura frankistarekin sendotu egin zen errealtate hori. Halaber, migrazioaren faktorea alde batera utzita, sistema frankistak hauspotutako bereizketa sozialak zeharkako eragina zuen tokiko herritarrengan nahiz beste lurralde batzuetarako joanean. Lehenik eta behin eta, funtsean, generoari dagokionez, izan ere, diktaduraren amaierara arte emakumea lan-mundutik eta prestakuntza kualifikatutik alboratua izan zen. Eta bigarrenik klase sozialen desberdintza eta distantziari dagokionez, izan ere, kualifikazio urriagoko langile klasekoak eta nekazariak

Con respecto al fenómeno migratorio, para 1975, de los 18.806 residentes en Tolosa el 59,6% era originario del propio municipio, el 26% del resto del territorio vasco y el 14,4 procedían del Estado español y otros países. La realidad económica, social y cultural a principio de 1970 mostraba un distanciamiento o diferenciación entre la población autóctona y los inmigrantes españoles. En el plano económico-laboral, más del 50% de los trabajos no cualificados eran ejercidos por inmigrantes de origen español. Esta población procedente del Estado abarcaba la tasa más alta de analfabetismo<sup>159</sup>, y social y culturalmente, sólo el 0,2% conocía el euskera. Estos datos nos sitúan ante la existencia de dos comunidades netamente diferenciada, una realidad que fue afianzándose a lo largo de la dictadura franquista. Asimismo, independientemente del factor migratorio, la segregación social auspiciada por el sistema franquista afectaba de manera transversal tanto a la población nativa como a la llegada de otros territorios. Primero y fundamentalmente en cuestión de género, ya que hasta el final de la dictadura la mujer fue apartada del mundo laboral y de una formación cualificada. Y en segundo lugar con respecto a la desigualdad y el distanciamiento de las clases sociales, debido a que los hijos de aquellos

<sup>156</sup> "1960ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 704. zenbakia. / "Registros de salida 1960" AMT; Registro de salida; nº 704.

<sup>157</sup> "1967ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 778. zenbakia. / "Registros de salida 1967" AMT; Registro de salida; nº 778.

<sup>158</sup> EGAÑA, I.: *El franquismo en Euskal Herria. La solución final*. / "Estudio sociológico de la comarca de Tolosa" SIADECO. 1976.

<sup>159</sup> Tolosako Udalak Hezkuntza eta Zientzia ministerioko probintziako ordezkariari 1971ko uztailaren 16an igorritako ofizio baten arabera, eskolaratutako haurrak (6-14 urte bitarteko biztanleak) 4.110 ziren, eta adin-tarte horretan eskolaratu ez ziren haurrak, aldiz, 195. 2-6 urte bitarteko haurren kasuan, eskolaratu gabeko haurrak 730 ziren. (TUA; 1971ko irteera-erregistroak; z.g.). / Según un oficio enviado por el Ayuntamiento de Tolosa al delegado provincial del ministerio de Educación y Ciencia fechado el 16 de julio de 1971, la población infantil escolarizada (población comprendida entre los 6 y 14 años) se elevaba a 4.110 niños, mientras que la no escolarizada en esta misma franja de edad era de 195 niños. Con respecto a los niños de entre 2 y 6 años la cifra de no escolarizados era de 730 niños. (AMT; Registros de salida 1971; s.n.)



ziren biztanleen seme-alabak ziren beren gurasoen eskala sozial eta profesionala gainditzeko oztopo gehien aurkitzen zituztenak. Horrenbestez, beren gurasoek modu prekarioan burututako lanbideetan aritu behar izaten zuten. Guraso nekazari edo langile ez kualifikatuak zituzten seme-alaben % 10 baino ez ziren kualifikazio sozial eta profesional handiagoko postuetan aritzea lortzen zutenak<sup>160</sup>.

#### TOLOSAKO DATU ESTATISTIKOAK 1971rako<sup>161</sup>

**BIZTANLEAK:** 18.688

**UDALERRIAREN AZALERA:** 37 km<sup>2</sup>

**BIZTANLE-DENTSITATEA:** 505 biztanle km<sup>2</sup> bakoitzeko

**BIZTANLE-ENTITATE KOPURUA:** 10

**ETXEBIZITZA BARREIATU KOPURUA:** 263

**ETXEBIZITZA KOPURUA ERAIKIN MULTZOKATUETAN:** 263

**INDUSTRIALARI GARRANTZITSUAK:** 30

**UDAL FUNTZIONARIO KOPURUA:** 42 (1973. urtean)<sup>162</sup>

habitantes que pertenecían a la clase obrera menos cualificada y agricultores eran los que mayores obstáculos encontraban para superar la escala socio-profesional de sus padres, quedando por tanto relegados a ejercer los mismos oficios precarios que sus padres. Sólo el 10% de los hijos cuyos padres eran agricultores u obreros no cualificados accedían a puestos de una superior cualificación socio-profesional<sup>160</sup>.

#### DATOS ESTADÍSTICOS DE TOLOSA PARA 1971<sup>161</sup>

**NÚMERO DE HABITANTES:** 18.688

**SUPERFICIE DEL MUNICIPIO:** 37 km<sup>2</sup>

**DENSIDAD DE POBLACIÓN:** 505 habitantes por km<sup>2</sup>

**NÚMERO DE ENTIDADES DE POBLACIÓN:** 10

**NÚMERO DE VIVIENDAS DISEMINADAS:** 263

**NÚMERO DE VIVIENDAS EN EDIFICACIONES AGRUPADAS:** 263

**INDUSTRIALES RELEVANTES:** 30

**NÚMERO DE FUNCIONARIOS MUNICIPALES:** 42 (año 1973)<sup>162</sup>

#### ZERGADUN HANDIENAK HIRI ZERGAN (1968. urtea)<sup>163</sup>

##### MAYORES CONTRIBUYENTES POR TRIBUTACIÓN URBANA (Año 1968)

Marcial Zabaleta Artola  
José Tijero Modubar  
Tomás Uria Zabalo  
Avelino Irastorza Huarte  
Dionisio Garcés Gascón  
Juan Orbegozo Garayalde  
José María Laborde Werlinden  
Estanislao Lasa Camio



<sup>160</sup> "Estudio sociológico de la comarca de Tolosa". SIADECO. 1976.

<sup>161</sup> "1971ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 1113. zenbakia. / "Registros de salida 1971" AMT; Registro de salida; nº 1113.

<sup>162</sup> "1973ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 891. zenbakia. / "Registros de salida 1973" AMT; Registro de salida; nº 891.

<sup>163</sup> "1968ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 525. zenbakia. / "Registros de salida 1968" AMT; Registro de salida; nº 525.

Esparru instituzionalari helduz hertsiki, 1960ko hamarkadaren erdialdetik aurrera areagotuz joan zen pixkanaka udal korporazio ezberdinen legezketasunik eza, Euskal Herriko gainerako udalerrietan gertatzen zen moduan. Agian horregatik, Tolosako Udalak 1966ko ekainean Gipuzkoako Itun Ekonomikoa, 1937ko ekainaren 23ko Lege Dekretuz ezereztua, berreskuratzea aldarrikatzen zuen kanpaina bat abiatu zuen. Kanpaina horrekin bat egin zuten Gipuzkoako Udal gehienek, 1966ko<sup>164</sup> ekainaren 26ko udal akteetan jasotzen den moduan, eta baita Gipuzkoako Aldundiak ere. Haatik, eskaerek erantzun kaskar bat baino ez zuten lortu 1968ko ekainaren 6ko Dekretuarekin, 1937ko Lege Dekretuaren hitzaurrea aldatuta, bertan Bizkaia eta Gipuzkoako itun ekonomikoak ezabatzeko kolpisten erabakiaren zigor izaera adierazten zen<sup>165</sup>. Izan ere, diktaduraren oinarrirentzat euskal lurraldearen eskubide historiko horien aldarrikapena Estatuko *Oinarrizko Printzipioak* urratzen zituen elementu bat zen. Manuel Fraga Iribarne Informazio eta Turismo ministroaren arabera, 1966ko ekainaren 24an *Punto de vista* izeneko Televisión Españolako saio batean adierazi zuenez, Gipuzkoako forua pribilegio bat zen. Udal korporazioak adierazi zuenez, ordea, foru hura "Gipuzkoa Gaztelako Erreinura berariaz atxikitzearen ondorioz sortutako eskubidea"<sup>166</sup> zen, modu horretan, ministroaren adierazpenei uko eginez. Horrenbestez, ziurrenera, deszentralizatzeko eskaera hura ontzat eman zuen herritarren zati handi batek, izan ere, azpiegiturak hondatzearen eta tokiko nahiz probintziako erakundeek zituzten bitarteko urrien eragile zen erregimenaren funtzionamendua publikoki zalantzan jartzen zuen.

Baina Itun Ekonomikoaren auzia alde batera utzita, udalerriek diktaduraren bilakaerarekiko zuten mendekotasun ukaezinenaren, haren leialtasun erakustaldi etengabeen, askatasunen gabeziaren eta erregimenaren inguruko pertsonen aldetik bitarteko eta kargu publikoak alboratzearen ondorioz, tokiko instituzioen irudi publikoak gainbeheran jarraitu zuen, baita Tolosan ere. Testuinguru horretan lekutu behar dugu izaera subertsiboa zuten ekintzen indartzea, esate baterako, 1963. eta 1967. urteetan kolpisten banderen aurka izandako erasoak, nahiz Gerra Zibilean zehar gudan hildako matxinatuen oroimenean egindako monumentua (*Eroriei Monumentua* izenarekin ezagunagoa) suntsitzeko ekintza 1972an; baita udal musika bandak 1972. urte hartan bertan egindako plantoa, ez baitziren udal korporazioarekin irten *Corpus Christi* erlijio-ekintzetan. Horrek, "aipatu banda desegin eta deialdi berri baten oinarriak prestatzea" eragin zuen berehala<sup>167</sup>.

En el ámbito estrictamente institucional, desde mediados de la década de 1960 fue incrementándose paulatinamente la falta de legitimidad de las sucesivas corporaciones municipales, tal y como ocurría en el resto de municipios vascos. Quizá por ello, el Ayuntamiento de Tolosa impulsó en junio de 1966 una campaña que reivindicaba la recuperación del Concierto Económico de Gipuzkoa, derogado por el Decreto-Ley de 23 de junio de 1937. A esta campaña se adhirieron la mayor parte de los Ayuntamientos guipuzcoanos, tal y como se recogen en las actas municipales del 26 de junio de 1966,<sup>164</sup> y la Diputación de Gipuzkoa. Sin embargo, las demandas únicamente obtuvieron una exigua respuesta con el Decreto de 6 de junio de 1968, mediante la modificación del preámbulo del Decreto-ley de 1937, el cual expresaba el carácter punitivo de la decisión de los golpistas de eliminar los conciertos económicos de Bizkaia y Gipuzkoa<sup>165</sup>. Y es que para los pilares de la dictadura esta reivindicación de los derechos históricos del pueblo vasco era un elemento perturbador de los *Principios Fundamentales* del Estado. Mientras que para el ministro de Información y Turismo, Manuel Fraga Iribarne, según expresó en un espacio de Televisión Española titulado *Punto de vista* el 24 de junio de aquel año de 1966, el fuero de Gipuzkoa era un privilegio, la corporación municipal defendió que la naturaleza de dicho fuero era el "derecho constituido con motivo de la unión voluntaria de Guipúzcoa al Reino de Castilla"<sup>166</sup>, rechazando de esta forma las palabras del ministro. En consecuencia, esta demanda descentralizadora fue seguramente bien vista por una parte importante de la ciudadanía, ya que cuestionaba públicamente el funcionamiento del régimen, responsable del deterioro de las infraestructuras y de la escasez de medios de las entidades locales y provinciales.

Pero a pesar de la cuestión del Concierto Económico, la inexorable dependencia de los municipios con respecto al devenir de la dictadura, sus constantes muestras de fidelidad, la falta de libertades, y el acaparamiento de recursos y cargos públicos por parte de personas afines al régimen, siguieron deteriorando la imagen pública de las instituciones locales, también en Tolosa. En este contexto debemos ubicar el incremento de actos de carácter subversivo como el ataque a banderas golpistas en 1963 y en 1967, así como la destrucción en 1972 del monumento en memoria de los sublevados fallecidos en combate durante la Guerra Civil (más conocido como el *Monumento a los Caídos*); pero también el plante de la banda municipal de música aquel mismo año de 1972 al no acompañar a la corporación municipal a los actos religiosos del *Corpus Christi*, lo que motivó la disolución "ipso facto de la aludida banda y preparar las bases de la nueva convocatoria"<sup>167</sup>.

<sup>164</sup> "1966ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; z.g. / "Registros de salida 1966" AMT; Registro de salida; s.n.

<sup>165</sup> MONREAL ZIA, G. eta JIMENO ARANGUREN, R.: *El Concierto Económico: génesis y evolución histórica*. Iura Vasconiae, 6/2009, 647-708.

<sup>166</sup> "1966ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; z.g. / "Registros de salida 1966" AMT; Registro de salida; s.n.

<sup>167</sup> "1972ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 337. zenbakia. / "Registros de salida 1972" AMT; Registro de salida; nº 337.





Izaskunen ermitan kalte-ordaina. 1963 / Acto de desagravio en la ermita de Izaskun. 1963. (Kutxa Fototekako Artxiboa; Paco Mari argazkilaria / Archivo Kutxa Fototeka; fotógrafo Paco Mari)

1963ko abenduaren 8an, hogeita zazpi urtetan lehen aldiz, Espainiako ereserkia kendu egin zen Santa Maria elizan ospatutako mezaren *kontsagrazio* ekintzan zehar, bertaratuek erlijio-ekintza uzteko azalduetako mehatxuaren aurrean. Egun hartan bertan, aurrez beste zenbaitetan gertatu bezala, aktibista talde batek pintaketak egin zituen eta ETak sinatutako propaganda-orriak banatu zituen, eta arratsalde Izaskungo ermitatik 1936. urteko gerran matxinatuekin batera borrokatu ziren Tolosako erreketen konpainienak ziren bi bandera eta banderatxo bat ostu zituzten. Ekintza hura “atentatu” eta “profanaziozat”<sup>168</sup> hartu zen, eta hari erantzunez abuztuaren 16an Mugimenduaren Tokiko Buruzagitza falangistak eta Tolosako Udalak irain-ordain saio bat antolatu zuten. Saio haren buruan probintziako agintariak izan ziren eta ehunka borrokalari ohi bertaratu ziren. Ekitaldi hura agintari tolosarrek erregimena gorestekiko ekintza bat burutzeko baliatu zuten, hedabideetan oihartzun handia izan zuena. Goizez, manifestaldi bat abiatu zen San Francisco etorbidetik, FET eta JONS taldeen Zirkuluaren parean, San Maria parrokiara arte, udal bandaren, probintziatik etorritako gudari ohi eta gatibu ohien eta Soraluzezik etorritako *San Ignacio* bandaren laguntzarekin. Parrokian erlijio-ospakizun bat egin zen. Bertan, Espainiako ereserki nazionala entzuten zen bitartean bandera berriak bedeinkatu ondoren, San Miguel eta Oriamendi Tertzioetako amabitxiek erregimentu haiek antzinako ofizialei entregatu zizkieten. Ondoren, parrokian elkartu zirenak Izaskungo ermitarantz abiatu ziren. Bertan, berriz ere, “bandera nazional loriatsua goretsi eta omentzeko ekintza bat” garatu zen<sup>169</sup>. Bestalde, 1967ko uztailaren 9an Izaskungo ermita haren buruan zegoen Espainiako bandera erauzi egin zuten.

Antzeko jokabidea izan zuten Tolosako Udalak eta Mugimenduaren Tokiko Buruzagitza 1972ko apirilaren 1ean artefaktu bat leherrarazita *Eroriei Monumentua* partzialki suntsitu zutenean. Berehala, udal korporazioak, Carlos Doussinague buruan zela, ezohiko batzarra deitu zuen hilaren 4rako. Han eraso hura gogor arbuatu zuten eta organismo gorenei poliziako kide gehiago ekartzeko eskatu zitzaie, monumentua lehenbailehen berreraikitzeke eskatzeaz batera<sup>170</sup>. Eskaera horietara Mugimenduaren Tokiko Buruzagitza komunikatu publiko batean irain-ordainerako ekitaldi baten antolaketa gaineratu zuen “probintziako, tokiko eta herriko organo guztien partaidetza osoarekin masan” eta Espainiako bandera berehala berriro altxatu zedila eskatu zuen “dinamitatutako monumentuaren aurrien gainean (...) gure sentimendu abertzale aldaezinaren aldarri eta lekukotza modura”. Irain-ordainerako ekitaldi hura apirilaren 16an ospatu zen 1963an banderak lapurtu zirenean antolatu zeneren ospakizun eta diktadura-erregimenaren gorespen-maila berearekin. Halaber, 1972ko azaroaren 20an, Gipuzkoako Probintziako Buruzagitza “Jose Antonioren [Primo de Rivera] eta Erorien eguna

El 8 de diciembre de 1963, por primera vez en veintisiete años, se suprimió el himno de España durante el acto de la *consagración* de la misa celebrada en la iglesia de Santa María, ante la amenaza de los asistentes de abandonar el acto religioso. Ese mismo día, al igual que en jornadas anteriores, un grupo de activistas llevó a cabo pintadas y reparto de hojas propagandísticas firmadas por ETA, y a la tarde fueron robadas de la ermita de Izaskun dos banderas y un banderín pertenecientes a las compañías de requetés tolosanos que lucharon junto a los sublevados en la guerra del 36. El acto fue calificado de “atentado” y “profanación”<sup>168</sup>, y en respuesta el 16 de diciembre la falangista Jefatura Local de Movimiento y el Ayuntamiento de Tolosa organizaron una función de desagravio presidida por las autoridades provinciales y a la que acudieron cientos de excombatientes. Esta jornada fue aprovechada por los dirigentes tolosarras para llevar a cabo un acto de exaltación del régimen de gran repercusión mediática. A la mañana, una manifestación partió del paseo de San Francisco, frente al Círculo de FET y las JONS hasta la parroquia de Santa María, acompañado de la banda municipal, grupos de excombatientes y excautivos venidos de la provincia, y la banda *San Ignacio* procedente de Soraluze. En la parroquia se llevó a cabo una ceremonia religiosa en el que, tras ser bendecidas las nuevas banderas al tiempo que sonaba el himno nacional español, las madrinas de los Tercios de San Miguel y Oriamendi las entregaron a los antiguos oficiales de aquellos regimientos. Posteriormente, los congregados en la parroquia marcharon hacia la ermita de Izaskun, donde de nuevo se realizó “un acto de exaltación y homenaje a la gloriosa enseña nacional”<sup>169</sup>. Por su parte, el 9 de julio de 1967, fue arrancada la bandera de España que ondeaba en esa misma ermita de Izaskun.

Similar proceder adoptó el Ayuntamiento de Tolosa y la Jefatura Local de Movimiento ante la destrucción parcial del *Monumento a los Caídos* mediante la explosión de un artefacto el 1 de abril de 1972. Inmediatamente la corporación municipal presidida por Carlos Doussinague convocó un pleno extraordinario para el día 4 en el que se mostraba la más enérgica repulsa al ataque, se pedía a organismos superiores el aumento de efectivos policiales, y la inmediata reconstrucción del monumento<sup>170</sup>. A estas demandas, la Jefatura Local del Movimiento sumó en un comunicado público la organización de un acto de desagravio “con plena participación de todos los órganos provinciales, locales y pueblo en masa” y el izado urgente de una bandera de España “sobre las ruinas del monumento dinamitado (...) como airón y testimonio de nuestro inmovible sentimiento patriótico”. El solicitado acto de desagravio se llevó a cabo el 16 de abril con la misma celebridad y carga de exaltación del régimen dictatorial que el celebrado en 1963 con motivo del robo de las banderas. Asimismo, el 20 de noviembre de 1972, coincidiendo con las ceremonias programadas por la Jefatura Provincial

<sup>168</sup> *La Vanguardia*, 1963ko abenduak 10. / *La Vanguardia*, 10 de diciembre de 1963.

<sup>169</sup> *La Vanguardia*, 1963ko abenduak 17 / *ABC*, 1963ko abenduak 17. / *La Vanguardia*, 17 de diciembre de 1963 / *ABC*, 17 de diciembre de 1963.

<sup>170</sup> “1972ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; z.g. / “Registros de salida 1972” AMT; Registro de salida; s.n.



ospatzeko<sup>171</sup> programatutako ospakizunekin bat etorritz, monumentua berriro inauguratzeko ekitaldia ospatu zen gobernadore zibila eta probintziako nahiz tokiko gainerako agintariak bertan zirela. Saio hori bera errepikatu zen Ordizia eta Hernanin, izan ere, udalerri horietan ere halako monumentuetan erasoak izan ziren. Tolosako monumentuaren konponketak 300.398 pezetako kostua izan zuen Udalarentzat, Donostian finkatutako *Tomas Altuna e hijos* marmol-enpresak igorritako fakturaren arabera<sup>172</sup>.

de Gipuzkoa “para conmemorar el día de José Antonio [Primo de Rivera] y los Caídos<sup>171</sup>, se celebró la reinauguración del monumento con la presencia del gobernador civil y el resto de autoridades provinciales y locales, función que se repitió en los municipios de Ordizia y Hernani donde este tipo de monumentos también fueron atacados. La reparación del monumento de Tolosa costó a las arcas municipales 300.398 pesetas, según la factura remitida por la empresa de mármoles afincada en Donostia *Tomás Altuna e hijos*<sup>172</sup>.



Errikoen aldeko monumentuaren kontrako eraso. 1963 / Atentado contra el monumento a los caídos. 1963. (La Voz de España, 1972ko apirilaren 4 / La Voz de España, 4 de abril de 1972)

Legezketasunik ezari, 1970eko hamarkadan Estatu mailako inantza-krisi larri bat batu zitzaion, atzeraldi ekonomikoko testuiguru batean. Krisi haren ondorioz larriagotu egin zen baliabideei zegokienez udalerriek berez bizi zuten egoera kaskarra. Gainera, gastuak gero eta handiagoak ziren eta, horren ondorioz, Udalaren zorra areagotu egin zen. Haatik, Tolosak zuen zorra askoz lehenagokoa zen, 1940ko hamarkadatik baitzetorren, urteen poderioz endemiko bilakatu zelarik. Hirigintza, osasun, bizitegi eta eskola arloetan zegoen ekipamendu aldetiko urrutasunari aurre egiteko 1960ko hamarkadan egindako ahaleginak zorra pixkanaka area-

A la falta de legitimidad se unirá en la década de 1970 una grave crisis financiera a nivel Estatal en un contexto de recesión económica, el cual profundizó en la escasez de recursos de los municipios a la vez que crecían los gastos, lo que hizo aumentar la deuda de los Ayuntamientos. No obstante, el endeudamiento de Tolosa venía de mucho antes, de la década de 1940, convirtiéndose a lo largo de los años en algo endémico. El hacer frente a la escasez de equipamientos urbanos, sanitarios, habitacionales y escolares durante la década de 1960 supuso un progresivo aumento de la deuda mediante la solicitud de préstamos extraordinarios o crédi-

<sup>171</sup> La Vanguardia, 1972ko azaroak 2 / La Voz de España, 1972ko azaroak 21. / La Vanguardia 2 de noviembre de 1972 / La Voz de España, 21 de noviembre de 1972.

<sup>172</sup> “1973ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; 507. zenbakia. / “Registros de salida 1973” AMT; Registro de salida; nº 507.

gotzea ekarri zuen mailegu ezohikoak edo ondoren likidatu ezin izan ziren kredituak eskatu zirelako. 1960ko abuztuaren 24an Udalak osoko bilkuran banku-mailegu ezohiko bat eskatzea onartu zuen errekasto ezberdinetatik zegoen ura hartuz uren hornidura handitzeko obren kostuari aurre egin ahal izateko. Hilabete batzuk geroago, 1961eko otsailaren 5ean, eskatutako maileguarekin Berazubiko eskola-multzoa irakasleentzako sei etxebizitzekin eraikitzeko gastuak estali behar ziren, eta handik gutxira hirugarren mailegu bat eskatu zen landa-eremuko eskolen gaikuntza finantzatzeko. 1965eko azaroan sei hilabeteko denbora-luzapena eskatu zen Ur eta Elektrizitate Zerbitzuak udalaren esku gera zitezten, Ogasun ordezkariak ordutik aurrera alor horretan aurrekontu bereziak egin ahal izateko ezarritako betebeharrari erantzunez. Horiek denbora-tarte horretan eskatutako mailegu eta aurrekontu ezohikoen zenbait adibide baino ez dira, eta horietara 1950ekoak gaineratu beharko liriteke, artean likidatu gabe zeudenak. Errealitate horren ondorioz, urteetan zehar Udalak ezezko erantzunak ematen zituen kirol ekitaldiak, jaiak edo konferentziak diruz laguntzeko egiten zitzaion eskaeren aurrean, hitzez hitz “Udal Ogasunaren egoera kaskarra” argudiatuz<sup>173</sup>.

Alabaina, Tolosako ogasunaren egoera ahula izanik ere, diktadura osoan zehar bezala, baldibideen banaketa selektiboa izan zen nabarmen, eta erregimena goresteko edo herritarrak, batez ere, adin txikikoak, doktrinatzeko jardueretan ez zitzaion gastuari erreparatu. Dagoeneko aipatu dugu *Erorien Monumentua* berreraikitzeko kostua 300.398 pezetakoa izan zela, hots, Aldaba auzoan eskola-eraikin bat eraikitzeko aurrekontuan aurkeztutako 366.000 pezetako zenbatekoaren oso antzeko kopurua<sup>174</sup>. Gainera, 1964an Tolosak hainbat erakusketa finantzatu zituen eta diktadurak bere buruari aitortutako “25 urte Baketsuen” lorpena handitasunez ospatu zen. Horretarako, Udalaren ekimenetako bat lehen hezkuntzako haurren artean literatura-lehiaketa bat irekitzea izan zen. Lehiaketa hartako gaia, jakina, Francisco Franco buruzagiak ekarritako adiskidetasuna izan zen. Halaber, alkatea udal musika-bandako kideren bat langile modura zuten herriko fabrika guztiei ofizio bat igortzeaz arduratu zen bere kabuz, langile horiek beren lanpostuak utzi zitzaizela baimentzeko “Estatuko Buruzagi Jaun Gorenari” harrera egin ziezaieten 1964ko uztailaren 29an<sup>175</sup>. Modu berean, 1960an *Erorien Harana* inauguratu zenetik, Tolosako Udalak maiztasunez finantzatu zituen Tolosako eskola-haurrek “Gurutaldiko eroi eta martirrak” omentzeko eta preso politikoei ia esklabotza egoeran eraikitako monumentu-multzora egiten zituzten “instrukzio-bidaiaik”.

tos que posteriormente no pudieron ser liquidados. El 24 de agosto de 1960 el Ayuntamiento aprobó en sesión plenaria la solicitud de un préstamo bancario extraordinario para cubrir el coste de las obras de ampliación de abastecimiento de aguas, mediante la captación de aguas procedentes de varias regatas. Meses después, concretamente el 5 de febrero de 1961, el préstamo solicitado debía sufragar los gastos de la construcción del grupo escolar de Berazubi con seis viviendas para profesores, y poco después un tercero para financiar la habilitación de escuelas rurales. En noviembre de 1965 se pidió una prórroga de seis meses para llevar a cabo la municipalización de los Servicios de Agua y Electricidad, obligación fijada por el delegado de Hacienda para poder realizar a partir de entonces presupuestos especiales en esta materia. Estos son sólo algunos ejemplos de los préstamos y presupuestos extraordinarios solicitados durante este período, a los que habría que sumar aquellos que aún estaban sin liquidar de la década de 1950. Esta realidad motivó que durante el transcurso de los años el Ayuntamiento respondiera negativamente a decenas de solicitudes para la subvención de eventos deportivos, festivos, o conferencias, aludiendo literalmente al “precario estado de la Hacienda Municipal”<sup>173</sup>.

Ahora bien, a pesar de la situación de fragilidad de la hacienda tolosarra, al igual que durante toda la dictadura, la distribución de los recursos fue notoriamente selectiva, y en actividades relacionadas con la exaltación del régimen o el adoctrinamiento de la población, especialmente la menor de edad, no se escatimó en gastos. Ya se ha mencionado como el coste de la reconstrucción del *Monumento a los Caídos* ascendió a 300.398 pesetas, cifra muy próxima a las 366.000 pesetas presupuestadas para la construcción de un edificio escolar en el barrio de Aldaba<sup>174</sup>. Además, en 1964 Tolosa financió exposiciones y celebró solemnemente los “25 años de Paz” que la dictadura proclamaba haber propiciado, y para ello una de las iniciativas municipales fue abrir un concurso literario entre los niños de enseñanza primaria y media cuyo tema, evidentemente, fue la concordia que había traído el caudillo Francisco Franco. Asimismo, el alcalde se ocupó personalmente de enviar un oficio a todas las fábricas de la localidad en las que trabajaba algún miembro de la banda de música municipal para que permitieran a estos obreros ausentarse de sus puestos de trabajo con motivo de la recepción “de su Excelencia el Jefe del Estado” el 29 de julio de 1964<sup>175</sup>. De igual forma, desde la inauguración del *Valle de los Caídos* en 1960 el Ayuntamiento de Tolosa financió regularmente los “viajes de instrucción” que los escolares tolosarras realizaban a un conjunto monumental dedicado a homenajear “a los héroes y mártires de la Cruzada”, y construido por presos políticos en situación de semiesclavitud.

<sup>173</sup> TUA; 1960-1975 bitarteko irteera-erregistroa. / AMT; Registro de salida 1960-1975.

<sup>174</sup> “1960ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; 579. zenbakia. / “Registros de salida 1960” AMT; Registro de salida; nº 579.

<sup>175</sup> “1964ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; 1000. zenbakia. / “Registros de salida 1964” AMT; Registro de salida; nº 1000.





“25 años de paz” erakusketa Tolosan / Exposición “25 años de paz” en Tolosa. (TUA / AMT)

Udal ogasunaren egoerak ere badirudi ez zuela eraginik izan Guardia Zibilarentzat kuartel-etxe bat eraikitzeko proiektuan. 1961eko urtarrilaren orube bat laga zen doan, eta urte bereko iraillean Udalak 50.000 pezeta ordaindu zizkion instituzio armatu horri “udalerrri honi egokitu ahal zaion behin betiko kontribuzioaren harira”<sup>176</sup>. Haatik, udal korporazioa Tolosako postuko kapitainarengana zegozkion izapideak zer-nola garatzen ari ziren jakiteko sarritan zuzendu bazen ere (izan ere, tokiko ordezkariak, kuartel berriaren eraikuntza “oso interesgarritzat” zuten<sup>177</sup>), ez zuten inolako erantzunik jaso 1969. urtearen amaierara arte. Orduan Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiko Obra Buruzagitzak Udalarri gogorarazi zion 1961. urtean kuartel-etxea eraikitzeko laga ziren 1.425 metro karratu horiez gain, beste 372,22m<sup>2</sup> behar zituztela; beraz, Udalak, aho batez, Zuzendaritza Nagusi horri partzela gehigarriaren prezioa ordaintzea adostu zuen, hots, 411.642 pezeta<sup>178</sup>.

Tampoco pareció afectar la situación de la hacienda municipal en el proyecto de construcción de una casa-cuartel para la Guardia Civil. En enero de 1961 se cedió un solar de manera gratuita, y en septiembre de ese mismo año el Ayuntamiento abonó 50.000 pesetas a esta institución armada “a cuenta de la contribución definitiva que pueda corresponder a este municipio”<sup>176</sup>. Sin embargo, a pesar de que la corporación municipal se dirigió en repetidas ocasiones al capitán del puesto de Tolosa para conocer cómo iban desarrollándose los perceptivos trámites (ya que según los representantes locales la construcción del nuevo cuartel era considerada de “muchísimo interés”<sup>177</sup>), no obtuvieron respuesta alguna hasta finales de 1969. Entonces, la Jefatura de Obras de la Dirección General de la Guardia Civil recordó al Ayuntamiento que necesitaba de 372,22m<sup>2</sup> adicionales de los 1.425 que se le cedieron en 1961 para la construcción de la casa-cuartel; por lo que el Consistorio acordó por unanimidad ofrecer a dicha Dirección General el pago del precio de la parcela adicional, la cual ascendía a 411.642 pesetas<sup>178</sup>.

<sup>176</sup> “1961eko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; z.g. / “Registros de salida 1961” AMT; Registro de salida; s.n.

<sup>177</sup> Udak idazkariak 1964ko urriaren 23an Gipuzkoako Osasun Buruzagitzara igortzeko asmoz eratutako txosten baten arabera, Tolosan, une hartan, 21 guardia zibil eta 42 gizon elbarri zeuden herrian bizitzen (TUA: 1964ko irteera-erregistroa; 1380 zenbakia). / Según un informe emitido por el secretario municipal el 23 de octubre de 1964 para su remisión a la Jefatura de Sanidad de Gipuzkoa, Tolosa contaba en ese momento con 21 guardias civiles y 42 caballeros mutilados residentes en la localidad (AMT: Registros de salida 1964; nº 1380).

<sup>178</sup> “1969ko Udak Aktak”. TUA, Udak Aktak. / “Actas municipales 1969”. AMT, Actas municipales.

Alderdi horiek guztiak 1960. urtearen eta diktadorearen heriotza bitartean kudeatu zituzten bost udal korporazioak eta hiru alkatek. Horri dagokionez, eta aurretiko azalpen modura, adierazi behar da 1966. urtean jadanik Gipuzkoako Gobernu Zibila ohartarazten zuela herritarrek udal hauteskunde ezberdinen aurrean “axolagabetasuna eta interes gutxi” agertzen zutela “oro har”. Horren ondorio zuzena, herritarren partaidetza eskasa ez ezik, udal ordezkartzetan aritzeko prest ziren pertsonak lortzeko zailtasuna izan zen: “Horrenbestez, zaila da hautagaiak topatzea, zeintzuei, bestalde, ezin baitzaie arrakasta bermatu eta hauteskunde baten arriskua hartu baino nahiago dute atzera egitea, bide batez, logikoa dena dagokion propagandaz gain bere patrikatik dirua ipini behar badute. Eta laguntza ofiziosoa, apala bada ere, nabarmena da eta, agian, porrot segurua ekarri dezakeen gaitzespena eragin diezaike horrek. Egiaz, garrantzi gutxiago duten baina oposizio handi edo txikiagoa ordezkatzeko duten gehiago erakartzen dute hauteslea, bestalde, esan dugun moduan gauza hauen inguruan aparteko interesik erakusten ez duelarik, batez ez Mugimenduekin zentzu zabalean lotura txiki edo handiagoa izan dezakeen hautesle-multzoak kezka urria ageri du eta gauzak eginda ematea espero du. Aitzitik, oposizio mugitzen ari da”<sup>179</sup>.

1961eko otsailaren 5ean udal korporazio berri bat eratu zen 1960ko abenduan egindako hauteskundeen ondotik. Enrique Ortiz de Zarate Guridik jarraitu zuen Udalaren buruan eta, alkate-presidente funtzioen barruan ohikoa zen moduan, eraturako hiru batzordeetako presidente ere izan zen (Gobernu Orokorrekoa, Ogasun eta Aurrekontuetakoa, eta Obra eta Zerbitzuetakoa), eta baita Ur eta Elektrizitate Zerbitzuetako Administrazio Kontseiluko presidente, Ongintzako Udal Batzarrekoa, Lehen Hezkuntzako Udal Batzarrekoa eta Udal Liburutegiko Batzarrekoa ere. Enrique Ortiz de Zarate (aurreko orrialdeetan ikusi dugunez) funtsezko pertsona izan zen Tolosako organigrama frankistan ia kolpistek udalerrira konkistatu zutenetik. Horren ondorioz, Gipuzkoako Gobernu Zibila alkateari Meritu Zibilaren Aginduaren Enkomienda ematea sustatu zuen, azkenik 1961eko azaroan Espainiako diktadoreak onartu ziona. Emakida horrek zerkartzan ikur eta bereizgarriak entregatzeko, Udalbatzak aho batez 11.000 pezetako aurrekontu bat adostu zuen “Alkate Jaunari entregatzeko xedez, gastu eta zergetatik libre”<sup>180</sup>. Izan ere, Tolosako alkateak bere agintaldi luzean zehar (1957ko irailetik 1969ko abendura) sarritan erakutsi zuen erregimenarekiko leialtasun osoa. Adibide batera, berak proposatu zuen 1962ko ekainaren 13ko osoko bilkuran “Francisco Franco buruzagi garaitu gabe eta probidentzialarekiko atxikipen irrikatsu eta hauskaitza, horren-

Todas estas cuestiones fueron gestionadas entre 1960 y la muerte del dictador por cinco corporaciones municipales y tres alcaldes. A este respecto, y como aclaración previa, cabe señalar que en 1966 ya se advertía desde el Gobierno Civil de Gipuzkoa de “la indiferencia y el poco interés” que la población mostraba ante las sucesivas elecciones municipales “como tónica general”. Consecuencia directa de este hecho no fue sólo la escasa participación de la ciudadanía, sino incluso la dificultad de conseguir personas dispuestas a ejercer de representantes municipales: “Así pues, es difícil encontrar candidatos, a los que por otra parte no se les puede garantizar el éxito y que al correr el riesgo de una elección prefieren retraerse, lo que es lógico por otra parte si además de la propaganda consiguiente puede costarles dinero. Y la ayuda oficiosa, aunque sea discreta, es francamente perceptible y hasta tal vez les crea una impopularidad a veces nuncio seguro de fracaso. La realidad es que figuras de menos talla pero que representan una oposición más o menos discreta, arrastran más al elector que, por otra parte, ya hemos repetido no se interesa mucho por estas cosas, especialmente el núcleo que podemos reputar en un sentido amplio más o menos afecto al Movimiento que se preocupa poco y espera que éstas se den hechas. En cambio la oposición se mueve”<sup>179</sup>.

El 5 de febrero de 1961 se constituyó una nueva corporación municipal tras las elecciones celebradas en diciembre de 1960. Al frente de la corporación continuó Enrique Ortiz de Zarate Guridi, quien, además, como era habitual dentro de las funciones del alcalde-presidente, ocupó la presidencia de las tres comisiones constituidas (de Gobierno General, de Hacienda y Presupuesto, y de Obras y Servicios), del Consejo de Administración de los Servicios de Aguas y Electricidad, de la Junta Municipal de Beneficencia, de la Junta Municipal de Enseñanza Primaria, y de la Junta de la Biblioteca Municipal. Enrique Ortiz de Zarate fue (como hemos podido ver en páginas anteriores) un personaje esencial en el organigrama franquista de Tolosa prácticamente desde la conquista del municipio por parte de los golpistas, una cuestión que propició que desde el Gobierno Civil de Gipuzkoa se promoviera la concesión al alcalde de la Encomienda de la Orden del Mérito Civil, otorgada finalmente por el dictador español en noviembre de 1961. Para la entrega de los emblemas y distintivos que la concesión otorgaba, el pleno acordó por unanimidad un presupuesto de 11.000 pesetas “con el fin de entregarlas al Sr. Alcalde libres de gastos e impuestos”<sup>180</sup>. Y es que el alcalde tolosarra, había mostrado en multitud de ocasiones durante su largo mandato (entre septiembre de 1957 y diciembre de 1969) su fidelidad más absoluta al régimen. A modo de ejemplo, de él surge en el pleno del 13 de junio de 1962 la propuesta de “adhesión entusiasta e inquebrantable al invicto y providencial Caudillo Francisco

<sup>179</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1966. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, k. 3674/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1966”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1.

<sup>180</sup> “1961eko Udal Aktak”. TUA, Udal Aktak. / “Actas municipales 1961”. AMT, Actas municipales.



beste kostatu den eta inolaz ere galdu nahi ez dugun bakea berriz ere odoleztatzeko asmoa duten elementu etsai eta ezin adiskidetzuzkoek Munchen egindako bilkuran Aberriak jasandako eraso laido-garriaren aurkako kondena eta protesta luzatzearekin batera”<sup>181</sup>. Modu berean, 1966ko azaroko data horren urrunekoan, Enrique Ortiz de Zaratek Tolosak Jose Antonio Primo de Rivera izendatuko zen kale bat izateko nahia agertu zuen<sup>182</sup>.

Franco, juntamente con la condena y la protesta contra el ignominioso ataque del que ha sido objeto la Patria en la reunión de Múnich, celebrada por elementos enemigos e irreconciliables que pretenden ensangrentar nuevamente la paz que tanto sacrificio ha costado y que en modo alguno estamos dispuestos a perder”<sup>181</sup>. Del mismo modo, a la fecha tal lejana de noviembre de 1966, Enrique Ortiz de Zarate mostró su deseo de que Tolosa contara con una calle que se denominara José Antonio Primo de Rivera<sup>182</sup>.



Uzten zuen udalbatza.  
1967ko otsailaren 5. /  
Corporación saliente,  
5 de Febrero de 1967.  
(TUA / AMT)

1963ko azaroan udal hauteskondeak egin ziren berriz, hamabi zinegotzietako sei berritzeko, eta 1964ko otsailaren 2an Udal berria eratu zen. Haatik, Udal Batzarrak erakundeen ordezkartzaren herenari zegozkion hautapenak egun hartan bertan eraginik gabe uztea adostu zuen, abenduan geratu zirenak behin betikoz bertan behera Iruñeko Probintzia Auzitegiaren eskutik. Jazoera haren ondotik korporazioa, aldi batez, bi kide gutxiagorekin osatuta geratu zen (10 pertsonaz), Ignacio Limousin eta Jose Luis Fiderigo kargugabetu ondoren haien tokiak hutsik geratu zirelako. Azkenik, irailaren 18an ministerio Agindu batekin erakundeen herenari zegozkion

En noviembre de 1963 se vuelven a realizar elecciones municipales para renovar a seis de los doce concejales, y el 2 de febrero de 1964 se constituyó el nuevo Ayuntamiento. No obstante, la Junta Municipal acordó dejar sin efecto ese mismo día las elecciones correspondientes al tercio de representación de entidades, las cuales fueron definitivamente anuladas en el mes de diciembre por la Audiencia Provincial de Pamplona. Este hecho provocó que la corporación quedara temporalmente formada por dos miembros menos (por 10 personas) al no cubrirse los ceses de Ignacio Limousin y José Luis Fiderigo. Finalmente, el 18 de septiembre una Orden

<sup>181</sup> “1962ko Udal Aktak”. TUA, Udal Aktak. / “Actas municipales 1962”. AMT, Actas municipales.

<sup>182</sup> “1966ko Udal Aktak”. TUA, Udal Aktak. / “Actas municipales 1966”. AMT, Actas municipales.

hauteskunde osagarriak deitu ziren Tolosan. Horren ondotik, Jose Maria Arocena eta, berriz ere, Ignacio Limousin izendatu zituzten zinegotzi modura. Gainerakoan, Enrique Ortiz de Zaratek lehenengo alkateorde modura mantendu zuen Nicasio Amiano, bigarren alkateorde modura Narciso Telleria ipini zuen Jose Luis Fiderigo ordezkatzuz, eta Jose Maria Gorrochategui hirugarren alkateorde modura geratu zen<sup>183</sup>.

1967ko otsailean udal korporazio berria eratu zen 1966ko azaroko hauteskundeen ondotik. Hauteskundeen legean ezartzen zen moduan, hamabi zinegotzietatik sei berritu egin zituzten, kasu hartan inolako gorabeherarik gabe. German Gonzalez izango zen lehenengo alkateordea, Jesus Maria Azurza izango zen bigarren alkateordea eta Tomas Odriozola hirugarrena. Gainera, ordutik, laugarren bat sortu zen, Angel Maria Arsuagak bete zuena. Udal korporazio hau eratu zenean beste berritasun bat udal batzorde, batzat eta kontseilu berrien sorrera izan zen. Aurrez zeudenak mantenduz, Hirigintza Batzordea, Babes Zibileko Batzarra eta Fabrika Batzarra, eta Udal Osasun Kontseilua eratu ziren orduan. Gainera, Landa Gaietako Ordezkaritza eta Musika Akademia eta Banda ere eratu ziren<sup>184</sup>.

1969ko abenduan Enrique Ortiz de Zaratek dimisioa eman zuen, baina 1970eko ekainera arte ez zuen haren lekukoa hartu Carlos Doussinague Garinek, 1974ko otsailera bitartean alkatetzan mantendu zena. Gainerako alkateena bezalaxe, Carlos Doussinagueren izendapena Gobernazio Ministerioaren erabaki zuzena izan zen, Gipuzkoako Gobernu Zibilarekin bat etorritik, izan ere, izendapen horiek hauteskunde-sistema frankistatik kanpo geratzen ziren. 1928an jaioa, Carlos Doussinaguek ez zuen gerran parte hartu eta alkate modura izendatu aurretik ere ez zen inongo udal korporazioko edo beste tokiko instituzio bateko kide izan. Beraz, profil berria zen. Tokiko eremuan erregimenak politikari teknokraten eskutik politika ekonomikoaren egiturazko aldaketa bat eginez barnean nahiz kanpoan bere irudia aldatzeko zuen estrategia ordezkatzeko zuen industrialari hark. Carlos Doussinaguek bere aitarendandik (Pedro Doussinague Brunet) oinordetzan hartutako ehungintza fabrika zuzendu zuen, itxi zen arte. Beranduago, Dilti S.L. higiezin enpresako eta Suministros Industriales Jauregui S.A. sozietateko kontseilaria izan zen, bi enpresa horietan Juan Antonio Tolosa Iñurritia zinegotziarekin bat egin zuelarik. Carlos Doussinaguek zuzentzen zuen korporazio berriak hartu behar izan zuen lehenengo erabakietako bat udal funtzionarioen lantaldea eraberritzea izan zen, Gobernazio Ministerioak 1969ko abenduaren 19an, haiek jasotzeko ordainsariei buruz, emandako Dekretua betez<sup>185</sup>.

Una consecuencia directa al cambio de rumbo en la política municipal hacía la priorización del sector servicios fue el desplazamiento progresivo de las protestas ciudadanas desde las preocupaciones en materia ambiental y urbanísticas a las relacionadas con la incipiente desindustrialización. Un buen ejemplo de ello fue lo ocurrido en la sesión plenaria del 17 de septiembre de 1971, a la que acudieron decenas de vecinos en protesta por el cambio de usos urbanístico en la calle Larramendi. En concreto, aquel día el alcalde presentaba una moción por la que se proponía la modificación parcial del Plan General de 1954 con la intención de crear un acceso a la proyectada Ciudad Docente por la calle Larramendi, lo que afectaba directamente a las industrias asentadas en esta vía. Carlos Doussinague defendió el progreso que la Ciudad Docente traería para Tolosa, al tiempo que puntualizaba que la industria únicamente ocupaba en aquel momento 28 hectáreas de las 70 que reservaba la ordenanza municipal, y que la modificación propuesta en la moción tan sólo afectaría al 5% de la superficie total reservada a la industria. Sin embargo, la preocupación entre los vecinos congregados en el salón de plenos siguió latente y se trasladó a uno de los concejales, Alberto Lope Sainz, quien en su intervención pidió respeto para el sector industrial por varios motivos. Entre otros, “por los puestos de trabajo que mantiene y los que pudiera crear”, “porque la industria crea riqueza y en consecuencia bienestar” o “porque el propio municipio precisa de la industria como fuente que es de sus arcas, para afrontar los servicios de nuestra localidad mediante el presupuesto municipal”<sup>204</sup>. En definitiva, sólo a partir del declive industrial en la década de 1970 el uso residencial del suelo se impondrá al dedicado a la industria, y en consecuencia Tolosa vivirá una transformación estructural no exenta de conflicto, en un municipio caracterizado durante el Segundo Franquismo por una degradación urbana y ambiental de gran calado, pero con un índice de bienestar y ocupación laboral relativamente alto en comparación con la mayor parte de municipios del Estado español.

<sup>204</sup> *Ibidem.* / *Ibíd.*



## URAK EDO HONDAKINAK TOLOSAKO IBAIETAN EDO UBIDEETAN ISURTZEN DITUZTEN IBAIEN ZERRENDA (1964 URTEA)\* RELACIÓN DE INDUSTRIAS QUE VIERTEN SUS AGUAS O RESIDUOS EN LOS RIOS O REGATAS DE TOLOSA (AÑO 1964)\*

Jabea edo sozietatearen izena Propietario o razón social	Industria mota Tipo de industria	Kokapena Emplazamiento	Gutxi gorabehera isuritako kantitatea / Cantidades aproximadas de vertido	Hondakinak zein ibaira isurtzen diren / Río al que se vierten los residuos
Papelera Arzabalza S.A.	Papertegia / Fábrica de papel	Arzabalza auzoa / Barrio Arzabalza	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Papelera Española S.A.	Paper-orea / Fábrica de pasta de papel	Illaramendi (San Blas)	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Papelera Española S.A.	Papertegia / Fábrica de papel	Illaramendi (San Blas)	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
S.A.M.	Paperaren manipulazioa / Manipulación de papel	San Blas	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Luminia S.A.	Produktu kimikoak / Productos químicos	San Francisco 46	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Papelera La Tolosana S.A.	Paper-fabrika / Fábrica de papel	Comandante Checa 2-4	Ezezaguna / Se desconoce	Elduarain
Oriabe S.A.	Tailer grafikoak / Talleres gráficos	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Pedro Elosegui	Ordezkaritza / Representaciones	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Cayetano Moreno	Zapatagintza tailerra / Taller de zapatería	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Santos Iraola	Mekanika tailerra / Taller mecánico	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Gerardo Becker	Mekanika tailerra / Taller mecánico	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Jose María Anza	Edari-biltegia / Almacén de bebidas	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Manuel Ayerza Zabaleta	Kromatuen tailerra / Taller de cromados	Sacramento 2	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Nietos de A. Elosegui S.L.	Txapel-fabrika / Fábrica de boinas	Santa María 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Durosil S.A.	Losinen fabrika / Fábrica de losines	La Ribera s/n	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Forja y Tornillería Vascongada	Torlojuen fabrika / Fábrica de tornillos	Larramendi 5	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Talleres Olaberri	Iztukatutako paper fabrika / Fábrica de papel estucado	Larramendi 5	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Ruiz de Arcaute y Cia S.A.	Iztukatutako paper fabrika / Fábrica de papel estucado	Larramendi 5	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Juan Elola Lezo	Garajea eta koizpetatze gunea / Garaje y estación de engrase	Santa Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Ignacio Alberdi Arteché	Ezpartzu biltegiak / Almacenes de esparto	Santa Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Eugenio Vitoria	Tailer mekanikoa / Talleres mecánicos	Santas Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Garaje Uzturre	Garajea eta auto konponketa / Garaje y reparación de coches	Santa Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Talleres Emua	Tailer mekanikoa / Talleres mecánicos	Santa Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Ignacio Echeveste	Lekeda fabrika / Fábrica de colas	Santa Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Papelera La Guadalupe S.A.	Papertegia / Fábrica de Papel	Santa Lucía 4	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Laborde y Labayen S.L.	Arte grafikoen tailerrak / Talleres de artes gráficas	Emperador 41	Ezezaguna / Se desconoce	Oria
Papelera Amaro S.A.	Papertegia / Fábrica de papel	Usabal	Ezezaguna / Se desconoce	Araxes
Irazusta Vignau y Cia S.A.	Papertegia / Fábrica de papel	Txarama / Charama	Ezezaguna / Se desconoce	Araxes
Azaldegui y Amiano S.A.	Lima-fabrika / Fábrica de limas	Usabal	Ezezaguna / Se desconoce	Araxes


\*TUA; 1964ko Irteera-erregistroa / AMT: registro de salida de 1964.

**TOLOSAKO ENPRESEN SAILKAPENA BURUTZEN DUTEN JARDUEREN ARABERA (1973. URTEA)\***  
**CLASIFICACIÓN DE LAS EMPRESAS TOLOSARRAS POR EL TIPO DE ACTIVIDAD DESARROLLADA (AÑO 1973)\***

Jarduera mota Clase de actividad	Kokapena Emplazamiento	Jardueraren titularra Titular de lactividad	Jardueren sailkapena / Clasificación de la actividad
Propano-biltegia (bilt.) / Almacén (Alm.) de propano	Poligono 58	Cooperativa San Juan Bautista	Arriskutsua / Peligrosa
Lurrindegia / Droguería	Herreros, 44	M <sup>a</sup> Izaskun Amondarain	Arriskutsua / Peligrosa
Fuel-olio bilt. / Alm. fueloil	Km. 440, 970 N-1	Ignacio Echeveste Arias	Arriskutsua / Peligrosa
Harategi-urdaitegia / Carnicería-charcutería	Herreros, 9	Ascensio Aranzabal Astiazaran	Desorosoa / Molesta
Taberna / Bar	Arosteguieta, 8-10	Cándido Irastorza Huarte	Desorosoa / Molesta
Lehorreko garbiketa / Limpieza en seco	Herreros, 40	Minguel Mancisidor Tolosa	Desoroso-arriskutsua / Molesta-Peligrosa
Lurrindegia / Droguería	Siervas de Jesús, 2	Antonio Muñoa Usain	Arriskutsua / Peligrosa
Fuel-olio biltegia / Alm. fueloil	J. Arbol de Guernica, 8	Director Ambulatorio N.S. Izaskun	Arriskutsua / Peligrosa
Diskoteka / Discoteca	Siervas de Jesús 2-4	Javier López Fernández	Desorosoa / Molesta
Propano-biltegia / Alm. propano	B <sup>o</sup> San Blas	RVD. M. Sp. Hermanas Trinitarias	Arriskutsua / Peligrosa
Taberna-jatetxea / Bar-restaurante	Plaza Justicia, 4	José Azpeitia Aróstegui	Desorosoa / Molesta
Dantzalekua / Sala de fiestas	Lacurain s/n	José María Aguirre Ezquiaga	Desorosoa / Molesta
Erreleku-parrilla / Asador parrilla	Av. Pio XII, 4 bajo	José Epelde Arana	Desorosoa / Molesta
Arraindegia / Pescadería	P <sup>o</sup> Belate	Domingo Zubiaurre Beguiristain	Desorosoa / Molesta
Fuel-olio biltegia / Alm. Fueloil	Larramendi, 18	Pedro Arregui Arregui	Arriskutsua / Peligrosa
Pintura biltegia / Alm. pinturas	Lascurain, 16	Damián Alustiza	Desoroso-arriskutsua / Molesta-Peligrosa
Fuel-olio biltegia / Alm. Fueloil	Av. Fueros	Antonio Guirao C.N.T.	Arriskutsua / Peligrosa
Taberna-jatetxea / Bar-restaurante	Gorosabel, 20	Juan Tejería	Desorosoa / Molesta
Harategia / Carnicería	Conde de Ibar, 2	Cruz Behobide Ondarza	Desorosoa / Molesta
Haragi-erretegia / Asador de carnes	B <sup>o</sup> Aldaba, C <sup>o</sup> Venta zar	Joaquín Izaguirre Echeverria	Desorosoa / Molesta
Taberna / Bar	Bachiller Zaldivia, 1	Justo Arrigain Leizaran	Desorosoa / Molesta
Fuel-olio bilt. / Alm. fueloil	B <sup>o</sup> San Blas	Julio Recalde-Adm. Beneficiencia	Arriskutsua / Peligrosa
Lurrindegia / Droguería	Conde de Ibar, 4	Pilar Carrera Bergarechea	Arriskutsua / Peligrosa
Taberna / Bar	B <sup>o</sup> Bedayo-C <sup>a</sup> Escoleche	Calixto Beloqui	Desorosoa / Molesta
Taberna / Bar	Siervas de Jesús, 4	M <sup>a</sup> Izaskun Saizar Sarobe	Desorosoa / Molesta
Lurrindegia / Droguería	Pol. Restaurante Amaroz	Victoria Goenaga Uria	Arriskutsua / Peligrosa
Joko-aretoa / Sala de juegos recreativos	Herreros, 22	Gregorio Blanco	Desorosoa / Molesta
Taberna / Bar	Paseo Belate, 4	Jesús María Santesteban Ciganda	Desorosoa / Molesta
Joko-aretoa / Salón recreativo	Gorosabel, 14	Juan Morales Goicoechea	Desorosoa / Molesta
Lurrindegia / Droguería	Carlos VII, 1	Higinia Larrarte Rezola	Arriskutsua / Peligrosa
Ebanisteria	Bidebieta 13-A	Romualdo Calvo Gómez	Desorosoa / Molesta
Lurrindegia / Droguería	Herreros, 20	Marta Picabea Picabea	Arriskutsua / Peligrosa
Lurrindegia / Droguería	Mayor, 36	José Leunda Leunda	Arriskutsua / Peligrosa
Hornikuntza kimikoak / Suministros químicos	Belate, 5	Ignacio Goñi Auzmendi y otro	Arriskutsua / Peligrosa
Lurrindegia / Droguería	Av. Elosegui, 40	Concepción Zabalo Oyarzabal	Arriskutsua / Peligrosa
Taberna-jatetxea / Bar-restaurante	Pol. Restaurante Amaroz, 10	José María Arregui Galarraga	Desorosoa / Molesta
Taberna / Bar	Plza Gorriti, 3	Gabriel Vargas Villanueva	Desorosoa / Molesta
Taberna / Bar	Avd. Pio XII, 10	Vicente Goicoechea Echeverria	Desorosoa / Molesta



Jarduera mota Clase de actividad	Kokapena Emplazamiento	Jardueraren titularra Titular de lactividad	Jardueren sailkapena / Clasificación de la actividad
Gozotegia / Pastelería	Av. Elozegui, 37	Ignacio Aguinaga Gaztañaga	Desorosoa / Molesta
Fuel-olio biltegia / Alm. fueloil	Santa Lucía-C. Educación Básica	Aurelio Villa	Arriskutsua / Peligrosa
Harategia / Carnicería	Herreros, 9	José María y José Antonio Suquia	Desorosoa / Molesta
Harategia / Carnicería	Pol. Restaurante Amaroz, bajo 36	Asensio Aranzabal Asteasuarin	Desorosoa / Molesta
Harategia / Carnicería	Pol. Restaurante Amaroz, bajos 43-44	Cruz Behobide Ondarza	Desorosoa / Molesta
Harategi-urdaitegia / Carnicería-charcutería	Pol. Restaurante Amaroz, bajo 17	Ladislao Segurola Beitia	Desorosoa / Molesta
Pintura biltegia / Alm. pinturas	Belate, 5	Matilde Alustiza Garate	Arriskutsua / Peligrosa
Lurrindegia / Droguería	Po. Restaurante Amaroz, 10-11	Javier Carrera Goñi	Arriskutsua / Peligrosa
Fuel-olio biltegia / Alm. fueloil	Ladera Izaskun	Floren Monge Gutierrez	Arriskutsua / Peligrosa
Fuel-olio biltegia / Alm. fueloil	Sacramento	Julio Recalde-Adm. Beneficiencia	Arriskutsua / Peligrosa
Zerbitzugunea / Estación de servicio	P.K. 27,800 N-240	José Lecuona Urrutia	Arriskutsua / Peligrosa
Taberna / Bar	Belate, 4	Mª Izaskun Saizar Sarobe	Desorosoa / Molesta



\* Tolosako Udal Artxibategian gordetako dokumentuetan 186 eta 235 zenbakien artean erregistratutako enpresak bakarrik agertzen dira, beraz zerrenda ez da osoa (TUA, 1973ko irteera-erregistroa) / En la documentación custodiada en el Archivo Municipal de Tolosa sólo constan las empresas registradas entre los números 186 y 235, por lo que el listado es incompleto (AMT, Registro de salida 1973).

Oria ibaiaren kutsadurari buruzko dokumentua. / Documento relativo a la contaminación del río Oría. 1973. (TUA/AMT)

### 3.4. Euskal kulturaren susperraldia. Euskara berreskuratzeko borroka

Francisco Franco militar kolpistak zuzendutako diktaduraren ezaugarri behinena errepresioaren erabilera sistematikoa izan zen, modu gordin eta zurrunean aplikatu zena. Indarkeria hori maila guztietan erabili zen. Errepresio politikoa, ekonomikoa, lan arlokoa eta genero arlokoa. Baina, era berean, Espainiakoak ez ziren kultura- eta hizkuntza-identitateen aurka ere errepresioa bortitza izan zen, izan ere, kutsu faxista zuen Estatuaren ereduak modu orokorrean jazarri zituen erregimen berriaren kontrakotzat jotzen zituen adierazpen kultural eta kolektibo guztiak. Errepresio mota horrek ez zituen pertsona jakin batzuk hartzen miran, baizik eta gizartea bere osotasunean, “Mugimendu Nazional Loriauaren” eta “Espainia Berriaren” aurreko bizimoduak, agintarien jomuga ziren. Ildo horretatik, euskal kulturari eta euskarari egindako jazarpena nabarmendu behar da, ez soilik hezkuntza-sistemaren barnean, baita beste edozein espazio publikotan ere. Jazarpena horrenbestekoa izan zen, ezen 1938ko abuztuaren 12an Agindu bat igorri baitzen adieraziz “nulutzat ematen direla gaztelaniazko hizkuntza ofiziala ez den hizkuntza edo dialekto batean egiten ziren inskripzioak”. Baina gainera, alde aurretik, zehazki urte bereko maiatzaren 18an, beste Agindu batekin katolikoen “Santutegi Erromatarrean” jasotzen ez ziren ponte izenak debekatu egin ziren, hirurogei eguneko epea emanez “izen exotiko, bitxi eta aipatu xedapenean barneratutako gainerakoekin izendatuta zeudenen gurasoek edo jaiotza-inskripzioen interesdunen legezko ordezkariak” beren seme-alaben izenak aldatzeko<sup>205</sup>.

### 3.4. Reactivación de la cultura vasca. La lucha por la recuperación del euskera

Si algo caracterizó a la dictadura dirigida por el militar golpista Francisco Franco fue el uso sistemático de la represión y su aplicación de manera cruel e inflexible. Una violencia empleada a todos los niveles. Una represión política, económica, laboral y de género. Pero también hubo una represión implacable contra las identidades culturales y lingüísticas distintas a la española, debido a que el modelo de Estado de corte fascista persiguió de manera generalizada todas aquellas manifestaciones culturales y colectivas que consideraban contrarias al nuevo régimen. Este tipo de represión no señalaba con el dedo a personas concretas, sino que la sociedad en su conjunto, sus modos de vida anteriores al “Glorioso Movimiento Nacional” y a la “España Nueva”, se situaban en el punto de mira de los dirigentes. En este sentido, cabe destacar la persecución de la cultura vasca y el euskera, no sólo dentro del sistema educativo sino también en cualquier espacio público. El acoso llegó hasta tal punto que el 12 de agosto de 1938 se emitió una Orden en la que “se consideran nulas las inscripciones practicadas en idioma o dialecto distinto del idioma oficial castellano”. Pero además, anteriormente, en concreto el 18 de mayo de ese mismo año, otra Orden prohibió los nombres propios que no fueran los contenidos en el “Santoral Romano” de los católicos, dando un plazo de sesenta días para que “los padres o representantes legales de interesados en inscripciones de nacimientos, que estuviesen citados con la designación de nombres exóticos, extravagantes y demás comprendidos en la citada disposición” cambiaran el nombre a sus hijos<sup>205</sup>.



Oteiza. (TUA / AMT)

<sup>205</sup> GORROTXATEGI NIETO, M.: *Errepublikara garaiako izenak eta 1939ko dekretua*.

Haatik, 60ko hamarkadan nolabaiteko oparotasun ekonomikoa sartu zelarik, erregimenak arlo horretan zuen estrategia jazarpenezkoa baretu egin zen neurri batean. Modu berean, eskualde industrializatuetan biziraupeneko ekonomia batetik irten zirelarik, euskal gizarteko langileen sektore zenbaitzuek soberakin ekonomikoak batu ahal izan zituzten, kultur edo kirol ekime-nak finantzatzea ahalbidetuz, besteak beste, hainbat hamarkadaz loaldian egon ondotik, euskal kultura sustatuz eta lehendabiziko ikastolen eskutik euskara suspertuz. Horrenbestez, ikastetxe horiek ez ziren aurretiko plangintza baten ondorio izan, baizik eta heziketa ezberdin bat euskaraz emateko gurasoen eta, oro har, gizarte zibilarren borondatearen ondorio, diktaduraren lehendabiziko urteetan baino testuinguru mesedegarriagoan. Aitzindariak, nagusiki, euskal abertzaletasun tradizioaletik zetozen pertsona izan ziren, baina baita euskaltzaleak eta ezkertiarak ere, heziketa beste modu batean emateko aukera ikusten zutenak; horregatik, 1956an Parisen ospatutako Euskal Herriko Mundu Kongresuan (Eusko Jaurlaritzaren sorreraren hogeigarren urteurrena oroitaraziz) oihartzun handia izan zuen ikastolen sorrera sustatzeko premiari buruzko eztabaidak<sup>206</sup>.

Lehendabiziko ikastolak legez kanpoko nolabaiteko egoera batean formalizatu ziren, instituzio erlijiozko edo pribatuaren besean, Lehen Hezkuntzari buruzko 1945eko uztailaren 17ko Legea aintzatetsiz<sup>207</sup>, eskolaurreko adinean euskarazko irakaskuntza hedatzea ahalbidetu bai (izan ere, 9 urteko adinera arte ez zen derrigorrezkoa haurrak eskolaratzea), baina eskola-adinean irakaskuntza horren jarraipena zaildu egiten zuena. Inflexio-puntua 1965ean etorri zen *Eskola-kartilla* indarrean sartu zenean. Eskola baimendu gabekoetako ikasleek ezin zezaketen hura eskuratu eta hura izan gabe ezin zuten batxilergora jo. Halaber, funtsezkoa izan zen Gipuzkoako gobernadore zibilak 1968ko uztailaren igorritako Zirkularra. Bertan, euskara esplizituki aipatu gabe, baimendu gabeko zentro ugari zeudela aipatzen zen, eta ikasleentzat kartilla hori ez eskuratzeak zituen ondorioak ere aipatzen ziren. Beraz, xedapen ugari jasotzen ziren<sup>208</sup>:

*“1. Baimenik gabe zentro berriak irekitzeko debekua eta alkateentzat xedapen hori betearazteko betebeharra.*

*2. Baimenik gabeko zentroetako arduradunek ahalik eta epe laburrenean aurkeztu beharko dute legeztatzeako eskaera.*

*3. Informazio modura, Gobernadore Zibilak zentroen legez-tapena 1945eko azaroaren 15eko Ministerio Agindu bidez aratutako dagoela jakinarazten du”.*

No obstante, el aperturismo económico de los años 60 introdujo cierta relajación en la estrategia represora del régimen en esta materia. Del mismo modo, la salida de una economía de subsistencia en las comarcas industrializadas provocó que por primera vez ciertos sectores de trabajadores de la sociedad vasca contaran con excedentes económicos que les permitían financiar iniciativas culturales o deportivas, entre ellas, tras décadas de letargo involuntario, el fomento de la cultura vasca y el resurgimiento del euskera a través de las primeras ikastolas. Estos centros educativos, por tanto, no surgieron de una planificación previa, sino de la voluntad de padres u sociedad civil en general de educar de manera diferente y en euskera, en una coyuntura ciertamente más favorables que durante los primeros años de dictadura. Sus precursores fueron en su mayoría personas provenientes del nacionalismo vasco tradicional, pero también vascófilos y gentes de izquierdas que veían la oportunidad de educar en otro modelo; de ahí que en el Congreso Mundial Vasco celebrado en París en 1956 ( conmemorando el vigésimo aniversario de la creación del Gobierno Vasco), tuviera una gran repercusión el debate sobre la necesidad de fomentar la creación de ikastolas<sup>206</sup>.

Las primeras ikastolas se formalizaron en una situación de alegaldad, bajo el amparo de instituciones religiosas o privadas, teniendo en cuenta la Ley de 17 de julio de 1945 sobre Educación Primaria<sup>207</sup>, que permitía extender la enseñanza en euskera en edad preescolar, al no ser la escolarización obligatoria hasta los 9 años, pero que dificultaba su continuación en edad escolar. El punto de inflexión vino en 1965 con la entrada en vigor de la *Cartilla de Escolaridad*, a la cual no tenían acceso alumnos de escuelas no autorizadas y sin la que no podía accederse al bachillerato. Asimismo, un hecho clave fue la Circular del gobernador civil de Gipuzkoa de julio de 1968, en la que sin hacer referencia explícita al euskera advertía de la existencia de multitud de centros no autorizados, y de las implicaciones que para estos alumnos tenía el no acceso a la mencionada cartilla. En consecuencia, señalaba varias disposiciones<sup>208</sup>:

*“1. Prohibición de apertura de nuevos centros sin autorización y exigencia a los alcaldes del cumplimiento de esta disposición.*

*2. Los responsables de los centros no autorizados deberán presentar su petición de legalización en el plazo más breve.*

*3. A título de información el Gobernador Civil hace saber que la legalización de los centros está regulada por la O. M. de 15 de noviembre de 1945.”*

<sup>206</sup> IZA, I.: *El movimiento de las Ikastolas Un pueblo en marcha El modelo Ikastola 1960-2010*.

<sup>207</sup> EAO, 199. zenbakia; 1945eko uztailaren 18koa. / BOE; núm. 199; de 18 de julio de 1945.

<sup>208</sup> GARMENDIA LASA, M.C.: *Renacer y expansión del fenómeno ikastola. Añamendi Eusko Entziklopedia*. Bernardo Estornes Lasa Funtsa. / Fondo Bernardo Estornes Lasa.





Euskaltzaindiaren batzarra Arantzazun. 1968 / Congreso de Euskaltzaindia en Aranzazu. 1968. (Euskal Herria 1870-1970etik ateratako irudia. Ehun urte iruditan / Imagen extraída de Euskal Herria 1870-1970. Cien años en imágenes).

Zailtasun horiek, nagusiki, tokiko elizei esker gainditu ziren, izan ere, horiek zentroak legezatzeko ahalmen juridikoa zuten, zentro horiek parrokia-eskola bilakatu. Gobernadore zibilak aipatzen zuen Ministerio Aginduari zegokionez, eskola pribatuak irekitzeko espedienteen izapidetzea aipatzen zen esplizituki. Klausula horietan, maisuen ahalmen tekniko edo pedagogikoa ez ezik, zera eskatzen zen “parrokoaren ziurtagiri bat, portaera erlijiozko eta moralari buruzkoa: aurrekari politiko eta sozialei buruzko ziurtagiri bat, eta udal Agintaritzak igorritako portaera onari buruzko beste ziurtagiri bat, guztiak enpresari, zuzendari eta maisuei dagokionez, eta baita, pertsona juridikoen eta gidari lanetan arituko diren norbanakoen orientazioari dagokionez ere”<sup>209</sup>.

Egoera horretan, euskal eremuaren barruan Tolosa euskal kulturaren eta euskararen irakaskuntzaren hedapenari garai horietan bultzada handiena emango dieten udalerrri industrialen artean azalduko da. Jadanik XX. mendearen hastapenean, 1922ko urtarrilaren 9an, Felipe de Gorriti plazan Hego Euskal Herriko lehendabiziko ikastoletako bat sortu zen, besteak beste, Ramon La-

Estas dificultades fueron solventadas gracias fundamentalmente a las iglesias locales, ya que éstas tenían capacidad jurídica para legalizar los centros a través de su conversión en escuelas parroquiales. Con respecto a la Orden Ministerial a la que hacía mención el gobernador civil, ésta se refería explícitamente a la tramitación de expedientes para la apertura de escuelas privadas. En estas cláusulas se exigía, además de la capacitación técnica o pedagógica de los maestros, “un certificado del párroco acerca de la conducta religiosa y moral: certificado sobre los antecedentes político-sociales, y otro certificado de buena conducta expedido por la Autoridad municipal, todos respecto a los empresarios, directores y maestros, y también sobre la orientación de la personas jurídicas y de las personas individuales que las dirijan”<sup>209</sup>.

Ante esta tesitura, Tolosa aparece en la escena vasca como uno de los municipios industriales donde mayor impulso se le va a dar en estas fechas a la difusión de la cultura vasca y la enseñanza en euskera. Ya a comienzos del siglo XX, el 9 de enero de 1922, se creó en la plaza Felipe de Gorriti una de las primeras ikastolas de Hego Euskal Herria, de la mano de personajes como Ramón

<sup>209</sup> EAO; 347. zenbakia; 1945eko abenduaren 13koa. / BOE; núm. 347; de 13 de diciembre de 1945.



rrañaġa, Doroteo Ziaurritz, Jose Antonio Irazusta, Periko Laskibar, Isaac Lopez Mendizabal, Jose Maria Agirre "Lizardi" edo Antonio Maria Labayenen eskutik. 44 urte geroago euskara Tolosako Udalaren agendan zegoen, hori aldarrikatzen zuen herri mugimenduak hauspotuta. 1966ko urriaren 5eko osoko bilkuran, Jose Maria Gorrochategui zinegotziak "irakaskuntza euskaraz emango zuen" lehen hezkuntzako udal eskola bat sortzea proposatu zuen, eta korporazioko gainerako kideen babesa eskatu zuen probintziako ordezkari zeko Lehen Hezkuntzako Irakaskuntzako inspektore-buruari eskola ez ofizialetan lehen hezkuntza euskaraz emateko beharrezkoak ziren legezko baimenak eskatzeko. Korporazioko gainerako kideak beren adostasuna azaldu zuten eta egun hartan bertan ofizio bat igorri zitzaioan aipatu inspektore-buruari<sup>210</sup>.

Larrañaġa, Doroteo Ziaurritz, Jos  Antonio Irazusta, Periko Laskibar, Isaac L pez Mendizabal, Jos  Mar a Agirre "Lizardi" o Antonio Mar a Labayen. 44 a os despu s el euskera volv a a estar en la agenda del Ayuntamiento de Tolosa ante el movimiento popular que as  lo reclamaba. En sesi n plenaria del 5 de octubre de 1966, el concejal Jos  Mar a Gorrochategui propuso la creaci n de una escuela municipal primaria "donde la ense anza se imparta en vascuence", y ped a el apoyo del resto de la corporaci n para solicitar al inspector-jefe de Ense anza Primaria de la delegaci n provincial informaci n acerca de las autorizaciones legales necesarias para transmitir la ense anza primaria en euskera en escuelas no oficiales. El resto de la corporaci n estuvo de acuerdo y ese mismo d a fue enviado un oficio al mencionado inspector-jefe<sup>210</sup>.



Ikasle talde bat ikastolan, Zumalakarregi kalean zegoenean. 1936 / Un grupo de escolares de la ikastola cuando  sta se encontraba en la calle Zumalakarregi. 1936. (TUA / AMT).

<sup>210</sup> "1966ko Udal Aktak". TUA, Udal Aktak. / "1966ko irteera-erregistroak" TUA; Irteera-erregistroa; 1695. zenbakia. / "Actas municipales 1966". AMT, Actas municipales. / "Registros de salida 1966" AMT; Registro de salida; n  1695.

1967ko otsailaren 1ean Udaleko Gobernu Batzorde Nagusiak “irakaskuntza soilik euskaraz emango zuen” lehen hezkuntzako udal eskola bat irekitzea adostu zuen aho batez. Eskola, behin-behineko *okindegi* izenarekin ezagutzen zen udal eraikinaren lehen solairuan lekutuko zen, “nahiz eta ahal denean irakaskuntza aire zabalean emango den”. Halaber, finkatzen zen “eskola honetan soilik eskolaurreko adinean ziren haurrak onartzea, lehendabiziko ikasturte batean lau urtetik bost urtekoak eta bigarren ikasturte-tik aurrera bost eta sei urtekoak”<sup>211</sup>. Urte hartako uztailearen 28an, Alkatetzatik eskola gaitzeko obren berri eman zen<sup>212</sup>, eta abuztuan maistra baten zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa publiko bat deitu zen (aldeztu aurretik, otsailaren 1eko osoko bilkuran eskolako irakasleek “sexu femeninoa” izango zutela erabaki zen). Maistra hark, gainera, “irakaskuntza euskaraz emateko beharrezkoa zen gradua izan behar zuen”, Lehen Hezkuntzako Irakaskuntza maistra titulua izateko, Gizarte Zerbitzua beteta izateko, adin nagusi-koa izateko eta 45 urtetik beherako adina izateko baldintzak bete- z. Maistraren soldata “urtea hamabi hilabetetan banatuko zen, hilero 6.000 pezetako soldata batekin kontzeptu guztiengatik. Ordutegia goizeko bederatzik eta erdietatik hamabietara eta arratsaldeko hiruetatik seietera izango da”. Ikasleen matrikula doakoa zen, nahiz eta “Udalak hilean 125 pezeta jasoko dituen hilean ikasle bakoitzeko”<sup>213</sup>.

1967ko urriaren 5ean Tolosako Udalak prentsaurrekoa deitu zuen, eskola berriaren irekiera jendarteari ezagutarazteko, eta sei egun beranduago Hezkuntza Nazionalako Ministerioaren Lehen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren baimena eskatu zen formalki ikastetxea ofizialki irekitzeko, behin probintziako ordezkari- zako inspektore-buruaren aldetik baimena jasota. Hilabete hartan bertan jarri zen martxan Tolosako *Euskal Udal Eskola*, Milagros Ugalde Zabala izan zelarik bertako lehen maistra. Haren kontratua urtez urte berritu zen, eta baldintzak hobetuz joan ziren, izan ere, 1967. urterako hamalau hilabetetan banatutako soldata jasotzen zuen, bakoitzean 7.000 pezeta jasoz<sup>214</sup>. Abian jarri eta hurrengo urtean, hain justu, 1968ko urriaren 2an, eskolak 5.000 pezetako diru-laguntza jaso zuen Donostiako Udal Aurrezki Kutxaren aldetik. Udalak ofizios erantzun zion lankidetzaren horren eskerrak eman- ez<sup>215</sup>. Haatik, gobernadore zibila 1968ko uztailean igorritako zirkularrean eskolaren legezko egoera zalantzan ipintzen zuen. Horren ondorioz, ordutik eta hurrengo urteetan, funtzionatzen jarraitu zuen arrian, eskolak ez zuen Lehen Irakaskuntzako Zuzen- daritza Nagusiaren behin betiko baimenik izan.

El 1 de febrero de 1967 la Comisión de Gobierno General del Ayuntamiento acordó por unanimidad proceder a la apertura de una escuela municipal primaria “donde la enseñanza se imparta exclusivamente en vascuence”, de forma provisional en el primer piso del edificio municipal conocido como con el nombre de *panadería*, “si bien siempre que sea posible la enseñanza se impartirá al aire libre”. Asimismo, se fijaba “admitir en esta escuela tan sólo a los niños en edad parvular, en un primer curso los de cuatro a cinco años y a partir del segundo curso a los de cinco y seis años”<sup>211</sup>. El 28 de julio de aquel mismo año, desde Alcaldía se informaba de las obras de habilitación de la escuela<sup>212</sup>, y en el mes de agosto se convocaba un concurso público para contratar los servicios de una maestra (previamente, en la sesión plenaria del 1 de febrero se había fijado que el profesorado de la escuela sería del “sexo femenino”), la cual debía contar, además de con “el grado necesario para impartir la enseñanza en vascuence”, con el título de maestra de Enseñanza Primaria, tener cumplido el Servicio Social, ser mayor de edad, y contar con menos de 45 años. El sueldo de esta maestra sería de “doce mensualidades de 6.000 pesetas al año por todos los conceptos. El horario quedará establecido de nueve y media a doce, y de tres a seis de la tarde.” La matrícula de los alumnos era gratuita, aunque “el Ayuntamiento percibirá 125 pesetas mensuales por cada alumno”<sup>213</sup>.

El 5 de octubre de 1967 el Ayuntamiento de Tolosa convocó una rueda de prensa para poner en conocimiento de la ciudadanía la próxima apertura de la escuela, y seis días más tarde se pidió formalmente autorización al director general de Enseñanza Primaria del Ministerio de Educación Nacional para la apertura oficial del centro educativo, una vez recibida la autorización por parte del inspector-jefe de la delegación provincial. Aquel mismo mes de octubre comenzó a funcionar la *Escuela Municipal Vasca* de Tolosa, cuya primera maestra fue Milagros Ugalde Zabala. Su contrato fue renovándose anualmente, y mejorando en sus condiciones ya que para 1967 percibía catorce mensualidades de 7.000 pesetas cada una<sup>214</sup>. Al año siguiente de ponerse en marcha, concretamente el 2 de octubre de 1968, la escuela fue subvencionada con 5.000 pesetas por parte de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, a lo que el Ayuntamiento contestó mediante oficio agradeciendo dicha colaboración<sup>215</sup>. Sin embargo, la Circular del gobernador civil de julio de 1968 cuestionaba la situación legal de la escuela, lo que propició que a partir de entonces y en años sucesivos, a pesar de que siguiera funcionando, no contará con la autorización definitiva de la Dirección General de Enseñanza Primaria.

<sup>211</sup> “1967ko Udal Aktak”. TUA, Udal Aktak. / “Actas municipales 1967”. AMT, Actas municipales.

<sup>212</sup> “1967ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; 881. zenbakia / “Registros de salida 1967” AMT; Registro de salida; nº 881.

<sup>213</sup> “1967ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; 936/TUA: 1967ko aktak / “Registros de salida 1967” AMT; Registro de salida; nº 936/AMT: Actas 1967.

<sup>214</sup> “1969ko irteera-erregistroak” TUA; Irteera-erregistroa; z.g. / “Registros de salida 1969” AMT; Registro de salida; s.n.

<sup>215</sup> “1968ko Udal Aktak”. TUA, Udal Aktak. / “Actas municipales 1968”. AMT, Actas municipales.





Sakramentínoen eraikina, Laskurain ikastola izango dena 1972tik aurrera / Edificio de los Sacramentinos destinado a la ikastola Laskurain a partir de 1972. (TUA / AMT).

Bestalde, 1967an Laskurain ikastola birsortu zen klandestinotasunean eta, nagusiki, hiru pertsonen ekinari esker: Juan Garmendia Larrañaga, Manolo Ugarte eta Bibiano Larramendi Larrañaga. Juan Garmendia Eusko Ikaskuntzako bazkide zen 1956. urtetik, eta garrantzi handiko ikerketa etnografikoak egin zituen. Artikulu ugari argitaratu zituen aldizkari ezberdinetan, esate baterako, *Anuario de Eusko Folklore* edo *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* izenekoetan. Gainera, liburu monografikoak ere argitaratu zituen, besteak beste, *Monografía Histórica de Tolosa* 1969an, Federico Zabala Alzibarrekin batera, *Euskal Eusko-langitza* edo *Tolosa zahar-berriak*. 1998an Tolosako herriko seme kutun izendatu zuten. Manolo Ugarte pintorea izan zen eta 1960. urtetik aurrera erakusketa ugari egin zituen Tolosan. 1956an Tolosako sorreraren VII. mendeurrenaren ospakizuna antolatzeaz arduratu zen Batzordean parte hartu zuen eta 1958-1964 bitartean Radio Tolosa parroikia-irratsaioko euskarazko sekzioko arduraduna izan zen. Bestalde,

Por otro lado, en 1967 renació la ikastola Laskurain en la clandestinidad y gracias principalmente a tres personas: Juan Garmendia Larrañaga, Manolo Ugarte y Bibiano Larramendi Larrañaga. Juan Garmendia, socio de Eusko Ikaskuntza desde 1956, realizó estudios etnográficos de gran relevancia. Publicó numerosos artículos en revistas como *Anuario de Eusko Folklore* o *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, y libros monográficos como *Monografía Histórica de Tolosa* en 1969 junto a Federico Zabala Alzibar, *Euskal Eusko-langitza*, o *Tolosa zahar-berriak*. En 1998 fue nombrado hijo predilecto de la villa de Tolosa. Manolo Ugarte fue pintor y a partir de 1960 el autor de varias exposiciones en Tolosa. En 1956 formó parte de la Comisión encargada de organizar la celebración del VII centenario de la fundación de Tolosa, y entre 1958 y 1964 fue el responsable de la sección en euskera de la emisora parroquial Radio Tolosa. Por su parte, Bibiano Larramendi era un doctor en medicina que en la inmediata posguerra había

Bibiano Larramendi medikuntzan doktore izan zen eta gerraostean heriotza-zigorra kondenatu zuten berehala gerra-kontseiluan Euskal Ejertzitoko IV. Dibisioan parte hartu zuelako. Espetxe ezberdinetatik igaro eta zigorra kendu zitzaizolarik, baldintzapeko askatasunean irten zen 1943an. Haatik, 1946an atxilotu egin zuten eta Ondarretako espetxera eraman zuten, legez kanpoko propagandako balizko delitu bat leporatuta. 1970eko hamarkadan *Txinparta* elkarteko presidente izan zen<sup>216</sup>.

Egoera legezatzeko, Laskurain Ikastola eskola partikular modura agertu zen ofizialki erregistratuta, *Lizardi Kultur Elkarteari* lotuta, haren itxiera ekiditeko asmoz. 1968an eskolaurreko zentrorako baimena onartu zitzaion. 1972an urtean Sakramentinoen eraikiner mugitu zen arte, Laskurain ikastola Zumalakarregi kalean lekutzen zen. 1976. urtera arte ikastolaren titulartasuna Eburne Ormazabal-en izenean egon zen, urte hartan bertan *Laskurain Ikastolako Ikasleen Elkarte*ko *Kooperatiba Elkartearen* eskuetan geratu zelarik<sup>217</sup>.

1976. urterako Tolosan euskaraz hitz egin edo ulertzen zuten biztanleak ez ziren biztanleria osoaren % 50era iristen. Haatik, datu horiek biztanleen jatorriaren arabera bereizten baditugu, Tolosan jaiotako pertsonen artean % 50 baino gehiagok euskaraz hitz egiten zuela eta % 70 baino gehiagok ulertu egiten zuela ikusiko dugu. Bestalde, Espainiako Estatutik etorritako biztanleen % 47,6ak ezagutzarik eza osoa zuen euskal hizkuntzarekiko<sup>218</sup>.

sidu condenado a pena de muerte en consejo de guerra por haber formado parte de la IV División del Ejército Vasco. Tras pasar por varios centros penitenciarios y serle conmutada la pena, salió en libertad condicional en 1943. Sin embargo, en 1946 fue detenido y encarcelado en la prisión de Ondarreta por un supuesto delito de propaganda ilegal. En la década de 1970 fue presidente de la sociedad *Txinparta*<sup>216</sup>.

Para legalizar su situación la ikastola Laskurain apareció registrada oficialmente como una escuela particular, ligada a la *Asociación Cultural Lizardi*, con el propósito de evitar su cierre. En 1968 se le concedió permiso como centro preescolar. Hasta que en 1972 se trasladó al edificio de los Sacramentinos, la ikastola Laskurain se localizaba en la calle Zumalakarregi. Hasta 1976 la titularidad de la ikastola estuvo a nombre de Eburne Ormazabal, pasando en ese mismo año a manos de la *Sociedad Cooperativa Asociación de Alumnos de la Ikastola Laskurain*<sup>217</sup>.

Para 1976 los residentes que conocían y/o entendían el euskera en el municipio tolosarra no llegaban al 50% del total de la población. Si bien, si dividimos estos datos por el lugar de origen de los residentes, vemos como de las personas nacidas en Tolosa más del 60% conocían el euskera y más del 70% lo entendían. Por su parte, el 47,6% de los residentes originarios del Estado español desconocía por completo la lengua vasca<sup>218</sup>.

## EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILA<sup>219</sup>

### GRADO DE CONOCIMIENTO DE EUSKERA

	TOLOSA	Tolosaldeako eskualdeko gainerakoak Resto de la comarca de Tolosaldea
Hitz egiten dute / Conocen	7.396 (% 43,8)	16.089 (% 79,3)
Ulertzen dute / Entienden	714 (% 4,2)	375 (% 1,8)
Ez dute ezagutzen / Desconocen	4.734 (% 28)	3.601 (% 17,8)
Zehaztu gabe / Indeterminados	4.052 (% 24)	215 (% 1,1)
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>16.896 (% 100)</b>	<b>20.280 (% 100)</b>

## EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILA JATORRIAREN ARABERA<sup>220</sup>

### GRADO DE CONOCIMIENTO DE EUSKERA POR LUGAR DE ORIGEN

	Hitz egiten du % Conoce %	Ulertzen du % Entiende %	Ez du ezagutzen % Desconoce %	Zehaztu gabe % Indeterminados %
Tolosa	61,4	75,3	36,6	68,4
Tolosaldeako eskualdea Comarca de Tolosaldea	19,8	7,8	2	5,1
Gipuzkoako gainerakoa Resto de Gipuzkoa	13,1	10,1	4,1	9,7
Hego Euskal Herriko gainerakoa Resto de Hego Euskal Herria	5,3	4,1	8,6	10,8
Espainiako Estatua Estado español	0,2	2,4	47,6	4,5
Atzerria / Extranjero	0,2	0,3	1,1	1,5
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>43,8</b>	<b>4,2</b>	<b>28</b>	<b>24</b>

<sup>216</sup> TELLERIA TAPIAO, M.: *Tolosan egin dugun tolosarrok*.

<sup>217</sup> GARMENDIA LARRAÑAGA, J.: *Laskurain Ikastola*. Tolosa. Auñamendi Eusko Entziklopedia. Bernardo Estornes Lasa Funtza. / Fondo Bernardo Estornes Lasa.

<sup>218</sup> "Estudio sociológico de la comarca de Tolosa" SIADECO. 1976.

<sup>219</sup> *Ibidem.* / *Ibíd.*

<sup>220</sup> *Ibidem.* / *Ibíd.*



### 3.5. Lan arloko gatazkak

Gipuzkoaren enplegu-ahalmenean eragina izan zuten egonkortze-neurrien ondorioz sortutako industria-krisitik eratorritako gorabeherak 1960. urtetik aurrera. 1959ko uztailean 131.409 langile zeuden afiliatuta Aurreikuspen Institutu Nazionalean, urtebete beranduago, ordea, (1960ko ekainaren 30ean) kopuru hori 120.238 afiliatura jaitsi zen. Bestela esanda, enpleguaren batez besteko ahalmena 1960an % 9,4 baxuagoa izan zen 1959. urtean baino. Haatik, Gipuzkoako industria-sektoreak, langabeziari dagokionez, askoz ere balio baxuagoak erakutsi zituen 1960. urtean 1959. urtearekin alderatuz. Hala, 1959an, ofizialki, 3.500 langabetu zenbatu ziren, eta 1960. urtean 1.069 “ekoizle ez aktiboren” langabezia ofiziala zenbatu zen. Jaitsiera hori atzerirako emigrazioa areagotzearen ondorio ere izan zen. Zenbaki ofizialei begira, 1.658 gizon eta 71 emakume atzeriratu ziren 1960an; 788 Frantziako Estatura, 902 Mendebaldeko Alemaniara, 32 Australiara eta 7 Hego Amerikako herrialdeetara<sup>221</sup>.

Edozein kasutan, Gipuzkoak industrian okupatutako soldatapekoen artean zifra handienak erakusten zituen 1960an, Bartzelona eta Bizkaiaren atzetik, eta Madrilen pare. 1961. urterako Gipuzkoako populazio aktiboaren (118.198 biztanle) % 58,7 industriaren sektorean zegoen enplegatuta; eta 1970ean, papergintzako industriaren gainbehera ikusten zelarik, Tolosaldeako eskualdean bigarren mailako sektoreko populazio aktiboa populazio aktibo osoaren % 64koa zen<sup>222</sup>. Haatik, 1960. urtearen erdialdetik aurrera papergintzako industria egonkortu eta 1970eko hamarkadan krisialdia egon zela aipatzen badugu ere, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak 1960ko memorian krisi hitza erabiltzen zuen azken urte hartarako papergintzako industriaren eta harekin lotutako manipulatu eta arte grafikoen egoera zehazteko. Halere, txosten horretan aipatzen zenez, 1960. urtean hobekuntza apal bat nabari zen 1959. urtearekin alderatuz, “krisiaren aurretiko mailara iritsi gabe, eta betiere, prezio baxuen joera baten barruan”<sup>223</sup>.

### 3.5. Los conflictos en el ámbito laboral

La capacidad de empleo de Gipuzkoa se vio afectada a partir de 1960 por las vicisitudes derivadas de la crisis industrial provocada por las medidas de estabilización. Si en julio de 1959 había 131.409 trabajadores afiliados al Instituto Nacional de Previsión, un año más tarde (a 30 de junio de 1960) el número de afiliados había descendido a 120.238. Dicho de otra forma, la capacidad media de empleo en 1960 fue inferior en un 9,4 por 100 a la del año de 1959. No obstante, el sector industrial guipuzcoano en paro tuvo valores notablemente más bajos en 1960 que en 1959. Mientras que en 1959 se llegaron a contar oficialmente hasta 3.500 parados, en el año 1960 se dio un paro oficial de 1.069 “productores inactivos”. Este descenso se debió también al aumento de la emigración al extranjero. Las cifras oficiales cuantificaron en 1.658 hombres y 71 mujeres las que partieron al extranjero en 1960, 788 al Estado francés, 902 a Alemania Occidental, 32 a Australia y 7 a países de Sudamérica<sup>221</sup>.

En cualquier caso, Gipuzkoa, después de la de Barcelona y Bizkaia, y al mismo nivel que Madrid, ofrecía en 1960 las cifras más altas de asalariados con ocupación en la industria. Para 1961 el 58,7% de la población activa guipuzcoana (118.198 habitantes) estaba empleada en el sector industrial; y en 1970, cuando el declive de la industria papelera era visible, en la comarca de Tolosaldea la población activa en el sector secundario suponía aún el 64% del total<sup>222</sup>. No obstante, a pesar de que hablamos de estancamiento de la industria papelera a partir de mediados de 1960 y de crisis en la década de 1970, el Gobierno Civil de Gipuzkoa en la memoria de 1960 utilizaba el término crisis para definir la situación de la industria papelera y las conexas de manipulados y artes gráficas para este último año. Si bien, citaba dicho informe, en 1960 se apreciaba una leve mejoría general en relación a 1959, “sin que se haya alcanzado el nivel anterior a la crisis y siempre dentro de una tónica de precios bajos”<sup>223</sup>.

## ESPAINIAKO ESTATUKO ETA GIPUZKOAKO POPULAZIO OSOA ETA POPULAZIO AKTIBOA 1960an<sup>224</sup>

### POBLACIÓN TOTAL Y ACTIVA DEL ESTADO ESPAÑOL Y GIPUZKOA EN 1960

	POPULAZIOA / POBLACIÓN	POPULAZIO AKTIBOA / POBLACIÓN ACTIVA	%
Espainiako Estatur / Estado español	30.000.000	12.126.000	39,37
Gipuzkoa	478.409	198.540	41,50

<sup>221</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1960. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3673/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1960”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3673/0/1.

<sup>222</sup> “Estudio sociológico de la comarca de Tolosa”. SIADECO. 1976.

<sup>223</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1960. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3673/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1960”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3673/0/1.

<sup>224</sup> Ibidem. / Ibid.

## GIPUZKOAKO ESKUALDE BAKOITZAREN LAN BANAKETA 1960an<sup>225</sup>

DISTRIBUCIÓN LABORAL CORRESPONDIENTE  
A CADA COMARCA DE GIPUZKOA EN 1960

ESKUALDEA / COMARCA	LANGILE KOPURUA / Nº DE TRABAJADORES
Donostia	34.055
Eibar	19.854
Tolosa	14.949
Arrasate	13.159
Azpeitia	8.272
Zumarraga	8.003
Beasain	7.874
Irun	4.796

## LANEAN DEN POPULAZIOAREN BILAKAERA TOLOSALDEAKO ESKUALDEAN 1960-1964 BITARTEAN<sup>226</sup>

EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN LABORAL EN LA  
COMARCA DE TOLOSALDEA ENTRE 1960 Y 1964

1960		1962		1964	
Enpresa kopurua Nº de empresas	Langile kopurua Nº de trabajadores	Enpresa kopurua Nº de empresas	Langile kopurua Nº de trabajadores	Enpresa kopurua Nº de empresas	Langile kopurua Nº de trabajadores
335	5.862	346	5.908	442	7.047



Metalaren aldarrikapena Tolosan. 1970 / Reivindicación del metal en Tolosa. 1970. (TUA/AMT).

<sup>225</sup> Ibidem. / Ibíd.

<sup>226</sup> "Estudio sociológico de la comarca de Tolosa". SIADECO. 1976. / "Estudio sociológico de la comarca de Tolosa". SIADECO. 1976.

1964ko memorian gobernadore zibilak langileak aztoratzen zituen funtsezko bi gako aipatzen zituen: “biziarteko gutxieneko soldata” bat eskatzeko joera eta izuaren “edo diziplina-zentzuaren” galera. Egoera horretan lanleketan gatazka kolektiboak maiz gertatzen ziren. Aldarte hartan, klandestinitatean jarduten zuten alderdi politikoak berrakibatatu eta inplikatu egin ziren. Beraz, haiekin lotura gutxi edo gehiago zuten langileak izan ziren alderdi politikoak akuitatu zituztenak, eta ez alderantziz. Langileen aldetiko maila sozial eta ekonomikoa areagotzeko eskaera izan zen eskaeren ardatza. Zehazki, langileen soldaten egonkortzea eta, horrenbestez, erosalmenaren galera zen lan arloko elementu aztoratzaile nagusia, Gipuzkoako lurraldean, non “propagandak ongarrantutako lurraldea bilatzen duen, ez soilik Probintziaren ezaugarri ideologikoak kontuan hartuz, baizik eta askoren jarrera pasiboari so”<sup>227</sup>. Horrekin guztiarekin, soldatekin lotutako gatazka 1959ko Egonkortze Plana zorroztasun osoa aplikatzearen ondorioz lehertu zen. *Le Figaro* egunkari frantziarrak Madril en zuen korrespontsalaren, M. Guilleme-Brullonen, hitzetan “orduak abiatutako austeritate eta inbertsioen politikak, ondorio modura, egiaz, Espainiari ia mila milioi dolarreko dibisen erreserba bat ematea eta industria material ultramoderno batekin hornitzea izan du ondorio, baina, aitzitik, soldaten blokeoak, bizi-mailak gora egitearekin batera, gizartearen giroa nahasi egin du”<sup>228</sup>.

Errealitate hark langileen eta Polizia Armatuko kideen eta Guardia Zibilaren arteko 1960ko hamarkadako lehen liskarra ekarri zuen Gipuzkoan<sup>229</sup>. Gogoan izan behar da, Estatuan, langileen etenaldiak sedizio-delitutzat tipifikatuta egon zirela 1965. urtera arte (funtzionarioek edo zerbitzu publikoetako arduradunek egindakoak halakotzat mantenduz<sup>230</sup>), eta grebak erabat debekatuta izan zirela diktadorea hil zen arte. Zehazki 1961eko azaroan gertatu zen, eta protesta-gune nagusiak Beasain, Zumarraga, Arrasate eta Tolosako industria-zonaldeak izan ziren. Horietan “enpresek eskuratzen zituzten etekin handiekin alderatuz jornal baxuen ondoriozko desatseginak” berekin ekarri zuen “indarra erabiltzeko premia”<sup>231</sup>. 1961. urte hartan eratu zen *Euskadiko Aliantza Sindikala*, UGT, CNT eta ELA-STV sindikatuek

En la memoria de 1964 el gobernador civil apuntaba dos factores claves que convulsionaban el mundo obrero: la tendencia a exigir un “salario mínimo vital” y la pérdida del temor “o sentido disciplinario”, lo que favorecía la aparición de conflictos colectivos en los centros de trabajo. Este estado anímico permitía reactivar e implicar a los partidos políticos que operaban en la clandestinidad, por lo que eran los trabajadores más o menos asociados los que incitaron a los grupos políticos y no al revés. La exigencia de un aumento del nivel social y económico de la clase trabajadora se convirtió en centro de las demandas. En concreto, el estancamiento de los salarios, y por tanto, la pérdida de poder adquisitivo de la clase obrera, era el mayor elemento perturbador en el mundo laboral, en un territorio como el guipuzcoano donde la “propaganda encuentra un terreno abonado, no solamente teniendo en cuenta las características ideológicas de la Provincia, sino ante la actitud pasiva de muchos”<sup>227</sup>. Con todo, el conflicto en torno a los salarios tuvo su origen en la rigurosa aplicación del Plan de Estabilización de 1959. En palabras del corresponsal en Madrid del diario francés *Le Figaro*, M. Guilleme-Brullon, “La política de austeridad y de inversiones inaugurada entonces, ha tenido, ciertamente, como consecuencia proporcionar a España una reserva de divisas de casi mil millones de dólares y dotar a la industria de material ultramoderno, Pero en cambio, el bloqueo de los salarios, unido al alza de la vida, ha deteriorado el clima social”<sup>228</sup>.

Esta realidad motivó el primer enfrentamiento entre obreros y miembros de la Policía Armada y la Guardia Civil de la década de 1960 de Gipuzkoa<sup>229</sup>, en un Estado en el que, cabe recordar, los paros obreros estuvieron tipificados como delitos de sedición hasta 1965 (manteniéndose para los protagonizados por funcionarios o encargados de un servicio público<sup>230</sup>), y en el que las huelgas estuvieron totalmente prohibidas hasta la muerte del dictador. Ocurrió exactamente en noviembre de 1961, y los focos principales de protesta fueron las zonas industriales de Beasain, Zumarraga, Arrasate y también Tolosa, donde el “descontento por el bajo jornal en relación con los grandes beneficios que obtenían las empresas” provocó “la necesidad de emplear la fuerza”<sup>231</sup>. Fue ese año de 1961 cuando se

<sup>227</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1964. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3674/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1964”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1.

<sup>228</sup> 1962. urteko OPE; 3612. zenbakia. / OPE año 1962; nº 3612.

<sup>229</sup> Gipuzkoako Gobernu Zibilaren 1960ko memoriaren arabera, Poliziaren komisariako nahiz Guardia Zibilaren informazio eta ikerketa zerbitzuak fabrika handietako industrialari ugazabekin harremanetan izan ziren etengabe urte oso batez, ordena aldatzeko edozein saiakera prebenitze aldera. Martxoaren 24, 25 eta 26an zaintza-zerbitzu bereziak finkatu ziren, esne-saltzaile etxekoek ustezko protestak zirela medio, esnea derrigorrez higienizatze araubidea behin betikoz ezartzearekin batera (Gurelesa Esne Zentroa). / Según la memoria de 1960 del Gobierno Civil de Gipuzkoa, los servicios de información e investigación tanto de la Comisaría de Policía como de la Guardia Civil mantuvieron durante todo el año un contacto continuo con los industriales dueños de las grandes factorías, con el objetivo de prevenir cualquier conato de alteración del orden. Los días 24, 25 y 26 de marzo se establecieron servicios de vigilancia especial ante las presuntas protestas de las caseras repartidoras de leche, coincidiendo con la implantación definitiva del régimen obligatorio de higienización de la leche (Central Lechera Gurelesa).

<sup>230</sup> BABIANO MORA, J. eta beste: *Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos*.

<sup>231</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1960. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3673/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1960”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3673/0/1.



osatuta. Aldi berean, lehendabiziko Langileen Batzordeak eratzen hasi ziren, 1962ko grebetan eragin handia izan zutenak, esate baterako, Beasaingo CAF lantegian. 1962. urtearen amaierako sindikatuetakoa hauteskundeetan, *Aliantza Sindikalak* abstentzioa emateko irizpidea ipini bazuen ere, Gipuzkoan ELA-STV sindikatuak parte hartzeko erabakia hartu zuen, ahalik eta ordezkaritza gehien eskuratu eta barnetik Espainiako Antolamendu Sindikalaren egonkortasuna ahultzeko xedez; estrategia berari heldu zioten Langile Batzordeek Gipuzkoako fabrika ezberdinetan. Gobernu Zibilaren 1964ko memoriaren arabera, ELA-STV sindikatuak “Gipuzkoako langile-masaren gehiengoa kontrolatzen zuen” eta “dagoeneko ETA erakundeko elementu gazteek zuzenduta dagoela” ziurtatzen da<sup>232</sup>.

constituyó la *Alianza Sindical de Euskadi*, compuesta por los sindicatos UGT, CNT y ELA-STV, al tiempo que comenzaban a tomar forma las primeras Comisiones Obreras con gran influencia en las huelgas de 1962, por ejemplo, en la CAF en Beasain. En las elecciones sindicales de finales de 1962, a pesar del criterio fijado por la *Alianza Sindical* de abstenerse, ELA-STV en Gipuzkoa decidió participar con el objetivo de copar el mayor número posible de puestos representativos, y desde dentro minar la estabilidad de la Organización Sindical Española (conocida como *Sindicato Vertical*); una estrategia que también desarrollaron las Comisiones Obreras en las diferentes factorías de Gipuzkoa. Según la memoria de 1964 del Gobierno Civil, ELA-STV “controlaba la mayoría de la masa trabajadora de Guipúzcoa” y se asegura “que ya está dirigida por elementos jóvenes de ETA”<sup>232</sup>.



Lan-manifestazioa Tolosan. 1970 / Manifestación laboral en Tolosa. 1970. (TUA / AMT).

<sup>232</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1964. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3674/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1964”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1.



1962. urte hartan, maiatzaren leheneko aldarrikapenen ondotik, hurrengo egunetan, grebak antolatu ziren Bizkaia eta Gipuzkoako fabrika nagusietan, eta baita Asturiaseko meatzari-zonaldeetan ere, langileen aldetiko erosahalmenaren galeraren testuinguruan. Hilaren 4an, agintari frankistei egoerak ihes egiten ziela ikusita, salbuespen-egoera deklaratu zen hiru hilabetez aurrez aipatutako hiru probintzia horietan. Gipuzkoan, CAF lantegiko langileak, 3.000 behargin inguru, izan ziren gatazkaren aurpegi agerikoena; eta Tolosan, *Azaldegui y Amiano*, S.A. lima-fabrika sozietatearen greba nabarmendu zen. Gatazka maiatzaren amaiera bitartean luzatu zen intentsitate adierazgarri batekin. Informazio eta Turismo Ministerioaren bidez, erregimenak langileen “legezko asmoak” aitortu zituen, baina ohartarazi zuenez, haien eskakizunak legezko bidetik bideratu behar ziren sindikatu bakarraren ordezkarieta sindikalaren bidez<sup>233</sup>, euskal langile askorentzat legezkotasun urria zuena.

1963an 27 lan-gatazka zenbatu ziren ofizialki Gipuzkoan, horietako 3 Tolosako fabriketan. Gatazka horiek 10.815 langilerengan izan zuten eragina. Halaber, 9 izan ziren “nolabaiteko tentsioko lan-egoera erregistratuak, gatazka kolektiborik ekarri ez zutenak, Inspektzioaren edo Lan Ordezkaritzaren esku-hartze zuzenari esker”. “Nolabaiteko tentsioko lan-egoera” horietako bat Tolosako S.A.M. paper-fabrikaren gertatu zen. 1964an, 53 lan-gatazka zenbatu ziren, 12.768 langileren partaidetzarekin (14.000 langile Euskadiko Prentsa Bulegoaren araber<sup>234</sup>). Ekaina izan zen hil gatazkatsuen, langileek soldatak igotzea eta hitzarmenak berritzea eskatzen zutelarik. Etenaldi horiek Estatu osoan zehar hedatu ziren, eta ikasleen babesa ere izan zuten. 1965. urterako, probintziako Gobernu Zibilaren araber, lan-gatazkek nabarmen murriztu ziren, guztira 14 gatazka zenbatu baitziren<sup>235</sup>.

En aquel año de 1962, las reivindicaciones del 1º de mayo desembocaron en los días posteriores en huelgas en los principales centros fabriles de Bizkaia y Gipuzkoa, así como en las zonas mineras de Asturias, bajo el trasfondo de la pérdida de poder adquisitivo de los trabajadores. El día 4, ante la situación que desbordaba a las autoridades franquistas, se declaró el Estado de excepción durante tres meses en las tres provincias anteriormente citadas. En Gipuzkoa, los trabajadores de la CAF, unos 3.000 operarios, fueron la cara más visible del conflicto; y en Tolosa destacó la huelga de la fábrica de limas *Azaldegui y Amiano*, S.A. La conflictividad se extendió con una intensidad considerable hasta finales del mes de mayo. A través del Ministerio de Información y Turismo, el régimen reconoció las “legítimas aspiraciones” de los trabajadores, pero advirtió que sus exigencias debían encauzarse por la vida legal a través de la representación sindical del sindicato único<sup>233</sup>, el cual contaba con escasa legitimidad para gran parte de los trabajadores vascos.

En 1963 se contabilizaron oficialmente 27 conflictos laborales en Gipuzkoa, 3 de ellos en factorías de Tolosa, enfrentamientos que afectaron a 10.815 trabajadores. Asimismo, se registraron 9 “situaciones laborales de cierta tensión, no traducida en conflictos colectivos, merced a las intervenciones directas de la Inspección o Delegación de Trabajo”. De estas “situaciones laborales de cierta tensión” una se produjo en la papelera de Tolosa S.A.M. En 1964, la cifra de conflictos laborales ascendió a 53, con una participación de 12.768 trabajadores (14.000 según la Oficina de Prensa de Euzkadi<sup>234</sup>). Junio fue el mes de mayor convulsión, bajo la demanda de los trabajadores por el aumento de los salarios y las renovaciones de los convenios. Estos paros se extendieron por todo el Estado, y contaron con el apoyo de los estudiantes. Para 1965, según el Gobierno Civil de la provincia, se produjo un descenso considerable en la conflictividad laboral al reducirse a 14 los conflictos<sup>235</sup>.

## LAN-GATAZKA NAGUSIAK TOLOSAN 1963-1965 BITARTEAN<sup>236</sup>

### PRINCIPALES CONFLICTOS LABORALES EN TOLOSA DURANTE 1963-1965

	ENPRESA / EMPRESA	DATA / FECHA	LANTALDEA / PLANTILLA	ARRAZOIA / CAUSA
1963	Duroxil S.A.	Urtarrilak 16 / 16 de enero	9	Soldatak / Salarios
	Talleres de Tolosa S.A.	Urtarrilak 25 / 25 de enero	165	Pizgarriak / Incentivos
	Azaldegui y Amiano S.A.	Apirilak 2 / 2 de abril	140	Pizgarriak / Incentivos
1964				
	Talleres Tolosa S.A.	Maiatzaren 4-11 bitartean / 4 al 11 de mayo	163	Soldatak / Salarios
	Papelera Española S.A.	Ekainaren 8-12 bitartean / 8 al 12 de junio	274	Soldatak / Salarios
1965				
	Azaldegui y Amiano S.A.	Otsailaren 1-4 bitartean, abuztuak 4 / 1 al 4 de febrero, 4 de agosto	340	Soldatak / Salarios

<sup>233</sup> 1962. urteko OPE; 3612-3621. zenbakia. / OPE año 1962; nº 3612-3621.

<sup>234</sup> 1964. urteko OPE; 4111. zenbakia. / OPE año 1964; nº 4111.

<sup>235</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1963. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3673/0/1. // “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1964. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3674/0/1. // “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1965. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3674/0/1. // “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1963”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3673/0/1. // “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1964”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1. // “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1965”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3674/0/1.

<sup>236</sup> Ibidem. / Ibid.



Futbol taldea Azaldegui eta Amiano lima-fabrikari. 1960 / Equipo de fútbol frente a la fábrica de limas Azaldegui y Amiano. 1960. (TUA/AMT).

1967ko irailaren 16an Mugimenduaren ministro-idazkari nagusi eta Sindikatuen ordezkari nazionalak, Jose Solís Ruizek, Tolosa hautatu zuen erregimenak lan arloan egiteko propaganda-ekintza bat burutzeko, sindikatuen elkarretaratze bat eginez, alde aurretik, 1965ean inauguratutako Papergintza Eskola bisitatu ostean. Galdutako legezotasuna berreskuratzeko beste ahalegin bat eginez, eta urte haietan oldarkorren agertzen zen udalerrietako batean, ministroak sindikatuen hauteskundeetan parte hartzeko gonbitea luzatu zuen eta Lege Sindikal berria 1968ko udaberrian Gorteetara igorriko zela ziurtatu zuen<sup>237</sup>. Haatik, aipatu legea ez zen Gorteetan behin betikoz onartu 1971ko otsailaren 16ra arte<sup>238</sup>, eta abian jarri zenean ez zituen langileen iguripenak bete, izan ere, Estatuarekiko mende-kotasunean jarraitu zuten haren propagandarako beste organismo bat bailiran. Funtsean, legeak ez zuen bermatzen langileen egiazko ordezkari *Sindikatu Bertikalaren* barnean. Beraz, gatazka-uneetan enpresariak erakunde sindikal klandestinoekin zuzenean negoziatzera iritsi ziren. Horrenbestez, lan-gatazkek eta poliziaren

El 16 de septiembre de 1967 el ministro-secretario general el Movimiento y delegado nacional de Sindicatos, José Solís Ruiz, eligió Tolosa para llevar a cabo un acto de propaganda del régimen en materia laboral, mediante una concentración sindical, y tras haber visitado previamente la Escuela Papelera inaugurada en 1965. En un intento más de recuperar la legitimidad perdida, y en uno de los municipios que en aquellos años se mostraban más combativo, el ministro animó a participar en las elecciones sindicales y aseguró que la nueva Ley Sindical sería enviada a Cortes en la primavera de 1968<sup>237</sup>. Sin embargo, la citada Ley no fue aprobada definitivamente en Cortes hasta el 16 de febrero de 1971<sup>238</sup>, y cuando fue puesta en marcha no cumplió las expectativas de los trabajadores, al seguir manteniendo su dependencia del Estado como un organismo de propaganda más de éste. En esencia, no garantizaba la representación real de los trabajadores dentro del Sindicato Vertical, por lo que en momentos de conflicto los empresarios llegarían a negociar directamente con las organizaciones sindicales clandestinas.

<sup>237</sup> ABC, 1967ko irailak 17. / ABC, 17 de septiembre de 1967.

<sup>238</sup> 2/1971 Sindikatuen Legea (EAO; 43. zenbakia, 1971ko otsailak 19). / Ley Sindical 2/1971 (BOE; núm. 43, de 19 de febrero de 1971).

errepresioak areagotzen jarraitu zuten, hainbeste ezen 1971. urte hartan bertan Lan Ministerioak *“Irizpideak balizko gatazka-egoera baten aurrean”* izeneko zirkular bat igorri baitzuen. Bertan Sindikatuetako Ordezkaritzei 1972. urtean gatazkek areagotzeko aurreikuspenaren aurrean zer-nola jardun adierazten zitzaien<sup>239</sup>.

Tolosan Ibarako *Talleres Nik* enpresan kaleratutako 13 langileren inguruko protestekin hasi zen 1970eko hamarkada, otsailaren hasieran. Horietako 5, zonaldeko beste enpresa batzuetako beste 3 langilerekin batera, Tolosako Andra Mariaren parrokia-elizan itxi ziren berariaz hilaren 11n, hurrengo egunetik gose-greba hasiz. Hilaren 16tik eta 21era bitartean, biak barne, Tolosa edo Irurako enpresetan hainbat etenaldi izan ziren, jarraian zehazten direnak<sup>240</sup>.

### HILAREN 16an / DÍA 16

HERRIA MUNICIPIO	ENPRESA EMPRESA	LANTALDEA PLANTILLA	ETENALDIAN EN PARO	ORDUAK HORAS
Tolosa	Talleres Arin	174	100	18-18,30
Tolosa	Talleres Tolosa	130	20	6-6,30
Tolosa	Talleres Tolosa	--	90	8-8,30
Tolosa	Talleres Tolosa	--	20	14-14,30
Tolosa	Talleres Sorarrain	11	11	15-15,30
Tolosa	Talleres Licar	40	27	16-16,30
Tolosa	Talleres Ugarola	45	38	15,30-16
Tolosa	Vascongada sobres y bolsas	160	105	10,30-11
Tolosa	O. Mustad y Cia	259	177	14-14,30
Irura	Talleres Emua	172	172	16-16,30

Halaber, martxoan zehar, herriko hainbat elizetan, homilietan, ofizio-emaileek eliza-kabildoaren pastoral bat irakurri zuten. Bertan adierazten zenez, Andra Maria elizan itxi ziren norbanakoek apaizen laguntza eskatu zuten Talleres Nik enpresan sortutako gatazkaren irtenbidean esku har zezaten, baina langileekin eta ugazabarekin hitz egin arren, ez zuten irtenbiderik topatu; horrenbestez, Pio XII.aren Entziklika gogora ekarri eta batzuei zein besteei berehalako adostasun bat erdiesteko eskatu zieten, gizon guztien alde. Hilaren 9an, eguerdiko 12:00etan, Zerkausia izeneko plazan 200 pertsona inguru elkartu ziren, eta haien artean 15 minutuz deliberatu ondotik, 8 langileak zeuden parrokia-elizara abiatu

Por tanto, la conflictividad laboral y la represión policial siguieron creciendo, hasta tal punto que ese mismo año de 1971 el Ministerio de Trabajo emitió una circular, *“Criterios ante una posible situación conflictiva”*, en el que indicaba a las Delegaciones de Sindicatos cómo actuar ante el presumible aumento de los conflictos durante el año de 1972<sup>239</sup>.

En Tolosa, la década de 1970 se inició con las protestas en torno a los despidos de 13 trabajadores de la empresa *Talleres Nik* de Ibarra a comienzos de febrero. 5 de ellos, junto a 3 obreros de otras empresas de la zona, se recluyeron voluntariamente en la iglesia parroquial de Santa María de Tolosa la jornada del 11, declarándose en huelga de hambre desde el día siguiente. A partir del 16 y hasta el 21 inclusive, se registraron paros en las empresas de Tolosa o Irura que se especifican a continuación<sup>240</sup>.

### HILAREN 18an / DÍA 18

HERRIA MUNICIPIO	ENPRESA EMPRESA	LANTALDEA PLANTILLA	ETENALDIAN EN PARO	ORDUAK HORAS
Tolosa	Talleres Sorarrain	--	11	16-18
Tolosa	Talleres Licar	--	27	16-18
Irura	Talleres Emua	--	172	10-12

### HILAREN 20an / DÍA 20

HERRIA MUNICIPIO	ENPRESA EMPRESA	LANTALDEA PLANTILLA	ETENALDIAN EN PARO	ORDUAK HORAS
Tolosa	O. Mustad y Cia	--	177	8-10

### HILAREN 21ean / DÍA 21

HERRIA MUNICIPIO	ENPRESA EMPRESA	LANTALDEA PLANTILLA	ETENALDIAN EN PARO	ORDUAK HORAS
Tolosa	Talleres Ugarola	--	45	11-13

Asimismo, durante el mes de marzo, en varias iglesias de la localidad, durante las homilías, los oficiantes dieron lectura a una pastoral del cabildo eclesiástico, en la que se decía que los individuos que se habían recluido en la iglesia de Santa María habían recurrido a los sacerdotes para que intercedieran en la solución del conflicto surgido en Talleres Nik, pero que a pesar de haber dialogado con obreros y patrón no habían hallado solución al problema; por lo que recordaban la Encíclica de Pio XII y pedían comprensión a unos y otros para un pronto acuerdo en beneficio de todos los hombres. El día 19 sobre las 12:00 horas se congregaron en la plaza conocida como El Tinglado unas 200 personas, que después de deliberar entre sí por espacio de

<sup>239</sup> ECHEVERRIA MARIÑELARENA, S.: *Los derechos laborales en el Franquismo: La Ley Sindical 2/1971 y la subsiguiente conflictividad laboral en Navarra.*

ziren. Hala, 13:00etan sartu ziren hara ehun pertsona inguru, mezaren hasiera-orduan, eta gainerakoak sakabanatu egin ziren. Erljio-egintza amaitu zenean, hartara bertaratutako pertsona guztiak tenplutik irten ziren bertan itxita zeuden 8 langileak izan ezik. Martxoan zehar, Tolosan finkatuta zeuden Guardia Zibilaren informazio-zerbitzuek propaganda andana atzeman zuten, non gainerako langileei nahiz herritarrei kaleratutako langileekin elkartasuna adierazteko eskatzen baitzitzaien<sup>240</sup>.

Azaroan, lan-gatazka *With-Tolosa* enpresara iritsi zen. Hilaren 2an, 163 langileetatik 80k planto egin zioten lanari 10:00-10:30 bitartean, eta beste 110 langilek egun bereko 16:00-16:30 bitartean, hirurtekoen ordainketan izandako atzerapenengatik eta 1971. urtean soldata %6tik 9ra igo zirela eta, lan pertsonalaren errendimenduari buruzko deskontuari zegokiona, protestan. Hilaren 20an, enpresako 130 langile jardunik gabe egon ziren, eta egoera horretan mantendu ziren hilaren 21eko 11:15ak arte, zuzendaritzari hilean 1.000 pezetako igoera eskatzeko kategorien arabera bereizketarik egin gabe, asteko lanaldia 44 ordura murriztea eskatzeko, 30 eguneko paga estrak eta ez 20 egunekoak eskatzeko, eta administrazioako langileek zubi izenekoak ez berreskuratzeagatik protesta egiteko.

Bestalde, 1970eko abenduan Burgoseko epaiketa izan zen nagusi, lanleketan oihartzun handia izan baitzuen. Tolosan epaitutako ETAko kideekin elkartasuna adierazteko etenaldi hauek dokumentatzen dira<sup>241</sup>.

15 minutos, se dirigieron hacia la iglesia parroquial en la que permanecían reclusos 8 obreros, penetrando en la misma a las 13:00 horas un centenar aproximadamente, a la hora del comienzo de una misa, y disgregándose el resto. Al finalizar el citado acto religioso, todo el personal que asistía al mismo salió del templo con la sola excepción de los 8 reclusos en el mismo. Durante todo el mes de marzo, los Servicios de Información de la Guardia Civil asentados en Tolosa se hicieron con abundante propaganda en la que se pedía al resto de la clase trabajadora y al conjunto del pueblo solidarizarse con los obreros despedidos<sup>240</sup>.

En noviembre la conflictividad laboral giró en torno a la empresa *With-Tolosa*. En la jornada del 2, 80 de los 163 trabajadores efectuaron un plante en el trabajo entre las 10:00 y las 10:30 horas, y otros 110, de 16:00 a 16:30 de la misma fecha, para protestar por el retraso en el pago de trienios y aumento del 6 al 9% que experimentarían en el año 1971, correspondiente al descuento sobre el rendimiento del trabajo personal. El día 20, 130 obreros de la empresa permanecieron inactivos, continuando en igual situación hasta las 11:15 horas del día 21, para exigir de la dirección un aumento de 1.000 pesetas mensuales sin distinción de categorías, reducción de la jornada semanal a 44 horas, pagas extraordinarias de 30 días en lugar de 20, y en protesta por la no recuperación de los llamados puentes por el personal administrativo.

Por su parte, diciembre de 1970 vino marcado por el juicio de Burgos, el cual tuvo una gran repercusión en los centros de trabajo. En Tolosa se documentan los siguientes paros en solidaridad con los miembros de ETA enjuiciados<sup>241</sup>.

## 1970ko ABENDUKO GREBAK TOLOSAN HUELGAS EN DICIEMBRE DE 1970 EN TOLOSA

### HILAREN 3an / DÍA 3

ENPRESA / EMPRESA	LANTALDEA / LANTILLA	ETENALDIAN / EN PARO
Garage Uzturre	33	33
Talleres Ugerola	44	44
Dousinage	144	144
Licar	70	70
Metalurgicas Sagastibelda	25	25
Emua	110	110

### HILAREN 4an / DÍA 4

ENPRESA / EMPRESA	LANTALDEA / LANTILLA	ETENALDIAN / EN PARO
Talleres Arin	105	105
Talleres Gorostidi	107	107
Emua	110	110
Talleres Tolosa	175	175
O. Mustad	197	197
Talleres Basoboitia	52	42
Arreche	52	42
Talleres Irizar	8	8

<sup>240</sup> Ibidem. / Ibíd.

<sup>241</sup> Ibidem. / Ibíd.



**HILAREN 9an / DÍA 9**

ENPRESA / EMPRESA	LANTALDEA / LANTILLA	ETENALDIAN / EN PARO
Talleres Voith-Tolosa	175	77

**HILAREN 10ean / DÍA 10**

ENPRESA / EMPRESA	LANTALDEA / LANTILLA	ETENALDIAN / EN PARO
Talleres Licar	70	40

**HILAREN 29an / DÍA 29**

ENPRESA / EMPRESA	LANTALDEA / LANTILLA	ETENALDIAN / EN PARO
Winkler	120	120

1971n, Gipuzkoara bidalitako Guardia Zibilaren txostenaren arabera “etenaldi eta greba andana erregistratu ziren enpresa ugarran”<sup>242</sup>. Langileek eskariak, berriz ere, soldaten igoera eta izaera sozialeko aldarrikapenak ziren. Haatik, urte hartan Lege Sindikal berriaren aurka ere egin ziren protestak. Ekainaren 20an, *Talleres Voith* lantegian, 46 teknikari eta administrari eta 130 langile zeudela, azken horietako 60k lan-etenaldia egitea erabaki zuten 09:45etan, 10:45etan beste 21 langile batu zitzaizkien eta, beranduago, 14:00etan gainerakoak batu ziren etenaldira. Langileek orduko hartan aurretiaz onartutako haborokin ekonomiko bat ordain ziezaie-tela eskatu zuten, urtarrilaren 1eko atzeraeraginezko efektuarekin. Erregimenak maiatzerako aurreikusitako sindikatuen hauteskondeei dagokienez, hilaren 5-22 bitartean, Tolosan finkatutako Guardia Zibilaren informazio-zerbitzuaren arabera, Gipuzkoako hainbat herritan, Tolosan barne, kopia anitzeko propaganda klandestino ugari banatu zen, izenburu ezberdinekin. Propaganda hori “kutsu separatista eta komunistako alderdi eta frakzioek” ipini zuten zirkulazioan, hauteskunde haietan modu masiboan bozkatzeko eskatuz, Sindikatu Ofizialari “Azken borroka” emateko ordezkaritza-postu guztiak betetze aldera. Halaber, egun horietan Guardia Zibilak orri klandestinoak atzeman zituen, aurrekoetan bezala, “kutsu komunista eta separatista” zuten erakundeek editatuak. Horietan, ordea, aurreko propagandan ez bezala, hautagaien aurkezpenaren erabateko abstentzioa eskatzen zen eta hauteskondeek boikot egitea modu aktiboan. Edozein kasutan, badirudi lehen aukera izan zela langileak gehien erakarri zituena, izan ere, datu ofizialen arabera, 107.798 langiletatik 70.997 langile botoa eman zuten, hots, boto-emailen % 65,86ak, “probintzia honetan, non natiboek, gehienak ideologia abertzalekoek, entzungor egiten dieten Espainiako Gobernuaren Lege eta xedapenei”<sup>243</sup>.

**HILAREN 30ean / DÍA 30**

ENPRESA / EMPRESA	LANTALDEA / LANTILLA	ETENALDIAN / EN PARO
Talleres Gorostidi	134	134
Talleres Tolosa	170	170
Talleres Emua	225	225
Talleres Uguerola	44	44
Talleres Licar	65	65
Talleres Peor	50	40
Talleres Arin	100	80
Talleres Winkler	120	120
Gráficas Dutarajes	44	34

En 1971, según el informe de la Guardia Civil destinada en Gipuzkoa, “se registraron numerosos paros y huelgas en gran cantidad de empresas”<sup>242</sup>. Las demandas de los trabajadores volvían a ser el aumento de los salarios y reivindicaciones de carácter social, pero también las protestas se centraron en este año en la oposición a la nueva Ley Sindical. El 20 de junio, en la factoría *Talleres Voith*, con una plantilla de 46 técnicos y administrativos y 130 obreros, 60 de estos últimos pararon el trabajo a las 9:45 horas, haciéndolo a las 10:45 otros 21 trabajadores, y posteriormente a las 14:00 horas el resto. El motivo era la petición de los trabajadores de que se les abonara con carácter retroactivo al 1º de enero una gratificación económica anteriormente concedida. Con respecto a las elecciones sindicales previstas por el régimen en el mes de mayo, entre los días 5 y 22, según el servicio de Información de la Guardia Civil instalado en Tolosa, en numerosas localidades de Gipuzkoa, incluida Tolosa, fue repartida abundante propaganda clandestina multicopiada, bajo diversos títulos, puesta indistintamente en circulación por “partidos y fracciones de significación separatista y comunista”, pidiendo que se votara de forma masiva en aquellas elecciones a fin de copar todos los puestos representativos desde los que poder dar la “lucha final” al Sindicato Oficial. Si bien, en esas mismas fechas la Guardia Civil también se hizo con octavillas clandestinas, que al igual que las anteriores eran editadas por organizaciones “de significación comunista y separatista”, en las que, en contraposición con la propaganda anterior, se peticionaba la abstención total en la presentación de candidaturas y un boicot activo a las elecciones. Con todo, parece ser que fue la primera opción la que más logró atraer a la clase trabajadora, ya que, según los datos oficiales, votaron 70.997 obreros de un total de 107.798, lo que representaba un 65,86% de votantes “en esta provincia, en la que los nativos, en su mayoría de ideología nacionalista, hacen prácticamente caso omiso a las Leyes y disposiciones del Gobierno español”<sup>243</sup>.

<sup>242</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1971. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3676/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1971”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3676/0/1.

<sup>243</sup> “551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1971. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3676/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1971” AHPG; Gobierno Civil; c. 3676/0/1.

Abenduaren hasieran, zehazki, hilaren 3an eta 4an, etenaldi orokorrak izan ziren Tolosaldeako eskualdean, 2.000 langileren partaidetzarekin, zeintzuen “helburua Euskal Mugimendu Komunistak (Komunistak) modu berezian zirkulazioan ipinitako propaganda andanaren aldarriekin jarraitzea baita, Burgoseko kontseiluaren lehen urteurrena oroitzeko”. Zehazki, manifestaldi eta propaganden hedapenez gain, Burgosen egindako epaiketa militarren lehen urteurrena zela eta, hurrengo etenaldiak erregistratu ziren<sup>244</sup>:

### 1971ko ABENDU HASIERAKO GELDIALDIAK TOLOSAN HUELGAS EN TOLOSA A COMIENZOS DE DICIEMBRE DE 1971

#### HILAREN 3an / DÍA 3

ENPRESA EMPRESA	LANTALDEA PLANTILLA	ETENALDIA EGIN ZUTENAK / PARADOS	ORDUAK HORAS
Talleres Gorostidi	110	66	8-(ez da amaiera-ordua zehazten) / (no especifica hora final)
Talleres Emua	100	78	8-
Winkler	98	83	8-
Construcciones metálicas	17	17	8-
Talleres Urgola	40	40	10,45-
Mustad	155	126	15,30
Garaje Iturbe	38	34	15,30
Talleres Voith	130	104	14-
Caldereria Oria	39	39	14
Talleres Arin	132	132	14
Unión Gráficas	51	47	14
Manufac. Sagastibelza	30	30	14

Abenduaren 4tik aurrera eta hilaren erdialdera arte, Tolosako langileen aldarrikapenak lan arloarekin hertsiki lotutako gaien ingurukoak izan ziren berriz ere. Hilaren 4-6 bitartean *Doussinage* fabrikako lantaldeko 220 langilek greba egin zuten enpresako zuzendaritzarekin soldatak igotzeko akordio bat erdietsi zuten arte. Hilaren 6-11 bitartean, *Talleres Arin* enpresako 152 langileetatik 118 izan ziren lanpostura hurbildu ez zirenak soldata hobeak eskatzeko ekintza gisa. Enpresak haiek enplegu eta soldatarik gabe utzi zituen berriro laneratu ziren arte, 4 langileren kasuan izan ezik, horiek behin betiko kaleratu baitzituzten.

<sup>244</sup> *Ibidem.* / *Ibid.*

A comienzos del mes de diciembre, concretamente los días 3 y 4, se llevaron a cabo paros generales en la comarca de Tolosaldea, con la participación de unos 2.000 trabajadores, “que tienen como fin el seguir consignas de la abundante propaganda subversiva puesta en circulación de forma especial por el Movimiento Comunista Vasco (Komunistak), para conmemorar el primer aniversario del consejo de Burgos”. En concreto, además de manifestaciones y la difusión de propaganda, con motivo del primer aniversario del juicio militar celebrado en Burgos, se registraron los siguientes paros<sup>244</sup>:

#### HILAREN 4an / DÍA 4

ENPRESA EMPRESA	LANTALDEA PLANTILLA	ETENALDIA EGIN ZUTENAK / PARADOS	ORDUAK HORAS
Talleres Gorostidi	110	66	8-(ez da amaiera-ordua zehazten) / (no especifica hora final)
Talleres Emua	100	78	8-
Winkler	98	83	8-
Construcciones metálicas	17	17	8-
Talleres Urgola	40	40	8-
Mustad	155	126	8-
Garaje Iturbe	38	34	8-
Talleres Voith	130	104	8--
Caldereria Oria	39	39	8-
Talleres Arin	132	132	8-
Unión Gráficas	51	47	8-
Manufac. Sagastibelza	30	30	8-
S.A.M.	310	75	8,15-
Doussinage	230	220	11,15
Papelera Lera Elduayen	260	80	8-
Talleres Tome	20	20	8-

A partir del 4 de diciembre y hasta mediados de mes, las reivindicaciones de los trabajadores tolosarras volvieron a centrarse en cuestiones estrictamente laborales. Entre los días 4 y 6 los 220 trabajadores de la plantilla de la factoría *Doussinage* se mantuvieron en huelga hasta llegar a un acuerdo con la dirección de la empresa para el aumento de los salarios. Del 6 al 11 fueron 118 de los 152 trabajadores de *Talleres Arin* quienes no acudieron a su puesto de trabajo en demanda de mejores salarios. La empresa les suspendió a todos ellos de empleo y sueldo hasta su reincorporación, salvo a 4 de los obreros que fueron definitivamente despedidos.



Lan-manifestazioa Tolosan. 1970 / Manifestación laboral en Tolosa. 1970. (TUA/AMT).

Guardia Zibilaren ustez 1971. urtearen ibilerak “agerian zuten du argiro Probintzia honetako langile-masaren politizazio urria, soldata hobetzea onartzearekin baino ez dena kezkatu-rik azaltzen (...) Langile-masaren kezka eta desadostasun hori izango litzateke oposizioko alderdi eta frakzioek eraginkortasunez balia dezaketen bakarra, propaganda-kanpaina egoki batekin, baina bertan kutsu jakin bateko xede politikoen lorpena nahasi gabe, zeintzuekin, Barnealdeko Eskualdeetakoak diren langileak bereziki, ez dauden inolaz ere identifikatuta”<sup>245</sup>. Haatik, Burgo-seko prozesutik aurrera egiaz langileen mugimendua sendotu egin zen eta hertsiki politikarekin lotuak ziren eskarien eragina jaso zuen. Esate baterako, ordutik aurrera, lan arloko edozein greba edo hitzarmenetan autodeterminaziorako eskakizun bat barneratu zen<sup>246</sup>.

Para la Guardia Civil el transcurso del año de 1971 “pone claramente de manifiesto la escasa politización de la masa trabajadora de esta Provincia, que se muestra únicamente preocupada por la concesión de mejoras salariales (...) Esta preocupación y disconformidad de la masa trabajadora, sería la que únicamente podría ser explotada eficazmente por los partidos y fracciones de la oposición, por medio de una adecuada campaña propagandística, pero sin mezclar en la misma la consecución de fines políticos de ningún matiz, con los que, especialmente los trabajadores oriundos de Regiones del Interior, no se encuentran en modo alguno identificados”<sup>245</sup>. Sin embargo, la realidad a partir del proceso de Burgos fue que el movimiento obrero se vio fortalecido e influenciado por las demandas estrictamente políticas. Por ejemplo, cualquier huelga o convenio laboral incluyó desde entonces una exigencia a la autodeterminación<sup>246</sup>.

<sup>245</sup> Ibidem. / Ibid.

<sup>246</sup> Jokin Aranalde Olaondoren testigantza (*Frankismoa eta Transizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* izenekotik aterea). / Testimonio de Jokin Aranalde Olaondo (Extraído de *Frankismoa eta Transizioa Tolosaldean eta Leitzaldean*).

Edozein modutan, argi zegoena da Tolosan izaera nazionalista edo independentista zuten erakunde inkonformistek ez zutela Langileen Batzordeak (lanlekuetan infiltratuta), PCE edo sortu berria zen ORT alderdiek adina eragiterik izan eta halako presentziarik izatea lortu, azken hauek jatorri anitzeko langile-klase batekin bat etortze handiagoa baitzuten. ORT alderdiak, esate baterako, gizarte-oinarri adierazgarria izan zuen Tolosan 1970eko hamarkadan, neurri batean, besteak beste, Herri Gaztedi mugimendu katolikotik etorriak, eta hartako kide tolosar asko alderdiaren Batzorde Nazionaleko kide ere izan ziren<sup>247</sup>. Agian horregatik, oposizioan zen euskal nazionalismo eta independentismoari lan-munduan irekitzen zitzaion lehiaren aurrean, 1971n zehar, ELA-STV sindikatuak “Euskal langile-klaseari” izenburua zuten propaganda-orriak banatu zituen herrian barna. Bertan Espainiako alderdi ezkertiarak oportunistatzat hartzen ziren eta “euskal erresistentziatik” at egoitea egotzen zitzairen. Gainera, herritarrei erakunde politiko komunistek programatutako ekintzak ez babesteko eskatzen zitzairen “Euskal Herritarren energia iraultzaileak beren berezko bidetik eramateko asmoa” zutela adieraziz<sup>248</sup>.

Tolosan, 1973ko lehendabiziko lan-gatazka otsailean gertatu zen *Vascosobres* enpresan, antzina *Vascongada de Sobres y Bolsas* izena zuen hartan. Lantaldean 135 langile eta 70 teknikari eta administrari zeuden. Lehendabiziko haiek etenaldia egin zuten hilaren 15eko 14:30etan, egunean 75 pezetako soldata-igoera eskatuz. Hilaren 19tik aurrera etenaldian zeudenak fabrika azaltzeari utzi zioten, eta hilaren 16tik pixkanaka hasi ziren berriro laneratsen. Hilaren 28an artean 102 langilek jarraitzen zuten greban, protesta martxoaren 1era arte luzatu zelarik. Enpresa honetako langileekin elkartasuna erakutsiz eskualde osoan zehar propaganda-orri bat igorri zen “Soldata-igoeren aldeko borroka hedatzen ari da” izenburupean. Orobat, *Unión Gráfica* enpresako 47 langiletatik 21 langilek lan arloko plantoa egin zuten *Vascosobres* enpresako langileak babesteko. Hainbat hilabetez nolabaiteko barealdian izan ostean, azaroan, 22-27 bitartean, enpresa hartako langileek bi orduko plantoak egin zituzten txanda ezberdinetan, azkenik soldata % 15 areagotzea eta primak % 20 igotzea lortu zuten arte<sup>249</sup>.

Halaber, azaroan, *O. Mustad* fabrika “Mustadeko langileak” izenburua zuen propaganda-orri bat banatu zen, industria hartako langileak elkarrekin borroka egitera adoretuz hilean 3.000 pezetako soldata-igoera lortze aldera. Fabrika hartan bertan, hilaren 8an, 257 langile eta 43 teknikari eta administrariarekin osatutako

Con todo, lo que era evidente es que las organizaciones subversivas de carácter nacionalista o independentista en Tolosa no consiguieron influir y tener la misma presencia que las Comisiones Obreras (infiltradas en los centros de trabajo), el PCE, o la incipiente ORT, con una mayor sintonía con una clase trabajadora de origen diverso. ORT, por ejemplo, tuvo en la década de 1970 una base social considerable en Tolosa proveniente en parte de movimientos católicos como Herri Gaztedi, y varios de sus miembros de origen tolosarra integraron el Comité Nacional del partido<sup>247</sup>. Quizá por ello, ante la competencia que se le abría al nacionalismo e independentismo vasco en la oposición en el mundo laboral, durante 1971 el sindicato ELA-STV repartió por la localidad diferentes hojas propagandísticas tituladas “A la clase trabajadora vasca”, en las que tachaba a los partidos de izquierda españoles de oportunistas y de estar ajenos a la “resistencia vasca”; pidiendo además a la población que se abstuviera de secundar las acciones programadas por organizaciones políticas comunistas “que trataban de llevar a su propio cauce las energías revolucionarias del Pueblo Vasco”<sup>248</sup>.

El primer conflicto laboral en Tolosa en el año 1973 se produjo en el mes de febrero en la empresa *Vascosobres*, antigua *Vascongada de Sobres y Bolsas*. Con una plantilla de 135 obreros y 70 técnicos y administrativos, los primeros se declararon en paro a las 14:30 horas del día 15, solicitando un aumento salarial de 75 pesetas diarias. A partir del día 19 los parados dejaron de acudir a la fábrica, y desde el día 16 fueron reintegrándose de forma paulatina. El 28 aún 102 trabajadores continuaban en huelga, prolongándose la protesta hasta el 1 de marzo. En solidaridad con los trabajadores de esta empresa se emitió una hoja propagandística por toda la comarca titulada “La lucha por la subida de los salarios se extiende”. Asimismo, 21 de los 47 trabajadores de la empresa *Unión Gráfica* realizaron un plante laboral en apoyo a los obreros de *Vascosobres*. Tras unos meses de relativa calma, en noviembre, entre los días 22 y 27, los trabajadores de esta empresa realizaron plantas de dos horas en los distintos turnos, hasta que finalmente lograron un aumento del 15% sobre el salario y un 20% con respecto a las primas<sup>249</sup>.

También en noviembre, en la factoría *O. Mustad* se difundió una hoja de propaganda titulada “Trabajadores de Mustad”, alentando a los obreros de esta industria a luchar unidos por un aumento salarial de 3.000 pesetas mensuales. En esta misma factoría, el día 8, con una plantilla de 257 obreros y 43 técnicos y

<sup>247</sup> Juan Jose Martínez Leundaren testigantza (*Frankismoa eta Transizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* izenekotik aterea). / Testimonio de Juan José Martínez Leunda (Extraído de *Frankismoa eta Transizioa Tolosaldean eta Leitzaldean*).

<sup>248</sup> 551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1972. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c 3677/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1972” AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1.

<sup>249</sup> 551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1973. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c 3678/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1973” AHPG; Gobierno Civil; c. 3678/0/1.



lantalde batekin, goizeko 6:00etatik 14:00etarako txandan lan egiten zuten langileetako 30 langilek etenaldia egin zuten. Gauza bera egin zuten egun bereko goizeko 08:00etan, hain zuzen, 08:00-12:00 bitarteko txanda moztuan lan egiten zuten 190 langileek, aipatu soldata-igoera eskatzeko. Etenaldi-egoera hori hilaren 10eko 11:00ak arte mantendu zen. Orduan egindako eskaerak onartu zitzaizkien, eta berriro lanera itzuli ziren inolako gorabeherarik gabe. Soldata hilean 3.000 pezeta igotzeko eskaera hura Tolosako beste bi fabriketara ere hedatu zen: *Metalúrgicas Sagastibelza* eta *S.A.M.* fabrika. Lehenengoan enpresako 38 langile etenaldian egon ziren “besoak gurutzatuta”. Hilaren 22an, goizez, lanera itzuli ziren haietako 26, eta gainerako 12 langileak hilaren 29an itzuli ziren lanera. *S.A.M.* sozietatean lantaldea 230 langilek osatzen zuten eta bi orduko plantoak egin ziren hilaren 26tik 29ra. Abenduan *Voith-Tolosa* enpresan egin ziren mobilizazioak soldata-igoera baten alde. Fabrika hartako 130 langileetako 82 etenaldian egon ziren hilaren 6ko lanaldiaren erditik hilaren 10eko 14:00ak arte<sup>250</sup>.

Tolosako lan-gatazkei buruzko datuak 1973an zehar Poliziaren Gorputz Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Probintziako Brigadaren arabera<sup>251</sup>.

- Gatazkan ziren enpresak: 21
- Eragindako langile kopurua: 11.195
- Ikerketa Sozialerako Brigadaren esku-hartzearen ondorioz Gobernuak ipinitako zehapenak: 406.000 pezeta.
- Atxilotetak: 42
- Indar armatuen esku-hartzeak lehenengo eskakizunean fabrika hustuz: 3

1974ko maiatza eta ekaina bitartean Tolosan egindako greba orokorreari dagokienez, Gipuzkoako gobernadore zibilak Langile Batzordeak nahiz ORT alderdia ipini zituen arduradun modura bere urteko memorian, eta baita tokiko apaizgoa ere<sup>252</sup>. Halaxe da, *Winkler* eta *Emua* enpresetako lan-gatazkek Gipuzkoa osoan izan zuten eragina, batez ere kaleratuak eta atxilotuak berriro onartzea lortu zenez geroztik. ORT eta CCOO izan ziren bi gatazka horietan bi erakunde aktiboak. Ekainaren 8an CCOO sindikatuak Tolosako herritarrei *Emua* enpresatik kaleratutako 4 langileekin elkartasuna adierazteko eskatu zien informazio-orriak banatuz. Egun hartatik eta hilaren 12 bitartean, manifestaldi ugari egin ziren San Francisco etorbidean eta inguruko kaleetan barna, ez soilik *Emua* enpresako langileen egoera zela eta haien babe-

administrativos, 30 de los primeros que trabajaban en el turno de 6:00 a 14:00 horas se declararon en paro, postura que adoptaron a las 8:00 horas del mismo día los 190 obreros del turno partido de 8:00 a 12:00 horas, en demanda del aumento salarial citado. Esta situación de paro se mantuvo hasta las 11:00 horas del día 10, en el que al serles concedidas las peticiones que tenían formuladas, se reintegraron al trabajo sin incidentes. Esta petición del aumento del salario en 3.000 pesetas mensuales se extendió a otras dos factorías de Tolosa: *Metalúrgicas Sagastibelza* y la *S.A.M.* En la primera de ellas los 38 trabajadores de la empresa se mantuvieron en paro de “brazos caídos”. En la mañana del día 22 reanudaron el trabajo 26 de éstos, haciéndolo los 12 restantes el día 29. En *S.A.M.*, con 230 obreros en plantilla, desde el día 26 al 29 se efectuaron plantes de dos horas. En el mes de diciembre fue la empresa *Voith-Tolosa* en la que se registraron movilizaciones en favor de un aumento salarial. 82 de los 130 obreros de esta factoría se mantuvieron en paro desde mediada la jornada del día 6 hasta las 14:00 horas del día 10<sup>250</sup>.

Datos relativos a conflictos laborales en Tolosa durante 1973 según la Brigada Provincial de Investigación Social del Cuerpo General de Policía<sup>251</sup>.

- Empresas en conflicto: 21
- Nº de obreros a quienes afectó: 11.195
- Sanciones gubernativas por intervención de la Brigada de Investigación Social: 406.000ptas.
- Detenciones practicadas: 42
- Intervención de la fuerza armada con desaloje de fábrica al primer requerimiento: 3

En cuanto a las huelgas generalizadas ocurridas en la Tolosa entre los meses de mayo y junio de 1974, el gobernador civil de Gipuzkoa responsabilizó en su memoria anual tanto a las Comisiones Obreras y a ORT, como a el clero local<sup>252</sup>. Efectivamente, los conflictos laborales de *Winkler* y *Emua* tuvieron repercusión en toda Gipuzkoa, sobre todo a partir de conseguir la readmisión de los despedidos y detenidos. ORT y CCOO fueron las dos organizaciones más activas en estos dos conflictos. El 8 de junio CCOO pedían al pueblo tolosarra solidarizarse con los 4 trabajadores de *Emua* despedidos a través del reparto de hojas informativas. Entre ese día y el 12 se celebraron varias manifestaciones en el paseo de San Francisco y calles adyacentes, en apoyo no sólo de la situación de los obreros de *Emua* sino de forma generalizada como protesta

<sup>250</sup> “551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1973. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3678/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1973” AHPG; Gobierno Civil; c. 3678/0/1.

<sup>251</sup> “Poliziaren Gorputz Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Probintziako Brigada; 1973. urtean zehar burututako jarduera politiko eta subertsibo klandestinoen memoria” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3678/0/1. / “Brigada Provincial de Investigación Social del Cuerpo General de Policía; Memoria de actividades políticas y subversivas clandestinas realizadas durante el año 1973” AHPG; Gobierno Civil; c. 3678/0/1.

<sup>252</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1974. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3679/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1974”. AHPG; Gobierno Civil; c.

sean, baizik eta orokorrean Tolosan industriaren sektoreak bizi zuen egoeratik protesta eginez. Halaber, Andra Maria parrokia-elizan itxialdiak egin ziren eta, guztira, 29 pertsona atxilotu zituzten. “Tolosako herritarrei” nahiz Gipuzkoako langileei egindako deialdien ondorioz ohiko aldarriak ikus zitekeen, nagusiki, CCOO, ORT eta MEC sindikatu edo alderdiek banatu eta egindako orri, kartel eta pintaketetan. Ekainaren 27an artefaktu bat lehertu zen udalerriko *Sindikatu Bertikalaren* egoitzan, eta hilaren 28an ezezagun talde batek *Emua* enpresako gerenteak, Francisco Arozenak, Donostian zuen etxebizitzari su eman zion, molotov-koktelak jaurtita<sup>253</sup>. Ekainaren 20an beste lan-gatazka bat izan zen ur eta argiaren udan enpresan. 18 langileetatik 12k etenaldia egin zuten. Haatik, alkatearekin, zentralako gerentearekin eta Sindikatuko eskualdeko ordezkariarekin elkartu ondoren, langileak egun hartan bertan itzuli ziren berriro lanera<sup>254</sup>.

aniversario del proceso de Burgos, el movimiento comunista en Tolosa, tal y como hemos visto con anterioridad, tuvo capacidad para implicar al mundo obrero en numerosos paros laborales. En la calle, “atendiendo a las consignas de propaganda editada por diversas fracciones del Partido Comunista Vasco”, sobre las 18:30 horas del 3 de diciembre se reunieron en la calle San Francisco unas 150 personas, los cuales se disgregaron ante la intervención de la Guardia Civil. Al dispersarse, varios grupos aislados lograron obstaculizar la circulación en la carretera N-1, cruzando algunos vehículos y volcando incluso uno de ellos. Sobre las 21:00 horas la Guardia Civil dio por apaciguada la localidad<sup>290</sup>.

<sup>290</sup> “Ibidem. / Ibid.

Burgoseko epaiketarekin lotutako ekintzak ez ezik, 1971. urtearen amaieran udalerrian areagotu egin ziren banku-erakundeen aurkako sabotaje eta lapurretak; haatik, Gipuzkoako Gobernu Zibilak urte hartako bere memorian adierazi zuenez, ordura arte, 1971. urtearen amaiera bitartean, gorabehera gutxi erregistratu ziren<sup>291</sup>. ETA erakundearen kasuan, itxurazko jarduerarik eza horren arrazoiak erakundearen barnean izandako banaketak eta desegin-dako komandoak ziren Guardia Zibilaren arabera. EAJ alderdiari dagokionez, aurreko txostenetan bezala, balizko etenaldi hori ez zela egiazkoa ohartarazten zuten, izan ere, jeltzaleen jardura “nagusiki Eskualdeko bizitza publikoko estamentu guztietan zenbait postu edo maila pixkanaka igotzera zegoen bideratua, ondoren, bere garaian, askapenaren eta independentziaren helburuak lortzeko”<sup>292</sup>.

Aitzitik, Guardia Zibilak 1972an bestelako ustea zuen aurreko urtearekin alderatuz, izan ere, gobernadore zibilari jakinarazten zionez “ez da hilabete bakarra igaro, azaroa salbuetsita, Pro-bintzian sabotaje, lapurreta, bahiketa edo atentatu terroristarik gabe, gehienak ETA erakundeko V. Asanbladako fakzioko militantek burutuak, gure zaintza-zerbitzuei izkin eginez”<sup>293</sup>. Tolosan sona handiena izan zuen ekintza, zalantzarik gabe, apirilaren 2an, goiztirian, burututakoa izan zen, *Eroriei Monumentua* leherrarazi zutenean. Ekintza haren ondorioz hurrengo asteetan Polizia Armatua sarritan agertu zen Tolosan. Apirilaren 16an Donostiatik Tolosara Banderaren 63. bi sekzio irten ziren kapitainaren atzetik, egun hartan *Eroriei Monumentua* zela eta deiturik zegoen irain-ordainerako ekintzara bertaratzen zirenen aurkako edozein ekintza saiheste aldera. Beste ekintza subertsibo adierazgarri bat abenduaren 6koa izan zen, Tolosako Ordezkaritza Sindikala lehergailuekin eraso zutenean. Goizeko 10:40ak aldera, 5 pertsona sartu ziren eraikinerako pistolekin armatuta. Bertan zirenei ETA erakundeko kideak zirela eta lokala utzi egin beharko zutela jakinarazi ostean, gasolina isuri eta su eman zioten<sup>294</sup>. Ekintza hark kalte materialak baino ez zituen sortu, eta Irun, Hernani eta Erreterian errepikatu egin ziren halako ekintzak<sup>295</sup>. Ekintza horiez gain, Guardia Zibilak propaganda andana atzeman zuen Tolosan. Martxoan, *Aberri Egunaren* ospakizuna aipatzen zen funtsean panfleto, orri eta karteletan. Guztiak, nagusiki, ETA eta EGI erakundeek editatuak. Maiatzarean Taren bezperan, ordea, oposizioaren propaganda gehiena Comisiones Obreras, UGT eta PSOE erakundeek banatu zuten, “Llamamiento a los trabajadores

Además de las acciones relacionadas con el juicio de Burgos, a finales de 1971 se registró en el municipio un aumento de sabotajes y atracos a entidades bancarias; si bien, el Gobierno Civil de Gipuzkoa señalaba en su memoria de aquel año que hasta entonces, hasta finales de 1971, se habían registrado escasos incidentes<sup>291</sup>. Esta aparente inactividad, en el caso de ETA, la Guardia Civil lo achacaba a las diferentes escisiones registradas en la organización y la desarticulación de comandos. Con respecto al PNV, volvían a advertir como en informes anteriores que esa supuesta quietud no era real puesto que la actividad jeltzale “se halla orientada principalmente al copo gradual de una serie de puestos o escalones en todos los estamentos de la vida pública de la Región, que les sirvan en su día de trampolín desde el que poder saltar a la consecución de sus propósitos de liberación e independencia.”<sup>292</sup>.

En cambio, la percepción que la Guardia Civil tenía para 1972 era diferente a la del año anterior, ya que según informaba al gobernador civil “no haya transcurrido un solo mes, si se exceptúa el de noviembre, en el que no se haya registrado en la Provincia alguna acción terrorista de sabotaje, atracos, secuestros, atentados etc., que, perpetrados en su mayor parte por militantes de la fracción ETA Vª Asamblea, han sorprendido y conseguido burlar nuestros servicios de vigilancia”<sup>293</sup>. La acción más sonada en Tolosa fue sin duda la voladura del *Monumento a los Caídos* en la madrugada del 2 de abril. Esta acción motivó la presencia de la Policía Armada en Tolosa en repetidas ocasiones durante las semanas siguientes. En la jornada del 16 de abril salieron desde Donostia hacia Tolosa dos secciones de la 63ª Bandera al mando de un capitán, con el fin de impedir cualquier acción contra los asistentes al acto de desagravio al *Monumento a los Caídos* convocado para ese día. Otro acto subversivo de relevancia fue el ataque con explosivos a la Delegación Sindical de Tolosa el 6 de diciembre. Sobre las 10:40 horas penetraron en el edificio 5 individuos armados con pistola, que después de hacer saber a los reunidos que pertenecían a ETA y que debían abandonar el local, rociaron éste con gasolina y le prendieron fuego<sup>294</sup>. Esta acción tan sólo causó desperfectos materiales, y se repitió en las localidades de Irun, Hernani y Rentería<sup>295</sup>. Además de estas acciones, la Guardia Civil se hizo en Tolosa con abundante propaganda. En el mes de marzo, el motivo fundamental al que aludían octavillas, hojas y carteles fue la celebración del *Aberri Eguna*. Todas ellas editadas fundamentalmente por ETA y EGI. En vísperas del 1º de mayo, en cambio, la mayor parte de la propaganda oposi-

<sup>291</sup> “Gipuzkoako Gobernu Zibila. 1971. urteari dagokion memoria”. GPAH; Gobernu Zibila, c. 3677/0/1. / “Gobierno Civil de Guipúzcoa. Memoria correspondiente al año 1971”. AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1.

<sup>292</sup> “551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1971. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3677/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1971” AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1.

<sup>293</sup> “551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1972. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3677/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1972” AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1.

<sup>294</sup> *Ibidem.* / *Ibid.*

<sup>295</sup> “Polizia Armatua. Donostiako 63. Bandera Mugikorra. 1972. urteko jardueren laburpena”. GPAH; Gobernu Zibila; c. 3677/0/1. / “Policía Armada. 63ª Bandera Móvil de San Sebastián. Resumen de actividades del año 1972” AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1.



de Guipuzcoa”, “Trabajadores, amas de casa, estudiantes, pueblo oprimido del Goyeri”, “Por un 1º de mayo de combate en la vía de nuevo Burgos”, edo “Llamamiento a la clase trabajadora y pueblo guipuzcoano” izenburupean<sup>296</sup>. Abenduan, bestalde, Estatuko oposizio komunistak nahiz mugimendu independentistak Burgoseko prozesua oroitarazi zuten. Azkenik, aipatu behar da 1972ko ekainean errebeldia-ekintza bat gertatu zela erregimenaren aurka tokiko apaizgoaren aldetik, izan ere, Gorpuzti Egunaren ospakizunean Guardia Zibilaren presentzia ukatu zuen, ohikoa zen moduan<sup>297</sup>.

1973. urtean gatazka areagotu egin zen eta ETA erakunde erakunde subertsibo aktiboena eta baliabide gehien zituena zela irizten zen, “hala eta guztiz ere zenbait sektoreen kontrola eskuratzeko ez duelarik, esate baterako, lan-sektorea, egungo Estatuaren aurka egiten duten erakunde guztien baterako helburua izaten jarraitzen duena”<sup>298</sup>. Lan-eremuan, Guardia Zibilak ETA erakundearen VI. Asanblada eta MCE alderdia zituen jomugan, eragin gehien zuten erakunde modura, ORT eta CCOO sindikatuarekin batera. Urte hartako maiatzaren lehena Gipuzkoako komunistek, batez ere, M.C.E. eta ETA erakundeetako kide zirenek, erregimena astinduko zuten borroka-egun modura planteatu zuten, nahiz eta Guardia Zibilaren ustez “sekulako porrota izan zen erakunde horientzat Euzko Alderdi Jeltzalearen abstentzioarekin”. Egun hartan lan-etenaldiak eta manifestaldiak izan ziren lurraldeko gune askotan. Tolosan, 20:45ak aldera, aparkatutako ibilgailu baten azpian kokatutako indar urriko petardo bat lehertu zen, atzeko gurpil batean, ihes-hodian eta alde bereko hegal batean kalte arinak eragin zituen. Geroago, 21:00ak aldera, hainbat gazte San Francisco etorbidean trafikoa eteten saiatu ziren, Guardia Zibila azaldu zenean ihes egin zutelarik. Haatik, J.M.I.A. tolosarra atxilotu zuten eta haren aurka diligentziak ireki zituzten eta gobernadore zibilaren ardurapean utzi zuten<sup>299</sup>.

Edozein kasutan, abenduaren 20an Gobernuak presidentea zen Carrero Blanco almirantearen aurkako atentatu hilgarria izan zen 1974. urtean talde inkonformisten ekintza markatu zuena. Urte hartan erregimenaren aurkako oposizioak Gipuzkoako gizarte elementu guztiak inplikatu nahi zituen itxuraz, langileetatik hasi eta elkargo ofizialeteraino iritsiz, unibertsitate eta kultura-elkarteetan ere eragiteko asmoz. Oposizio hartan erakunde nazionalistak ziren gehienago. Halaxe, 1974. urtean Tolosan indarkeriazko ekintzak areagotu egin ziren. Ekintza horietako askotan eragileak Espainiako talde ezkertiarak izan ziren (esate baterako, ekainaren 27an Sindikatu Bertikalaren egoitzan

tora fue emitida por Comisiones Obreras, UGT y PSOE, con títulos como “Llamamiento a los trabajadores de Guipuzcoa”, “Trabajadores, amas de casa, estudiantes, pueblo oprimido del Goyeri”, “Por un 1º de mayo de combate en la vía de nuevo Burgos”, o “Llamamiento a la clase trabajadora y pueblo guipuzcoano”<sup>296</sup>. En diciembre, por su parte, tanto la oposición comunista de carácter estatal como el movimiento independentista volvieron a recordar el proceso de Burgos. Por último, cabe señalar que en junio de 1972 se produjo un acto de rebeldía contra el régimen por parte del clero local, el cual rechazó la presencia de la Guardia Civil en la celebración del Corpus Christi, tal y como era habitual<sup>297</sup>.

En 1973 la conflictividad no hizo más que aumentar, siendo considerada ETA como la organización subversiva más activa y con mayor número de recursos, “a pesar de todo lo cual no llega a conseguir el control de ciertos sectores como el laboral que sigue siendo objetivo común de todas las organizaciones que se enfrentan al actual Estado”<sup>298</sup>. En el mundo del trabajo, la Guardia Civil apuntaba a las organizaciones ETA VIª Asamblea y MCE como las más influyentes, además de ORT y CCOO. El 1º de mayo de aquel año los comunistas guipuzcoanos, especialmente los integrados en el M.C.E., y ETA, lo habían planteado como una jornada de lucha que hiciera tambalear al régimen, aunque para la Guardia Civil “constituyó un rotundo fracaso para los organizadores ante la abstención del Partido Nacionalista Vasco”. Aquel día, se llevaron a cabo paros laborales y manifestaciones en gran parte del territorio. En Tolosa, sobre las 20:45 horas hizo explosión un petardo de escasa potencia colocado bajo un vehículo aparcado, al que causó daños de escaso valor en una rueda trasera, el tubo de escape y una aleta del mismo costado. Posteriormente, sobre las 21:00 horas, un grupo de jóvenes trató de interrumpir el tráfico en el Paseo San Francisco, dándose a la fuga ante la presencia de la Guardia Civil, quien detuvo al tolosarra J.M.I.A., abriéndose contra él diligencias y siendo puesto a disposición del gobernador civil<sup>299</sup>.

En cualquier caso, el atentado mortal del 20 de diciembre contra el presidente del Gobierno, el almirante Carrero Blanco, marcará la actuación de los grupos subversivos durante 1974, año en el que la oposición al régimen parece implicar a todos los elementos de la sociedad guipuzcoana, desde la clase obrera a los colegios de profesionales, pasando por centros universitarios y asociaciones culturales, con un predominio claro de las organizaciones nacionalistas. Efectivamente, las acciones de carácter violento en Tolosa se acrecentarán en 1974, acciones en las que las autorías de varias de ellas correspondieron a grupos de izquierda españoles (tales

<sup>296</sup> “551. komandantiako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1972. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c 3677/0/1 / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1972” AHPG; Gobierno Civil; c. 3677/0/1.

<sup>297</sup> *Ibidem.* / *Ibid.*


<sup>298</sup> “551. komandantiako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1973. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c 3678/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1973” AHPG; Gobierno Civil; c. 3678/0/1.

<sup>299</sup> *Ibidem.* / *Ibid.*



izandako leherketa) eta, horrenbestez, ez ziren soilik militante independentisten ekintzak izan. Espazio publikoan izandako gatazka-igoera horren ondorioz, ekainean gutxienez hiru bider, eta abenduan beste behin, hilaren 11rako deitutako borroka-eguna zela eta, Polizia Armatuko 63. Banderaren 5. Konpainia Mugikorren sekzio ugari Tolosan azaldu ziren<sup>300</sup>.

como la citada explosión en la sede del Sindicato Vertical el 27 de junio), y por lo tanto no sólo a militantes independentistas. Este aumento de la conflictividad en el espacio público provocó que en junio, en al menos tres ocasiones, y en una ocasión en diciembre con motivo de la jornada de lucha convocada para la jornada del 11, varias secciones de la 5ª Compañía Móvil de la 63ª Bandera de la Policía Armada se desplazara a Tolosa<sup>300</sup>.



Atentatua Tolosako Sindikatu Etxearen aurka. 1974 / Atentado contra la Casa Sindical de Tolosa. 1974. (ABC, 1974ko ekainaren 29 / ABC, 29 de junio de 1974).

Apirilaren 4an hiru ezezagunek, “horietako bat arma batekin, zenbait lekukoren arabera”, Tolosako Rondilla kalean Vicente Eizmendi bere jabetzan zuen arma-dentatik ehizerako 23 eskopeta lapurtu zituzten. Handik hilabete batzuetara, hain justu, abenduaren 6an, FOP indarrek 3 eskopeta atzeman zizkien Donostian atxilotutako ustezko ETA erakundeko zenbait kideri<sup>301</sup>. Maiatzaren 1a zela eta, manifestaldian CCOO sindikatuaren propaganda ze-

El 4 de abril tres desconocidos, “uno de ellos armado según algunos testigos”, robaron de la armería propiedad de Vicente Eizmendi en la calle Rondilla de Tolosa 23 escopetas de caza. Meses más tarde, concretamente el 6 de diciembre, las FOP incautaron 3 de esas escopetas a supuestos miembros de ETA detenidos en Donostia<sup>301</sup>. Con motivo del 1º de mayo un grupo de manifestantes que portaba propaganda de CCOO lanzó varios cócteles molotov

<sup>300</sup> “Polizia Armatua. Donostiako 63. Bandera Mugikorra. 1974. urteko jardueren laburpena”. GPAH; Gobernu Zibila; c 3679/0/1. / “Policía Armada. 63ª Bandera Móvil de San Sebastián. Resumen de actividades del año 1974” AHPG; Gobierno Civil; c. 3679/0/1.

<sup>301</sup> ABC, 1974ko apirilak 5. / ABC, 5 de abril de 1974.

ramaten zenbait pertsonak molotov-koktelak jaurti zituzten Udal Aurrezki Kutxaren eta Bizkaiko Bankuaren aurka, hiru pertsonak “erredurak eta asfisia-sintomak” pairatu zituztelarik<sup>302</sup>. Zaurituak, 6 eta 8 urteko bi mutiko eta 38 urteko gizon bat, bankua hartzen zuen higiezinaren goiko solairuetan bizi ziren auzotarrak ziren, sua goiko solairuetara hedatu zenean zauritu zirelarik<sup>303</sup>. Beranduago, N-1 errepidean kate bat ipini zuten, Guardia Zibila iritsi zen arte zirkulazioa etenik mantenduz. *Aberri Eguna* zela eta, Uzturre mendian ikurrina bat ipini zuten, bandera hura lehergailu batekin konektatuta zegoela simulatuz. Maiatzaren 12an eta 26an probintziako hainbat fabriketan, besteak beste, Elduaien paper-fabriketan, dei anonimoak jaso ziren, ustez lehergailuak ipini zirelako enpresa husteko adieraziz. Ekainaren 8an, 20:30ak aldera, 180 pertsonaz osatutako talde bat Plaza Berrian elkartu zen, eta Pablo Gorosabel kalean barna ekin zioten bideari isiltasun osoan, Guardia Zibila azaldu zenean sakabanatu zirelarik. Guardia Zibilak CCOO sindikatuak sinatutako propaganda-orriak atzeman zituen, kaleratutako udalerriko langileekiko elkartasuna adierazten zutenak. Jadanik urriar, Tolosan LCR-ETA VI erakundeko bi militante hernaniar atxilotu zituzten eta horiei atzemanak izan ziren “propaganda klandestino ugari eta anitza, esanahi bereko idatzizko oharrak eta aparteko bi pakete edo karpetatzen 30.000 eta 45.000 pezeta; haien adierazpenen ondotik beste zenbait identifikatu zituztelarik, beren etxeetatik ihes egin zutenak”. Atxiloketa horien hurrengo egunean, urriaren 19an, 40 gazte manifestaldi bat abiatzen saiatu ziren, baina Guardia Zibila iritsi aurretik sakabanatu ziren. Hala, Guardia Zibilak ORT eta MCE ikurrak zituen bandera komunista bat atzeman zuen, Nafarroako Zubi izenekoan ipini zuten kate batekin batera. Azaroaren 4an Guardia Zibilak J.C.Z.L. tolosarra atxilotu zuen, ostalaritza-establezimendu batera CCOO sindikatuaren propaganda botatzen ari zenean. “Norbanako haren adierazpenen ondorioz, berekin zegoen [J.L.T.] atxilotu eta propaganda helarazi zien pertsona identifikatu zuten, hots, [M.M.S.L], Lazcanoren atxiloketaren egunean etxean ez zegoena”. Atxilotua torturatu egin zuten eta ondoren Ordena Publikoaren Epaitegiak epaitu zuen. Jadanik abenduan, hilaren 11rako erakunde ezkertiarrek deitutako borroka-eguna hogeita hamar gazteren atxiloketarekin amaitu zen, N-1 errepidean zirkulazioa moztea lortu zuen protesta batean parte hartu ondotik. Hurrengo egunean 9 pertsona atxilotu zituzten Emua enpresan protesta batean parte hartzeagatik. Hilaren 17an Gipuzkoako Plazan kokatzen zen *Guernica* etxetresna izenekoan lehergailu bat zartarazi zuten, eta hilaren 21ean 50 gazte manifestaldi-saiakera egin zuten Gorosabel kalean, Guardia Zibila agertu aurretik sakabanatu baziren ere<sup>304</sup>.

contra la Caja de Ahorros Municipal y Banco de Vizcaya, provocando a tres personas “quemaduras y síntomas de asfisia”<sup>302</sup>. Los afectados, dos niños de 6 y 8 años y un varón de 38, eran vecinos de los pisos superiores del inmueble donde se encontraba el banco, heridos al propagarse el incendio hacia las plantas superiores<sup>303</sup>. Posteriormente, fue colocada una cadena en la carretera N-1, cortando la circulación hasta la llegada de la Guardia Civil. Con motivo del *Aberri Eguna* se colocó una ikurriña en el monte Uzturre, simulando la conexión de esta bandera a un artefacto explosivo. Durante los días 12 y 26 de mayo varias factorías de la provincia, entre ellas la papelera de Elduaien, recibieron anónimos en los que se llamaba a desalojar las empresas ante la supuesta colocación de artefactos explosivos. El 8 de junio sobre las 20:30 horas, un grupo de unas 180 personas se concentró en la Plaza Nueva, emprendiendo la marcha por la calle Pablo Gorosabel en completo silencio, disolviéndose ante la presencia de la Guardia Civil, la cual incautó hojas de propaganda suscritas por las CCOO en las que se pedía solidaridad con los trabajadores del municipio despedidos. Ya en el mes de octubre fueron detenidos en Tolosa dos vecinos de Hernani militantes de LCR-ETA VI, a los que se les incautó “abundante y variada propaganda clandestina, apuntes manuscritos de igual significación y en dos paquetes o carpetas distintas 30.000 y 45.000 pesetas, derivándose de sus manifestaciones la identificación de otros tantos que huyeron de sus domicilios”. Al día siguiente de estas detenciones, el 19 de octubre, 40 jóvenes iniciaron un conato de manifestación, disgregándose antes de que llegara la Guardia Civil, la cual se hizo con una bandera comunista con las siglas ORT y MCE, y con una cadena que había sido cruzada en el llamado Puente de Navarra. El 4 de noviembre la Guardia Civil detuvo al vecino de Tolosa J.C.Z.L. en el momento en el que arrojaba propaganda de CCOO en el interior de un establecimiento hostelero. “Derivado de las manifestaciones de este individuo, se consiguió la detención de su acompañante [J.L.T.] y la identificación del que les hizo entrega de la misma, que resultó ser [M.M.S.L], que el día de la detención de Lazcano falta de su domicilio.” El detenido fue torturado y posteriormente fue juzgado por el Tribunal de Orden Público. Ya en el mes de diciembre, la jornada de lucha convocada por las organizaciones de izquierdas para el día 11 finalizó con la detención de una treintena de jóvenes tras participar en una protesta que consiguió cortar la circulación de la N-1. En la jornada siguiente 9 personas fueron detenidas al participar en una protesta en la empresa Emua. El 17 hizo explosión en el establecimiento de electrodomésticos *Guernica*, situado en la Plaza Guipúzcoa, y el 21 unos 50 jóvenes iniciaron un conato de manifestación en la calle Gorosabel, dispersándose ante la presencia de la Guardia Civil<sup>304</sup>.

<sup>302</sup> “Poliziaren Gorputz Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Probintziako Brigada; 1974. urtean zehar burututako jarduera politiko eta subertsibo klandestinoen memoria” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3679/0/1. / “Brigada Provincial de Investigación Social del Cuerpo General de Policía; Memoria de actividades políticas y subversivas clandestinas realizadas durante el año 1974” AHPG; Gobierno Civil; c. 3679/0/1.

<sup>303</sup> ABC, 1974ko maiatzak 3 // ABC, 1974ko abenduak 7. / ABC, 3 de mayo de 1974 // ABC, 7 de diciembre de 1974.

<sup>304</sup> “551. komandantiako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1974. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c. 3679/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1974” AHPG; Gobierno Civil; c. 3679/0/1.



Uzturren jarritako ikurriña. Gudari, 44. 1968 / Ikurriña colocada en Uzturre. Gudari, nº 44. 1968. (Lazkaoko aita beneditarren artxiboa / Archivo de los padres benedictinos de Lazkao).

1975. urtea urtarrilaren lehenean egindako manifestaldi batekin hasi zen. Manifestaldi hartan 200 pertonek hartu zuten parte, baina berehala sakabanatu zuen Guardia Zibilak, eta 5 pertsona atxilotzeaz gain, CCOO sindikatuari zegokion propaganda atzetan zuen. Urtarrilaren 17an eta 18an, berriz ere, Estatuko indar ezkertiarak (CCOO, ORT eta MCE nagusiki) izan ziren ehunka langile mobilizatu zituztenak kaleratuen eta atxilotuen alde babesa agertzeko. Plaza Berrian nahiz Gorosabel kalean izandako manifestaldiak FOP indarrek desegin zituzten “askatasuna eta eraileak oihuak entzuten ziren bitartean”. Urteko lehendabiziko hiru hilabeteetan Polizia Armatua hamaika bider bertaratu zen udalerrira, herrian, gehienbat lan-gatazkekin lotuta, egindako protesta eta ekintza inkonformista ugarien aurka intimidazio eta jazarpeneko neurri gisa.

Otsailaren 28an Guardia Zibilak Jose Martín Zubillaga Carrera “Zapa” atxilotu zuen Tolosan, ETA erakundearen V. Asanbladaren barruan zenbait jarduera garatzea, Urkizun (Tolosa) dinamita lapurtzea, Tolosako Eroriei Monumentua zartaraztea eta Itsasondoko udal-barrutian txalet bati su ematea leporatuta<sup>305</sup>. Martxoaren amaieran hainbat manifestaldi-saiaketa egin ziren *Aberri Eguna*

1975 comenzó con una manifestación el primero de enero, en la que participaron unas 200 personas, y que inmediatamente fue disuelta por la Guardia Civil, practicándose 5 detenciones e incautándose de propaganda perteneciente a CCOO. Los días 17 y 18 de enero son de nuevo las fuerzas de izquierda de carácter estatal (CCOO, ORT y MCE fundamentalmente) las que movilizaron a cientos de trabajadores en apoyo a los despedidos y detenidos. Las manifestaciones registradas tanto en la Plaza Nueva como en la calle Gorosabel fueron disueltas por las FOP, “al tiempo que se proferían gritos de libertad y asesinos”. En los tres primeros meses del año la Policía Armada se personó en la localidad hasta en once ocasiones, como medida intimidatoria y represora contra la multitud de protestas y acciones subversivas registradas en la localidad, mayoritariamente relacionadas con conflictos laborales.

El 28 de febrero la Guardia Civil detuvo en Tolosa a José Martín Zubillaga Carrera “Zapa”, acusado de desarrollar actividades en el seno de ETA V Asamblea, de ser el responsable del robo de dinamita en Urkizu (Tolosa), de la voladura del Monumento a los Caídos de Tolosa, e incendio de un chalet en el término municipal de Itsasondo<sup>305</sup>. A finales del mes de marzo se registraron varios conatos

<sup>305</sup> ABC, 1975eko martxoak 7. / ABC, 7 de marzo de 1975.



zela eta. Hilaren 27an, Tolosan, Erreterian eta Pasaian Guardia Zibilak udalerrri horietako gune ezberdinetan ipinitako ikurrinak kendu zituen. Hilaren 30ean, arratsaldean, L.A.I. eta J.A.A.A. tolosarrak atxilotu zituzten “legez kanpoko propaganda hedatzen saiatzegatik”<sup>306</sup>.

Apirilaren 25ean erregimenak salbuespen-egoera agindu zuen 3 hilabetez, 1974ko martxoan Salvador Puig Antich heriotza ekarri zuen heriotza-zigorren eta Jose Antonio Garmendia eta Angel Otaegiren aurka egitear ziren epaiketaren kontra diktaduraren aurkakoek abiatu zuten kanpaina zela medio. Maiatzaren lehenan, salbuespen-egoeraren aurkako pankarta bat eramateagatik, L.E.N. eta J.C.Z.L. atxilotu zituen Guardia Zibilak Tolosan. Hirugarren batek ihes egitea lortu zuen. Ekainean manifestaldi-saiakera ugari egin ziren Gipuzkoako hainbat herritan, Tolosan barne, salbuespen-egoera haren aurka protesta egiteko, Hego Euskal Herrian 1962az geroztik agintzen zen seigarrena. Eta uztailean Guardia Zibilak propaganda subertsibo ugari atzeman zuen, nagusiki ETA eta ORT erakundeek editatua; haatik, irailerako aurreikusitako gerra-kontseiluaren aurka LCR-ETA VI, MCE, Alderdi Karlista, PC Euskadi, eta PSOE, nahiz langileen batzordeek ere egin zuten halako propaganda, “Salvemos a Garmendia y Otaegui, todos a la Huelga General” irakur zitekeelarik. Hilaren 28an F.S.S. atxilotu zuten Tolosan, diktaduraren aurkako liburuz eta propagandaz beteriko pakete ugari zeramatzan bitartean. Abuztua eta azaroaren hasiera bitartean udalerrri horretan gutxienez 42 pertsona atxilotu zituzten, gehienak ETA eta ORT erakundeetakoak. Azaroaren 29an beste 16 pertsona atxilotu zituzten.

de manifestación con motivo del *Aberri Eguna*. El día 27, tanto en Tolosa como en Rentería y Pasaia, la Guardia Civil procedió a la retirada de ikurriñas colocadas en diversos puntos de estos municipios. En la tarde del 30, fueron detenidos los vecinos de Tolosa, L.A.I. y J.A.A.A., “por intento de difusión de propaganda ilegal”<sup>306</sup>.

El 25 de abril el régimen dictó el estado de excepción con vigencia de 3 meses con motivo de la campaña que la oposición a la dictadura estaba llevando a cabo contra las condenas de muerte que en marzo de 1974 había acabado con la vida de Salvador Puig Antich, y el inminente juicio contra José Antonio Garmendia y Ángel Otaegi. El 1 de mayo, por llevar una pancarta contra el estado de excepción, fueron detenidos en Tolosa por la Guardia Civil L.E.N. y J.C.Z.L. Un tercero logró escapar. En junio se produjeron varios conatos de manifestación en diferentes localidades de Gipuzkoa, incluida Tolosa, en protesta por el nuevo estado de excepción, el sexto que afectaba a Hego Euskal Herria desde 1962. Y durante el mes de julio la Guardia Civil se hizo con abundante propaganda subversiva, editada principalmente por las organizaciones ETA y ORT, además de LCR-ETA VI, MCE, P. Carlista, PC Euskadi, y PSOE, así como comités obreros, contrarias al consejo de guerra previsto para septiembre, en las que se decía “Salvemos a Garmendia y Otaegui, todos a la Huelga General”. En la jornada del 28 fue detenido en Tolosa F.S.S. cuando portaba varios paquetes cuyo contenido eran libros y propaganda contraria a la dictadura. Entre agosto y comienzos de noviembre fueron detenidas en este municipio un mínimo de 42 personas, la mayor parte de ellas pertenecientes a las organizaciones ETA y ORT. El 29 de noviembre fueron 16 las personas detenidas.



Julia Alijostes.



Eduardo Osa.

<sup>306</sup> “551. komandantziako Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzua (GZIZ). 1975. urteko jarduera subertsibo, erlijiozko eta lanekoan laburpena” GPAH; Gobernu Zibila; c 3680/0/1. / “Servicio de Información de la Guardia Civil (SIGC) de la 551ª Comandancia. Resumen de actividades subversivas, religiosas y laborales del año 1975” AHPG; Gobierno Civil; c. 3680/0/1..



Abuztuaren 28an, Jose Antonio Garmendia eta Angel Otaegiren aurkako gerra-kontseiluaren hasierarako iragarritako greba orokorra zela eta, 63. Banderako kide ziren Polizia Armatuaren indar guztiak guardian izan ziren Donostiako kuartelean, eta baita RG 4. Konpainia ere. 7:15ean RG 2. konpainiako 3 sekzio irten ziren Eibar, Ordizia eta Tolosa aldera, azken biak 23:30ean itzuli zirelarik. Tolosan ezezagun ugari oztopoak ipini zituzten errepideetan, 2. Konpainiako 2. sekzioak esku hartu zuelarik, 3 pertsona atxilotuz. Hurrengo egunean 200 pertsona inguruk manifestaldia egin zuten, Polizia Armatuaren RG 4. Konpainiak jazarri zituelarik. Irailaren 4an zenbait ezezagun Tolosako Mugimenduaren Tokiko Buruzagitzaren lokaletan sartu ziren, eta zoruan gasolina isuri ondotik, su eman zioten. Eragindako kalte materialen balioa 400.000 pezetakoa izan zen. Hilabete beranduago, urriaren 4an, bi leherketa izan ziren lokal berean. Lehendabizikoa 00:30ean eta bigarrena 09:00an, kalte txikiak sorraziz<sup>307</sup>.

El 28 de agosto, con motivo de la huelga general anunciada para el comienzo del consejo de guerra contra José Antonio Garmendia y Ángel Otaegi, todas las fuerzas de la Policía Armada pertenecientes a la 63ª Bandera permanecieron de retén en el acuartelamiento de Donostia, así como la 4ª compañía RG. A las 7:15 horas salieron las 3 secciones de la 2ª compañía RG para las localidades de Eibar, Ordizia y Tolosa, regresando las dos últimas a las 23:30 horas. En Tolosa varios desconocidos colocaron barricadas en las carreteras, actuando la sección 2ª de la 2ª Compañía, practicándose 3 detenciones. Al día siguiente se manifestaron unas 200 personas, siendo reprimidas por la 4ª Compañía RG de la Policía Armada. El 4 de septiembre desconocidos penetraron en los locales de la jefatura local del Movimiento en Tolosa, y tras rociar el piso con gasolina, le prendieron fuego. Los daños materiales causados fueron valorados en 400.000 pesetas. Un mes más tarde, el 4 de octubre, se produjeron dos explosiones en ese mismo local, la primera de ella a las 00:30 horas y la segunda a las 09:00 horas, ocasionando daños de escasa consideración<sup>307</sup>.



Urbiako landetan egindako elkarretaratze nazionalista / Concentración nacionalista en las campas de Urbia. (Andoni Zinkunegi).

<sup>307</sup> ABC, 1975eko urriak 5. / ABC, 5 de octubre de 1975.

### 3.7. Errepresaliatuak

Diktadura frankistak disidentzia politikoaren aurka eragindako errepresioak funtsean bi bitarteko baliatu zituen Hego Euskal Herrian: polizia-gorputz ezberdinen eta auzitegien esku-hartzea, hala jurisdikzio militarren baitakoena nola jurisdikzio zibilaren baitakoena. polizia-gorputzei dagokienez, diktadurak erregimenaren hiru errepresio-indar nagusietako destakamentuak zituen Gipuzkoan. Poliziaren Gorputz Nagusia eskualdeko bere brigadaren eskutik, Polizia Armatua eta Guardia Zibila. Lehendabizikoari dagokionez, 1960an komisario-buruzagi batek, 5 komisariok, 4 inspektore-buruzagik, 1. mailako 11 inspektorek, 2. mailako 16 inspektorek, 3. mailako 16 inspektorek eta bulegoko 5 laguntzailek osatzen zuten lantaldea. Indar hori Donostia (egoitza nagusia), Irun eta Eibarreko Komisarietan banatzen zen, eta Hondarribian Ikuskaritza Zentro bat zuen. Haren errepresio-zereginak Brigada Kriminal, Sozial, eta Ordena Publiko eta Informaziokoan banatzen ziren funtsean. Paradigmatikoki, erregimenaren polizia politikoa zen, Gipuzkoako Gobernu Zibilaren baitan zegoena zuzenean. Polizia Armatua, bestalde, 63. Banderak ordezkatzen zuen Gipuzkoan, Bilbon egoitza zuen 6. zirkunskripzioaren mendekoa,

### 3.7. Los represaliados

La represión de la dictadura franquista contra la disidencia política en Hego Euskal Herria se sirvió fundamentalmente de dos medios: la actuación de los diferentes cuerpos policiales y los tribunales, tanto los dependientes de la jurisdicción militar como los de la jurisdicción civil. En cuanto a los cuerpos policiales en Gipuzkoa, la dictadura contaba en la provincia con destacamentos de las tres principales fuerzas represivas del régimen: Cuerpo General de Policía a través de su brigada regional, Policía Armada, y Guardia Civil. Con respecto al primero, la plantilla estaba compuesta en 1960 por 1 comisario-jefe, 5 comisarios, 4 inspectores-jefe, 11 inspectores de 1ª, 16 inspectores de 2ª, 16 inspectores de 3ª y 5 auxiliares de oficina. Esta fuerza se distribuía en las Comisaría de Donostia (sede principal) Irun y Eibar, y un Centro de Inspección en Hondarribia. Sus labores represivas se distribuían fundamentalmente en las brigadas de Criminal, Social, y Orden Público e Información. Era, de forma paradigmática, la policía política del régimen, la cual dependía directamente del Gobierno Civil de Gipuzkoa. La Policía Armada, por su parte, estaba representada en el territorio guipuzcoano por la 63ª Bandera, dependiente de la 6ª Circunscripción



Oltra Moltó gobernadorea beste hainbat pertsonarekin Eibarko armen industriari bisitan / El gobernador Oltra Moltó acompañado de diversas personas visitando una industria armera en la localidad de Eibar. (Kutxa Fototekako Artxiboa; Paco Mar argazkilaria / Archivo Kutxa Fototeka; fotógrafo Paco Mari).

zeina komandante-buruzagi batek, teniente laguntzaile batek, Lantalde Nagusiak, 3 sekziotako konpainia batek eta Irunen finkatutako beste hiru sekziok osatzen zutena. Motordun materialari dagokionez, 14 jeep eta 3 motozikleta zituzten, eta udal garaian beste 8-9 jeep gehiago, irratiz hornituta. Azkenik, Gipuzkoan 143. Komandantziak ordezkatzan zuten Guardia Zibila eta teniente-koronel batek, lehen buruzagi batek, 2 komandantek, 9 kapitainek, 19 tenientek, 29 brigadek, 41 sarjentuk, 114 kabok eta guardia zibileko 800 kidek osatzen zuten. Horiek ziren, Informazio Zerbitzuaren bidez (Poliziaren Gorputz Nagusiko Brigada Politiko eta Sozialeko kideen laguntzarekin batera) lanlekuetan eta erakunde politikoetan infiltratzen zirenak; eta ondoren atxiloteta gehienak egin eta manifestari, grebalari eta atxilotuen aurkako ekintza bortitzak gauzatzen zituztenak<sup>308</sup>.

Atxiloteta-zentroetan polizia-gorputz horietako funtzionario publikoek maiztasunez erabiltzen zuten tortura. Atxilotetak “at-zitze”<sup>309</sup> bilakatzen ziren, eta manifestaldi eta errepideetako kontrolatan izandako esku-hartzeen ondorioz hainbat lagun hil eta zauritu ziren, izan ere, funtsean aldarría “bortizki jardutea zen, armen erabilera batere mugatu gabe”<sup>310</sup>. Jose Antonio Saenz de Santa Mariak, oro har, Guardia Zibilaren inguruan gogorarazten duenez “hala poliziak nola Guardia Zibilak nahikoa erraz sakatzen zuten kakoa. Manifestaldiak tiroka desegiten zituzten eta oso ohikoa zen kaleak odolzetatuta amaitzea (...) Polizia armatua ez zegoen manifestaldietan ordena mantentzeko prestatuta, haiek erreprimitzeko baizik”<sup>311</sup>. 1968-1975 bitartean gutxienez erakunde armatuko 25 militante hil ziren “poliziaren errepresioak edo errepresio judizialeko ekintzek eraginda”<sup>312</sup>, eta 45 pertsona hil ziren poliziak manifestaldietan eragindako ekintzen ondorioz 1969-1977 bitartean<sup>313</sup>. Guztira, adierazitako muturreko bi data horien artean (1969 eta 1977) 113 pertsona hil ziren poliziaren ekintzen ondorioz<sup>314</sup>. 1968ko urtarrilaren 29an, Txabi Etxebarrieta Tolosan tiroz hil baino zenbait hilabete lehenago, Jose Maria Quesada Lasarte donostiarra zendu zen, 1962an Meliton Manzanasen agindupean Brigada Politiko eta Sozialak jasanarazi zizkion torturek utzitako arrastoen ondorioz. Espetxetik irten eta hurrengo urteetan hiru ebakuntza egin arren (bat belarria eta beste bi garunean), bere osasunak okerrera egin zuen eta, azkenik, hil egin zen<sup>315</sup>.

con sede en Bilbao, compuesta por 1 comandante-jefe, 1 teniente ayudante, Plana Mayor, una compañía de 3 secciones, y otra igualmente de tres secciones pero instalada en Irun. Con respecto al material motorizado, contaban con 14 jeeps y 3 motocicletas, y en la época estival entre 8 y 9 jeeps más con radio. Por último, la Guardia Civil en Gipuzkoa estaba representada por la 143ª Comandancia, cuyos efectivos eran 1 teniente-coronel, 1 primer-jefe, 2 comandantes, 9 capitanes, 19 tenientes, 29 brigadas, 41 sargentos, 114 cabos y 800 guardias civiles. Son estos, a través del Servicio de Información (además de los miembros de la Brigada Político Social del Cuerpo General de Policía), quienes se infiltraban en los centros de trabajo y en las organizaciones políticas; y los que posteriormente llevaron a cabo la mayor parte de detenciones y actuaciones violentas contra manifestantes, huelguistas y detenidos<sup>308</sup>.

La tortura en centros de detención fue una práctica habitual utilizada por los funcionarios públicos de estos cuerpos policiales. Las detenciones se convertían en “capturas”<sup>309</sup>, y sus intervenciones en manifestaciones y controles en carreteras causaron muertos y heridos, debido fundamentalmente a que la consigna era actuar “enérgicamente sin restringir lo más mínimo el empleo de sus armas”<sup>310</sup>. Como recordara en general de la Guardia Civil José Antonio Sáenz de Santa María, “tanto la policía como la Guardia Civil apretaban el gatillo con bastante facilidad. Las manifestaciones solían ser disueltas a tiro limpio y era muy frecuente que acabasen con las calles ensangrentadas (...) La policía armada no estaba preparada para mantener el orden en las manifestaciones sino para reprimirlas”<sup>311</sup>. Entre 1968 y 1975 un mínimo de 25 militantes de organizaciones armadas murieron en “acciones de represión policial o judicial”<sup>312</sup>, y 45 personas fallecieron como resultado de actuaciones policiales en manifestaciones entre 1969 y 1977<sup>313</sup>. En total, entre estas dos últimas fechas extremas señaladas (entre 1969 y 1977) 113 personas fallecieron en actuaciones policiales<sup>314</sup>. El 29 enero de 1968, meses antes de que Txabi Etxebarrieta muriera tiroteado en Tolosa, el donostiarra José María Quesada Lasarte fallecía a consecuencia de las secuelas que le dejaron las torturas a las que fue sometido en 1962 por parte de la Brigada Político Social bajo las órdenes de Melitón Manzanas. Las tres operaciones practicadas (una en el oído y las otras dos en el cerebro) en los años posteriores a su salida de prisión, no evitaron el empeoramiento de su salud y finalmente su muerte<sup>315</sup>.

<sup>308</sup> GPAH; Gubernu Zibila; c 3673tik c.3682ra. / AHPG; Gobierno Civil; c. 3673 a c.3682.

<sup>309</sup> BABIANO MORA, J. eta beste: Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos.

<sup>310</sup> Carlos Iniesta Cano Guardia Zibilaren zuzendariak 1973an emandako agindua (in CASANELLAS, P.: Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977. / Instrucción dictada por el director de la Guardia Civil Carlos Iniesta Cano en 1973 (en CASANELLAS, P.: Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977.

<sup>311</sup> CARCEDO, D.: Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando.


<sup>312</sup> CASANELLAS, P.: Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977.

<sup>313</sup> BABIANO MORA, J. et al.: Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos.

<sup>314</sup> Ibidem. / Ibidem.

<sup>315</sup> EGAÑA, I.: Quesada, el pionero de ETA machacado por la tortura. (Gara, 2018ko urtarrilak 29). / (Gara, 29 de enero de 2018).





Gipuzkoako Gobernu Zibilarren errepresio-organigrama. 1961 / Organigrama represivo del Gobierno Civil de Gipuzkoa. 1961. (AHPG).

Tolosan burututako polizia-ekintza gehienak Guardia Zibilarren konpainia berriak eragindakoak izan ziren, lanleku eta espazio publikoetan jarduten zuen Informazio Zerbitzu bat zuena (gainerako agenteek esku hartu aurretik). Zerbitzu haren buruan Manuel Balirac Abeijon kapitaina zegoen 1968an (1985ean ohorezko komandante izatera igo zutelarik, 1937. urtetik polizia-multzo frankistako kide izan arren<sup>316</sup>). Garai harekin lotuta dokumentatutako lehendabiziko sarekada 1963ko abenduan gertatu zen, Izaskungo ermitan erreketen hiru bandera ostu ondok. Guardia Zibilak 40 pertsona bilatu zituen eta horietatik 7 gutxienez atxilotu eta ondoren epailearen aurrera eraman zituzten “bandera nazional ugari laidoztatzea” leporatuta. Xabier Garikano Solabarrieta eta Antonio Maria Imaz Goicoechea izan ziren Guardia Zibilarren kuartelean beren borondatez aurkeztu ziren tolosarren artean bi. Antoniok kuartelean gatibu egor zen bitartean torturak jasan zituela salatu zuen. Beranduago, Ordena Publikoaren Auzitegira eraman zuten eta bertan 4 hilabeterako Soriara erbesteratzea erabaki zuten.

La mayor parte de las operaciones policiales llevadas a cabo en Tolosa fueron responsabilidad de la novena compañía de la Guardia Civil, la cual contaba con un Servicio de Información que actuaba en centros de trabajos y espacios públicos (previo a la intervención del resto de agentes) y a cuyo mando se encontraba en 1968 el capitán Manuel Balirac Abeijón (ascendido a comandante honorífico en 1985, a pesar de haber formado parte del entramado policial franquista desde 1937<sup>316</sup>). La primera redada documentada para este período se produjo en el mes de diciembre de 1963, a raíz del robo de tres banderas requetés de la ermita de Izaskun. 40 personas fueron requeridas por la Guardia Civil, y al menos 7 de ellas fueron detenidas y posteriormente trasladados ante un juez bajo la acusación de “ultrajar varias banderas nacionales”. Xabier Garikano Solabarrieta y Antonio María Imaz Goicoechea fueron dos de los tolosarras que se presentaron voluntariamente en el cuartel de la Guardia Civil. Antonio denunció torturas durante su cautiverio en el cuartel. Posteriormente fue puesto a disposición del TOP, quien decidió desterrarlo a Soria durante 4 meses.

<sup>316</sup> Ejertzitoko Ministerioaren Egunkari ofiziala; 250. zenbakia; 1961eko azaroaren 8koa // Defentsa Ministerioaren Aldizkari Ofiziala; 28. zenbakia; 1985eko martxoaren 12koa; 120/3053/85 Agindua. / Diario Oficial del Ministerio del Ejército; núm. 250; del 8 de noviembre de 1961 // Boletín Oficial del Ministerio de Defensa; núm. 28; del 12 de marzo de 1985; Orden 120/3053/85.



Orduetik eta 1973. urtera bitartean diktadura-erregimenaren aurkako erakundeetako militanteen atxilotetak etengabeak izan ziren. Eta 1974. urtetik aurrera, atxilotuen kopuruak gora egiteaz gain, sarekadak ere areagotu egin ziren, Tolosako kuartelean pertsona ugari kartzelaratzeara eragin zutenak. 1974ko abenduaren 8-12 bitartean 28 pertsona atxilotu zituzten guztira, Tolosako industrian sortutako gatazka orokorraren aurkako protestan parte hartzen zuten manifestariak eta langileak. 1975ean, abuztuaren eta azaroaren amaiera bitartean soilik, Guardia Zibilak burututako 58 atxiloteta zenbatzen dira. Azaroaren 29an atxilotutako 16 pertsonen kasuan, Tolosako Instrukziozko Epaitegira eraman zituzten ETA V erakundeko kide izatea leporatuta, zegozkion diligentiak burutu eta hainbat gai atzitu ostean. Epaileak aske utzi zituen, bakoitzari 10.000 pezetako fidantza ipinita. Erabaki horrek Guardia Zibila haserrearazi zuen, Gipuzkoako Gobernu Zibilera helarazi zuten txostenean islatzen denez: “atxilotuak aske utzi zituzten] erakunde haren barnean delituzko zenbait jarduera burutu arren, epaitegira entregatu ziren unean hartako funtzionario batek adierazi zuen Guardia Zibilak atxilotuen entrega atzeratu egin zuela erregearen aldarrikapena egin izanaren ondorioz azaroaren 22ra bitartean burututako zenbait delituen kasuan agindutako indultua aplikatu ezin izateko. Tolosako instrukzio-epaileak ETA euskal erakunde terroristako aktibistak, arriskutsuak direnak begi bistan dagoenez, aske uzteko hartutako erabaki horrek ezinegon, haserre eta desilusio handia sortu du kasua ezagutzen duten Indarren artean eta, era berean, adierazgarria da normalean Donostian egoten den epaileak, bertan bizi baita, telefonoz emandako agindu bidez utzi zituztela aske atxilotuak”<sup>317</sup>.

